



Joxe Mari Lertxundi

# Beti festara begiak



17304  
GAS-128/93



EUSKALTZAINDIA

Arabako Ordenkatza

# Beti festara begiak

---

Auspoa Liburutegia

236

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Joxe Mari Lertxundi**

---

Beti festara  
begiak

---

Auspoa Liburutegia  
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-36-4

Legezko Gordailu: Na.: 643-1996

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, Lizarra

---

## Lenengo aldiz Erniora

**E**uskal Erriko erromeriak ez dakigu noiz eta nola asitakoak diran. Baiña, ezbairik gabe, oso antziñatik datozenak dirala garbi ikusten da. Gauza asko daude beraien lekukotza eta aitortpena egiten dutenak, liburu zarretan azaltzen diran ainbat eta ainbat erromeriren aztarnak, eta gure aurreko aiton eta amonak kontatu zizkiguten beste ainbat gertakizunen berri daukagulako.

Orregatik, gure garai ontatik begiratuta, oraindik askozaz arrigarriago iruditzen zaizkigu lengo erromeri giro aiek.

Erri koskor eta mendi-ermita aien babesean, beren jai edo atsedeen egunak ospatuz, billerak egiten asi eta ango giro orrek poztuz eta lagun egiñez sortua izango zan erromeria.

Zarrak ere izango ziran. Baiña olako tokietan gaztea izan oi da geienbat; eta, sasoiko jendea dagoan tokian, ez da gaiztoa izaten jolasa edo umorea. Olako zerbait eta geiago ere bai, zalantzarik gabe.

Orduan ere taldean etzan arritzeko izango bateonbat txistua jotzen zekiana izatea. Besteren batek danborra edo antzeko zerbait joko zuan; beste batzuek bertsoan egingo zuten; eta gaiñerakoak dan-



*Ernioko gurutze aundia egin zuan gazte taldea, asteasua-  
rrak eta aiarrak danak, beren lana bukatutakoan.*



tzan. Ara bertan naiko festa giroa. Asera batean orrelaxe izango zan erromeriaren sorrera.

Ni lenengo aldiz amaika urterekin joan nintzan Erniora, neure aita eta ama lagun nituela.

Baiña ez giñan gu bakarrik; beste bi baserrietako aita-amak, seme banarekin, danok alkartuta joan giñan: Gorostiolako Andres eta Maria seme Eusebiorekin; Aialdeko Migel eta Teresa seme Juanekin. Eta bidean Olai baserriko Joxe, bera bakarrik, alkartu zitzaigun.

Goizeko bederatzietan Aiako plazatik abitu giñan, egun guztiko jatenak pardelean artuta, goraka.

Ordu ta laurden aldera Iturriotzko Benta Zarrera iritxi giñan. An, ogitartekoa janez, gure gorputzak berritu genituan.

Gogoratzen naiz bertako su zarrari begira aritzen nola egon nintzan. Lenago ere beko sua ikusten oitua nengoan ederki asko, etxean gendukalako. Baiña Benta Zarreko arek bazuan zerbeit berezia: pago buru osoak zeuden surtan erretzen jarriak.

Nik aiek nola sartzten zituzten galdetzean, nere aitak esan zidan idi pareta erantsi eta sartzten zituztela. Orduko Iturriotzko karrerapea zabala baizan, eta bai bear ere idiekin suaren ondoraino enborrak eramatekotan.

Ango egonaldi ura egin eta berriro ekin genion gorako bideari; eta gu mutiko giñanontzako ango aitz tontor eta gaiñerako gauza guztiak ziran arrigarri.

Neska-mutil taldea noiznai, batzuk gora eta besteak beera, soiñu jolea beren tartean zutela; eta gu aiei begira txorutzen.

Orrelaxe iritxi giñan, dana jendez beteta zegoen zorioneko Zelatungo paradisora. Ango gune ura arrigarria zan lenengo aldiz ikusi genduanentzat. Ango

bordak! Ango jendetza! Nunai batzuek trikitixa jozen eta besteak dantzan. Ango irrintzia eta oiua! Ango gauza aiei begira, gu ezin aserik geunden. Guretzako beste mundu bat zan ura.

Gu iru mutiko giñan taldean; eta irurok, Zelatun gaiñeko aitz tontor aundi ari begira, bildurrez geunden. Ortik beera erori ezkerro, akabo!

Alkarri olako kontuak esanez geundela, gurasoak ezan ziguten abitu egin bear genduala.

- Nondik joaten da? -nik aitari galdetu nion.

Eta arek erantzun, gu len begira egon giñan ura erakutsiz:

- Orroko aitz orren ondoan barruna.

Ori entzun genduanean, ura gure bildurra aitzarte artan igarotzeko! Eta andik ordu pare batera zer pasako zan jakin izan bagendu, oraindik aundiagoa izango genduan.

Kontu oiek esanda, ekin genion azkeneko zati neketsu eta gogorrari. Gero eta bide aldapagoa, zakarragoa eta estuagoa.

Jendea, berriz, dana betean, batzuk beera eta besteak gora, antxe alkarri bultzaka ta pasa eziñik, pauso bat emateko bildurrez.

Alaxe, geure neke eta ezin guztien artean, noiz-bait iritxi giñan gurutzbidea egiten asten diran lekuraiño; eta antxe zai egon giñan, aurreko txandakoak beren gurutzbidea bukatu arte.

Gure talde ura otoitzean asteko bere txandaren zai zegoala, gizon sasoiko bat, bulartsua eta bizarduna gaiñera, iritxi zan gure artera, oiñutsik eta errosario aundi batzuk lepotik zintzilik zituala; eta gurutzbide guztia alaxe egin zuan.

Guk ura era artan arri artean ikusi eta mutikoak batak besteari esaten genion:

- Ori santuren bat izango dek!

Ez dakit ala zan; baiña guri ura iruditu zitzaigun.

Orrelaxe iritxi giñan lenbiziko aldiz Ernioko gailurrera. Bai pozik egon ere lau aldeetara begira. Ainbeste erri eta errixka, ainbeste baserri eta beste ainbat eta ainbat mendi tontor. Bein ere ikusi gabe-koentzat, danak ziran arrigarri. Berdingabea izan zan gure orduko gozamina.

Ernioko gailur artan aspertu bat artu ondoren, jetxi gurutzbidea asten zan tokira. An bazegoan gurutze berezi bat, eta gaur ere antxe dago, ikusi nai duanarentzat.

Gurutze ori dana burnizko uztaiez betea egoten da; eta uztai bakoitzak gorputzaren toki jakiñean jartzeko egiñak zeuden: petxurako, gerrirako, lep-rako eta beso eta anketarako. Bakoitza bere tokian jarriz ibilita, aize txar edo erreuma guztiak kentzen omen dituzte.


Baiña, ori lortzeko, sinismen osoa bear, eta ori gauza zailla izan. Batzuek lortuko zuten, eta besteak ez. Guk ere saio bat egin genduan, eta seguru nago kalterik etzigula egin.

Burnizko uztai aiek bakoitzak bere gorputzean sartu ta atera ibili ondoren, beeraka ekin genion; eta, jakiña, gu, mutiko giñanak, errezago jetxiko giñan.

Baiña gure guraso aiek, gazteenak ere berrogei ta amar urtetik gora edukiko zituzten; eta, gorakoan neka-neka egin eta gero, beerakoa edadekoentzat askotan zaillagoa izaten da. Orduan ere ala gertatu zan.

Bidea ere oso traketsa; eta, poliki-poliki oiñak aldatuz, alako batean jetxi giñan zorioneko Zelatungo atsedeen lekura.

Zelatungo borda inguru artara eldu giñanean,



*Errioko errameria.*

naiz eguraldiaren aldetik eta naiz bertan zegoan soiñu, pandero, irrintzi, dantza eta ango jendearen emana, berdin gabeko giroa zegoan. San Miel aurreko igandea baizan, eta orduan izaten dira Zelatungo festak.

Batzuk dantzan zebiltzan bitartean, beste mordo bat lurrean exeri ta bazkaltzen. Gu ere bereala asi giñan, antxe arresiaren babesean eta aren ondoan zegoan lizar baten itzala aprobetxatuz.

Alaitasun aren erdian, ematen zuan bazkari toki aparta genduala. Baiña, luzaro baiño len, ango alaitasunak eta eguzki dizdiratsuak odei beltz eta illun batek estali zituan.

Aseran esaten nuan nola goizean Joxe Olai gure taldean sartu zan, bera bakarrik. Gero, tarteka bere lagunak utzita, bere gisa saio bat egin eta berriro lengo lagunetara bildu. Orrelaxe ibiltzen zekiana zan. Berezko joera zuan.

Orduan ere, gu bazkaltzen asi giñanean, etzan Joxe aren arrastorik. Baiña berealaxe azaldu zan, aurpegi zuri-zuriarekin eta izerditan blai. Aita zanak ala ikusi zuanean, bildurturik-edo, galdetu zion;

- Zer gertatzen zaik, Joxe?

Eta onek orduan:

- Ikaragarria pasa dek! Larraulko andre bat makurtu ta bere semetxoari alpagata lokarria lotzen ari dala, goitik erori dan arri batek buruan jo eta seko utzi dik.

Berri ura zabaldu zanean, trikitixak eta irrintziak ixildu ziran, eta gu ere oso goibeldu giñan.

Gaur ere, era orretan pertsona bat iltzen danean, ematen du goibelune galanta. Garai artan askozaz geiago, eta egun artan ere izugarria eman zuan.

Gogoratzen naiz nola geroxeago gorputza Zelatungo borda baten ondoan, zapi batekin estalita,

eduki zuten. Bere ondoan bat negarrez ikusten genduan. Gure gurasoei galdetu nien ura zein zan, eta aitak esan zidan ildako aren gizona zala.

Sendi arek, Ernioko aitzetan asi zuan suerte txarrarekin jarraitu zion. Andik urte ingurura, gizon ura, baso lanetan ari zala, zugaitz batek azpian artuta il omen zan. Ondoren, orduan mutiko zan ura, sasoi betean zegoala, motoko istripu batean il zan. Irurak ezbearrez joan ziran.

Goiko aitz barrenean arriak buruan jo eta il zan andre aren gorputza, Zelatungo borda ondoan geldialdi txiki bat egin eta abitu ziran Larraulko bidean. Lau lagunek angail baten gainean artu zuten; eta aien atzetik, senarra, semetxoa eta beste batzuk. Gaiñerakoak, berarekin Erniora igo ziran lagunak, seguru asko.

Aiek beren bidean ezkutatu eta laster, berriro ere asi zan trikitixaren otsa eta dantzarien oiua. Ixilunea eta goibelaldia izan baziran ere, ango gazte jende ari berealaxe aztu zitzaion; eta zarragoak ere erromeri giro ura naiagoko zuten geientsuenak.

Gure gurasoak ere oso patxara ederrean zeuden. Nola inguru artan ango eta emengo ezagunak ere sarri arkitzen zituzten, batekin eta bestearekin aiek kontu kontari zeuden bitartean, gu jende artean korrika eta jolasean genbiltzala, oso komeri polita ikusi genduan.

Garai artan, Iturriotza, Zelatuna eta Erniora ere bai, argazkilari bereziak igotzen ziran. Etzegoan gaur bezelako aukerarik makinetan, eta orduan trepeta baldar batzuk izaten zituzten.

*Tripodea* edo iru anka zituan tramankulu baten gainean jartzen zuten beren makina ura. Gero, trapu beltz batekin makina eta burua estali, eta illunpe artatik begiratuaz argazkia ateratzen zuten. Ondoren, uretan bustiz, iru bat minutuan eduki eta

jabeari emateko pronto jartzen zuten, bakoitzak Ernioko oroigarri ura gerorako gordetzeko.

Argazkilari oietako bat antxe zegoan Zelatungo ertz batean; eta jende artean antxe zebillen beste gizon edo mutil mozkote bat, oso gorputz sendokoa bera, baiña narrats samarra, bizarra astebetekoa gutxienez, txapela zikiña eta gaizki jantzia. Galtzak, urdiñak izandakoak; abarkak eta alkandora zuri izenekoa, bular gaiñean ardoz dana zikindua, eta urdaillean ere ardo puxka bat zeukan itxurakoa.

Batzuetan, dantzan zebillen talde batean sartu eta berak ere saio bat egiten zuan. Geroxeago, andik irten eta bere gisa salto eta irrintzi, sosegatu eziñik.

Eta, ala zebilela, ez dakit ustekabean edo propio, pasara batean ankarekin jo eta aidean bota zuan argazkiak ateratzeko makina ura.

Orduan, aren nagusiak, erdalduna zan eta asarre bizian gaizki esaka eraso zion:

- ¡Bestia! ¡Salvaje! ¡Borracho!

Eta abar eta abar. Eta dalako mozkorxio edo asto kirten arek, bildurtu itxura egiñez, bere aurrean belauniko jarri eta bi eskuak gurutzatuta, onela esaten zion:

- ¡Perdón! ¡Perdón!


Eta gero, ukabilla erakutsiz, rimatuaz bezela:

- Asarretzen baaiz, badakik *zer don!*

Gu mutikoak, ura ala ikusi genduanean, parrez ler gaizto egin genduan.

Orduan ez genekigun gizon zarpail ura zein zan. Baiña, arrastorik ez izan arren, andik abitu baiño len ezagutzeko aukera izan genduan.

Argazkilariaren inguruan gertatu ziran komeriak ikusiz geundela, gurasoak zeuden tokitik deika asi zitzaizkigun, eta aiengana bildu giñanean:



*Zelatungo erromeria.*



- An saltoka erdi mozkortuta dabillen gizon ura zein da?

Baiña aiek ere etzeuden ziur, eta bordako tabernako nagusiari galdetu zioten:

- Aizu: zein da gizon ori?

Eta nagusiak, arrituta bezela, erantzun zien;

- Ori ez al dezute ezagutzen? Ori, Errezillen dan gizonik sonatuena, *Azpilla* dek. Ernioko festa dabillen bitartean, igande guztiak Zelatunen pasatzen dizkik. Bere kontura ez dik ardo asko edango: baiña bestek eman ezkerro, itotzeraiño edango likek.

Gure gurasoak ere etzuten ezagutzen, eta guk aren aztarnik ez izatea etzan arritzekoa.


Iturriotzko auzoan bazan beste baserri bat, Muatz izena zuana. Jatetxea zan, eta ona gaiñera. Gaur erorita dago. Baiña ortxe, andik sei edo zazpi urtera, *Azpilla* aren komeriak ikusteko izan genduan aukera. Baiña an gertatutakoak beste orrialde batean jarriko ditut.

Ernion izan giñan talde osoak, Zelatungo borda-ondo batean alkartuta jarri giñanean, etxera itzulzeko bidean beera ekin genion, gurasoak beren arteko kontu eta komeriak kontatuz; eta gu ere, taldeko txikienak izanik, bagenduan alkarri zer kontatua. Ainbeste toki eta gauza berri ikusi eta etzan arritzekoa izango gure artean zertaz itzegiña izatea.

Alaxe, aundiak eta txikiak, bakoitza berean kontu kontari gentozela, konturatzerako Iturriotza jetxi giñan.

An, ordurako, erromeria indarrean zegoan. Ango karrerape ura dana gazte jendearekin betea. Ataria ere bai.

Danak, edo asko beintzat, trikitixaren soiñuan dantzan zebiltzan. Karrera artako ormaren gaiñean soiñujolea eta panderojolea aulki banatan exeri eta



*Zelatungo erronomia.*

jo ta jo ari ziran. Ni baiño zertxobait zarragoa zan mutil bat, errikoa eta ezaguna gaiñera, an festan zebillela arkitu nuan, eta ari galdetu nion:

– Soiñujole ori zein dek?

– Ori *Xakabia* dek -erantzun zidan.

Gaiñera, onela esan zidan jarraian:

– Orrek bala omen zeukak biotzaren oso gertuan; eta, ikuitu ezkerro, bertan ilda geldituko omen dek.

Nik, ori entzun nuanean, pentsatzen jarri nintzan: “Len andre bat ilda ikusi diagu; eta au orain deskuido santuan emen iltzen bada, zer egun gogoangarria izango dan neretzat, lenbiziko aldiz Ernion izan nintzan eguna!”

Baiña etzuan izango guk uste bein arriskutsua. Nik pentsamentu ura izan nuala, badira berrogei ta amabi urte, eta orain il berria da *Xakabia*.

Iturriotzen, trikitixaren doiñu polit aiekin, gozatu genituan gure belarriak; eta dantzarien oiur, salto eta kriskitin otsak entzunez, eta aiei begira aspertu eziñik saio bat egin ondoren, Muatza aldatu giñan.

An ere giro berdiña zegoanez, beste unetxo batean egon eta etxerako bideari ekin genion.

Amarretarako Aiako plazan geunden. An alkar agurtu eta bakoitza bere etxera. Nere gurasoak eta ni gurera iritxi giñanean, ura zoriona nere! Goizean Erniora oso pozik irten nintzan; baiña gauean oean sartzeko nik neukan poz ura aundiagoa zan.

Orrelaxe izan ziran lenengo aldiz Ernion eta Ernio bidean izan nituan gertaerak eta gozatu nuan erromeri giroa.

---

## Zigorra

**N**ere gaztaroan, Aiako enparantzan, Pazkoetatik Nasi eta San Juanak bitartean, igande eta jai guztietan erromeria egiten zan; eta gero beste zati txiki bat Eguberri jaietan.

Baiña, ortarako, Elizaren legeak orrela agintzen zuten eta Eguberri aurretik Garizuma txikia esaten zitzaiona bete bear izaten zan; eta, erromeririk gabe, oso goibelak izaten ziran tarte ortako jai egunak.

Argatik, Gabonak irixteko amets betean egoten giñan, batez ere bi gauza auekgatik: sendiko billera ederrak egiten ziralako; eta, gaiñera, soiñu eta festarik gabe saioska bat aurretik eginda geundelako, irrikitzen egoten giñan Eguberri jaietako erromerian gozatu bat artzeko.

Etzan orain bezelako orkesta edo konjuntorik izaten: soiñujole bat, eta bera etzan izango gaur daudenekin konparatzeko modukoa. Baiña zerbait mol-datzen zana izan ezkerro, etzion ajolik.

Erriko eta erbesteko biltzen ziran gazte guztiak, neska eta mutil, danak dantza askatu ederrean. Etzegoan lotuan edo baltsean aitatu ere egiterik. Erri askotan garai artan omen zan galerazia, eta Aian ere bai. Gogor gaiñera!

Erriko alkate jaunaren agindua auzo guztietara zabaldua egoten zan. Baiña, ala ere, Pazkoa goizeko iru meza ondorenetan, aguazillak erriko plazan bandoa jotzen zuan, dantza lotuan egiten zuana zigortua izango zala esanez; eta orain jarriko det gai orretan Aian gertatu zanaren berri.

Ez dakit, ziur esateko, 1941 edo 1942-an izan zan. Bi oietako batean beintzat, eta urte baten aldeak gai ontan ez du ezer esan nai.

Urte oietako Agoztuko Andra Mariren egunez, Jesus *Beobate* omen zan soiñujolea, eta illundu ezkerero nastuko pieza bat jo omen zuan. Gaiñerakoak gelditu omen ziran; baiña batzuek atrebituxeagoak beti izaten dira, eta orduan ere bai noski, zazpi bikotek-edo, dantza lotuan egin omen zuten.

Gero kontuak! Erretorea oso asarre eta alkatea ere bai. Zein ziran aztarna atera zutenean, danei abisuak erriko aguazillak egin omen zizkioten, bostna duro zala esanez bakoitzaren zigorra.

Orduan, dantza egin zuten guztiak billera bat egin eta erabaki au artu omen zuten: bostna duro bota eta juizioa jarriko zutela alkatearen aurka; eta ortan gelditu omen ziran.

Dantzan egindako bat bazan Mariano izena zuana, eta orrek bere gisa legegizon batengana joatea pentsatu omen zuan. Baita joan ere. Garai artan sonatua omen zegoan Donostian Arrue, eta berarengana jo omen zuan. Onek, mutil gaztea ikusi zutenean, parre egiñez esan omen zion:

– Zer degu, ba, gazte?

Mutil gazteak ere parre egiten, baiña kontu zelebre samarra eta ezin itzik atera. Berriro ere Arruek, itza artuz:

– Ni oitua nago gauza zelebreak entzuten, eta bildurrik gabe bota.

Orduan, gertatu zana kontatu omen zion, eta be-reala erabakia eman ere bai:

– Zuk diozunez, dantza lotuan ez egiteko ordena emana zegoan aurretik. Orregatik bakarrik ez daukazute delitu edo pekatuak. Baiña juiziora joaten bazerate, jakiña dago zerengatik pekatari jarriko zaituzten: alkateari obeditu eza. Baiña alkateak, gai oietan, bere errian, gobernadoreak aiña agintzen du; eta bere aurka juizioa jartzen badezute, beti galtzaille gertatuko zerate. Zeure lagunei esaiezu, bost duroko zigorra ordaindu eta askoz obeto aterako dirala.

Orduan Marianok galdetu omen zion:

– Zenbat da zurea?

– Bost duro.

Eskatu ziona ordaindu eta etxeratu omen zan.

Urrengo egunean, illunabarrean, Mariano bildu zan berriro dantzan egindako talde arekin. Esan omen zien Arruek zer eta nola eman zion legearen berri, eta bost duro ordaindu eta ohea zutela. Baiña gaiñerakoak ezetz. Marianok orduan:

– Zuek nai dezutena egin. Nik ordaindu egingo det, eta kito.

Ori entzun zuanean, soiñujoleak esan omen zion:

– Nik amar duro kobratu nizkian jai artako soldata; eta orain milla erreal, berrogei ta amar duro, diat zigor edo multa. Ordaintzerako, nik ere joan bear diat Arrue orrengana.

Ala, urrengo egunean, Mariano eta Jesus *Beobate*, biak joan omen ziran legegizon orrekin itzegitera; eta berriro ere lengo kontsejuak eman omen zizkien.

Orduan, Aiara itzulita, Marianok berea eta lagunarena amar duro, eta soiñujoleak berrogei ta amar ordaindu eta saltsa artatik aske gelditu omen ziran.

Baiña gaiñerakoak, nola multa ordaintzeari ezezkoa eman zioten, urrengo egunean danak furgoneta batean sartu eta kartzelara Donostiko Ondarretara.

Gaiñera, neska batek ortarako aiña urte etzeuzkalako edo adin nagusira irixten etzalako, bere ordez aita joan omen zan.

Eta gero, zortzi egun giltzapean pasa eta umil asko etorri omen ziran bakoitza bere etxera.

Galerazitako gauza beti izaten da tentazio aundia ematen duana, eta Aiako erromeri artan ere ala gertatu zan. Dantza lotuan egitea libre egon izan balitz, bearbada bikote aietakoren bat edo beste batere egin gabe gelditu zitezkean. Baiña galerazitako gauza oiek beti izaten dute indar berezia, eta batez ere gaztediaren artean.

Ara nola izaten diran munduko gora-berak. Orduan ain pekatu aundia zana, gaur ez degu aintzat artu ere egiten.

Agoztuko Andra Mariren egun aundia ondo errespetatu etzutelako, zer nolako ondoren gogorra gertatu zitzaien dantzatu ziran bikote aiei: batzuek diruz ordaindu bearra, eta geienak kartzela zer zan ezagutzeko aukera ere izan zuten.

Gaiñera, erriaren aurrean lotsagarri gelditu ziran. Garai artan, Elizarekiko arremanak ondo eramaten etzituztenak etziran begi onez ikusten, eta aiekin ere olako zerbait gertatu zan; ez besteak baiño txarrago edo gaiztoagoak ziralako, baizikan orduko egintza aiek ain aunditzat artzen ziralako.

Olakoxeak dira belaunaldi batetik bestera izaten diran aldakuntzak, eta orrelakoxea da gizonaren izatea: gaur izugarrizko gauzak iruditzen zaizkigunak, emendik urte batzuetara ezereztuta ikusiko ditugu.

Denboraren ardatza beti jiraka dabil, eta ez dago beti iraungo duan oitura edo legerik gizadi onentzat egiterik. Ori da gertatzen zaiguna. Urtetik urtera aldatzen goaz; eta, naizta asko kostatzen zaigun, onartu bearra daukagu.



---

## Mutikotako jolasak

**G**aurko mutiko eta neska koskorrei begira jar-tzen bagera, ikusiko degu erromeri goserik ba-tere ez daukatela. Txiki-txikitandik telebistaren au-rrean oitu dira. Eskolara asi orduko, ekiten diote batzuek soiñu txikia ikasten, besteak txistua, eta beste mordo bat dantzak, mota askotakoak gainera.

Pixka bat trebetzen diran bezin laster, izaten di-tuzte billerak edo jaialdiak: trikkitixaren norgeiagoka, dantzari eguna dala, eta urtean zear orrelako festa giroa noiznai izaten dute. Eskoletan ere antzeko gi-roa daukate. Gaztetxo dirala, ibillaldi edo eskurtsio-etara eramaten dituzte, eta ez egun bat eta biko ba-karrik; aste bete edo geiagorako sarritan.

Orrela, erromeri girorik izan bear lukeanik gogo-ratu ere egin gabe bizitzen dira. Beste gauza oiekin beteta dago oien burua. Baiña gai ortaz gaurko gaz-tetxo edo gaztediari utzi deiogun pakean. Garai orrek arrapatu ditu eta kito. Ez da beren errua. Gu ere, aldi ontan gertatu izan bagiña, olakoxeak izango giñala ez dago zalantza aundirik. Izatez gizaki guztiak berdintsuak gera. Zerbaiten eragiñak alda-tzen gaitu.

Gu gaztetxo giñaneko jolasak eta ibillerak, orain

dauden oitura eta jolasteko era auekin ez dago konparatzerik eta gutxiagorik ere, bi belaunaldi zeoro ezberdiñetan gertatu geralako. Guri oraingoa aldrebesagoa iruditzen zaigu; eta oraingoari, berriz, alde-rantziz. Bakoitza berearekin konformatzea izango degu gauzarik onena. Ez bai dago igaro dan ezer aldatzerik.

Ni eta nere garaiko mutillak, amaika-amabi urte-etatik amabostera bitarte ortan gutxi gora-bera, era ontan igarotzen genituan igande eta jai egunak: goizean mezetara; gero, lagunekin bidean etxerakoan itzegiten genduan arratsaldean nora bildu edo zer egin.

Garizuma garaian gu, lagun batzuek beintzat, bezperetara joaten giñan. Baiña baziran joan gabe gelditzen ziranak ere. Ori betikoa da.

Orren ondoren, nola udaberri garaia zan, gu orduan iru bat lagun alkartu eta arratsaldean txori abiak billatzen ibiltzen giñan.

Bolara ura pasatzen zanean, auzo guztietan izaten ziran baserri bereziak adin ortako neska-mutillak jolastera biltzeko; eta guk ere bagenduan nere jaiotetxetik amar bat minutuko bidera zegoana, beko erreka-ondoan, Argin-berri izeneko baserria. Gaur deseginda dago, baiña garai artan bazan amar bat laguneko sendia; sendi artakoak iru bat mutil nere kidekoak, eta bertara biltzen giñan Agorregi, Iturran, Manterola, Manterola-erdi, Argin eta iñoiz Erristakoak. Danen artean, amabi edo geiago biltzen giñan.

Toki batzuetan, neska eta mutil danetik bilduta jolasten ziran. Gure taldean etzan neskarik izaten. Mutillak bakarrik prestatzen genduan geure gisako erromeri giroa.

Gure billera jolas mota askotakoa izaten zan. Garai artan bolatokiak bolara aundia zeukaten, nola

kalean ala baserrietan; eta, Argin-berrin ere bazego-anez, bolan saio bat egingo genduan.

Artan aspertzen giñanean, gurditxo edo karro txiki bat bazan eta gero berarekin ibiltzen giñan. Bide aldapa samar bat bazegoan bolatokiaren goiko aldean, eta karroa bizkarrean jaso, gero gaiñean jarrri eta al zan azkarrena bidean beera. Kurpil ta guzti nola egurrezkoa zan, ateratzen zituan txistu ederrak. Batzuetan su artzeko moduan gelditzen zan. Orrelaxe, danak txandan ibiliz, saio bat egiten genduan.

Gero, eguraldi bero samarra gertatzen zanean, eta errekan ur gutxi samarreko garaia egokitu ezkerro, arrantzan ere bai gustora asko. Orduan amorraia ugari izaten zan; eta errekek, berriz, garbi-garbiak egoten ziran.

Ez genduan kaiñaberarik edo arrantzarako alamoduzko trepetarik izaten, sare pusketa zarren bat izan ezik. Baiña eskuarekin batzuek eta besteak makillarekin zirikatuz ari giñala, geienetan mordoska bat arrapatuta itzultzen giñan; eta garai artan ziran amorrai aiek prejitu eta jateko gauza goxoak izaten ziran.

Beste biltoki berezi bat, garai artan artzaia zebillenen tokia izaten zan. Artzaia nagusia edo morroia etzion ajolik. Gaztea izatea zan guretzako garrantzitsuena. Ura izan ezkerro, seguru prestatuko genduan festa giroa.

Amezketako artzaia zan gure inguruko zelaietan geiena ibiltzen zana. Joxe Mari zuan izena nagusiak, baiña geienak *Gorria* esaten zioten. Oso artzai sonatua zan.

Orrek izan zituan bi morroi gazte: bat Santio, Goizuetakoa; eta bestea Jenaro, Uztegikoa. Beste artzai gaztea, berriz, Joxe nagusiaren semea, gu baiño bost bat urte zarragoa. Aiek irurak ere gu, tal-

dea, noiz joango giñan zai egoten ziran. Jakiña, as-  
tea etsi-etsian pasatzen zuten. Baiña igande edo jai  
eguna irixten zanean, eguraldi ona izan ezkerro, eta  
arkume jaiotzen bolara aundiren bat ez bazan, jola-  
serako amorratzen egoten ziran.

Guri askotan gertatu zitzaigun, igande batean  
zerbaitetan ixkanbillan edo driskan leer gaizto egi-  
ten ibili, nola ain gustora pasatzen genduan; eta  
artzaiak, berriz, oraindik arrazoi geiago zeukan poz-  
tutzeko. Bestela bakarrik triste-triste egon bear  
zutenak, gurekin txoratzen pasatzen zuten arratsal-  
dea. Urrengo iganderako ere tratua eginda alkarren-  
gandik banatzen giñan.

Guretzako, billera aiek guztiak erromeri giroari  
loturik zeuden zerbaitsu ziran. Gai oni buruz auxe  
esatera ausartuko nintzake: gaurko gazte askok  
eta askok zulo oietan sartu eta musika zarata ar-  
tean naiz gau osoak pasa, gure gaztetxotako billera  
eta jolas aiek baiño erromeri kutsu gutxiago du-  
tela.

Baliteke nere iritzi au oraingo belaunaldi onen  
irizpidearekin oso oker edo ezberdin etortzea. Baiña  
bakoitzari berea ematekotan, aitortu bearra dago  
galdu dirala lengo erri, errixka eta auzoetako festa,  
billera eta oitura alai aiek.

Garai guztiak gauza berezi batzuk izaten dituzte,  
eta guztiei irixten zaie bukatzeko garaia ere. Bolara  
batean oso gogoko eta indarrean egoten diran jolas  
eta oitura aiekin erria edo erritarrak aspertzen joa-  
ten dira. Zerbait berriaren billa asten da jendea, eta  
azkenik aurkitu egiten dute.

Orain ere orixe gertatu da, eta orren aurka ez  
dago ezer egiterik. Ori baita munduko legea.

## Mutil-ardoa

**G**aztetxotako gure billera eta jolas oien ondoren, guretzako ere iritxi zan aro batetik bestera aldatzeko garaia. Askotan amets egindakoa gaiñera.

Oraingo gaztetxoak ez daukate ainbeste irrika; baiña gure garaian amabi-amalau urtekoak emezortzira irixteko izaten genduan amorrua edo eromena ez dago agertzerik. Ura zer zan jakiteko bizi egin bear da. Bestela ez dago neurtzerik.

Aiako errian, gaztetxo edo mutiko usai ura utzi eta mutil egitera eltzeko garai ura erriko festetan gertatzen zan.

Erriko jai nagusiak abuztuaren 7-an San Donato egunez asi eta 10-ean San Lorentzorekin amaitzen ziran, eta festa aiek antolatzeko erriko mutillak osatzen zuten erakunde bat izaten zan Aian, eta erri geiagotan ere bai: Asteasu. Errezil, Zarautzko Iñurritza eta Urtetan bi auzo oietan, eta Aia bereko beste zazpi auzoetan ere berdin.

Erakunde orri *mutil-ardoa* deitzen zitzaion; eta, egiten dan tokietan, orain ere bai. *Mutil-ardo* ortako sozio egiteko, amalau urte beteta egon bear zuten mutillak. Nik nola abenduan egiten nituan amalau, urrengo urtean sartu nintzan *mutil-ardoa*-n, ia amabost urterekin beraz.

Irakurleetako norbaitek galdetu lezake:

- Zer da *mutil-ardoa*?

Gaur erriko jaietako gastuak Udalaren bizkar jotaten dira. Baiña antziñatik asi, eta gure garaian ere bai, erriak uskeri bat ematen zuan. Gaiñerako guttia mutillen kontu izaten zan, eta ortarakoxe alkaritzen zan taldeari deitzen zitzaion *mutil-ardoa*.

Aian, erriko jai nagusietan, erri guztiak artzen zuan parte; baiña jai antolakuntzarako eun da berrogei ta amar inguruko mutil taldea osatzen giñan, Kalea, Kurpidea eta Arrutiegi auzoetakoak. Ori zan gure *mutil-ardoa*.

Gaiñerako beste *mutil-ardoak* era ontan banatuak zeuden: Iruretaegia eta Etxeta baillara San Juanetan Iturriotzen; Andatza eta Olaskoegia San Pedrotan San Pedro auzoan; Erreka baillara Santiago auzoan Santio egunez; Laurgaiñen San Mioletan; Urdanetan San Martiñetan; eta Altzola auzoan San Roman egunez.

Auzo oietan danetan, *mutil-ardoa*-ren babesean antolatzen zituzten beren Zaindarien jai nagusiak.

Aiako errian, *mutil-ardoa*-ren oitura ori antziñatik datorrena da, gure aurrekoak esaten zuten; eta oraindik ere jarraitzen du. Baiña bertan biltzen diran gazteak ez dute, gure eta aurreko garaietan bezela, gastuen ordainketarako bakoitzak dirua bota bearrik. Baiña *mutil-ardo* ortatik osatzen dan gazte talde batek festa guztien antolakuntza eramaten du.

Gure garaian amalau urte bete eta sartzen ziran aiek, lenengo urtea zutelako, gaiñerako en erdia ordaintzen zuten. Baiña giltzerotzan sartzeko eskubiderik etzuten izaten.

Giltzeroak zer ziran? Orain emango det beroien berri. Aurreko urteko giltzeroak, erriko jaiak baiño illabete bat lenago, amasei urtetik gorako mutillak zeuden etxe guztietara abisuak bialtzen zituzten, bi-

llera egiteko ordua, eguna eta tokiaren berri emanez.

Egun orretan biltzen ziran guztien aurrean, etxe bakoitzeko zenbaki bat jartzen zuten etxearen izenarekin batean; eta zenbaki aren bixki laguna zakutxo batean sartzen zuten. Era ortan dana osatzen zanean, batek zakutik bi zenbaki atera eta aiek izaten ziran urte artako giltzeroak.

Suertean erortzen ziran etxe aietan mutil bat baiño geiago askotan edo geienetan gertatzen ziran, eta orduan beren artean aukera edo konpontzioa egiten zuten.

Giltzero oien egitekoak ondorengo auek izaten ziran: *mutil-ardoa* jartzeko tokia izango zan aterpe bat billatu eta pronto jartzea; jaietarako soiñujolea billatzea; bear ziran ardo eta trepeta guztiak ekartzea; Udaletxetik festetarako baimenak lortzea; eta gero, San Inazio egunez, arratsaldean, erriko enparantzian, erromeria jartzea.

Erromeri orren eginkizun nagusiak auek ziran: nola lenago Iturriotz, San Pedro eta Santiago auzoetako festetan jendea sakabanatu eta ibilia gertatzen zalako, berriro aiek errira bildu arazteko giroa jartzea; eta, gaiñera, illunabar artarako giltzero aiek ekartzen zituzten lau edo bost ardo mota eta festaren bukaeran ardo proatzea; eta geiengoak aukeratzeko zuan ardo artatik, giltzeroak lareun edo bosteun litro ardo ekartzen zituzten erriko festetarako.

Urte batean, *mutil-ardoa* zala-ta, zerbaiten diferentziagatik, amabost bat mutilleko taldea beste guztien aurka atera zan. Aurreko urteetan ardo gutxiegi izan zala, eta oiur egiten zuten:

– Milla litro aurten!

Eztabaidan jardun ondoren, pakeagatik onartu egin zan, eta ardo putzu ura dana ekarri zuten. Baiña urte artan, festak bukatu eta beste amabost

egunean, larunbat eta igandeetan, zar eta gazte da-  
nok *mutil-ardo*-n bilduz jarraitu genion; eta, ardo  
aiek bukatu eziñik, azkenerako nazkatuta gelditu  
giñan.

Lenago aitatu det nola amalau urte bete eta gero,  
lenagokoak ere bai eta gure garaikoak ere berdin,  
*mutil-ardo*-ko sozio egiteko aukera izaten genduan.  
Baiña amasei urtera arte etzegoala giltzerotzarako  
zerrendan sartzerik.

Ala ere, orregatik etzitzaion ajola aundirik. *Mutil-  
ardo*-n sartzea zan guretzat garrantzitsuena. Ura  
baizan orduko mutil guztiak amestutzen genduan  
garaia, mutiko-usaiak utzi eta mutil izatera irixten  
giñana.

Erriko festetan egiten zan aldakuntza ori, eta  
neuri eta nere lagunei ere ala gertatu zitzaigun. Urte  
artatik asi giñan festatik beranduxeago etxerätzen.  
Neskekin dantzan ibiltzeko ere eskubide geiago gen-  
duala iruditzen zitzaigun, Baita tabernan sartzeko  
ere, eta abar luze bat.

Baten bizitzan badira aldakuntza aundiak irudi-  
tzen diran gertakizunak: soldaduska egitea, lenengo  
aldiz lantoki batean sartzea, ezkontza eta beste  
gauza geiago.

Baiña neretzako izan dan pausorik aundiena,  
egia garbi aitortzekotan, *mutil-ardo*-ko sarrera arek  
eman zidana izan zan. Eta garai artako geientsue-  
nentzat ere bai. Gauza utsa ematen duan arren, gu-  
retzako izugarria zan ura.

Andik aurrerako erromeriak, naiz errian bertan  
eta naiz auzoetan, neretzat gauza bereziak gertatu  
ziran, eta nere lagunentzat berdin. Ordutik asi eta  
soldadu joan bitartean, igarotako erromerietan artu  
genduan gozatu ederrik.

Umorea eta pakea oso maiteak genituan, eta ez  
dago oiek bezelako lagunik, gaztetan eta zaartza-



roan. Oiek biak baztartzan dituanak, ez du erromeri onik izango. Sesioa maitatzen dutenak gaizki bukatzen dute. Ori da orren baldintza.

*Mutil-ardo*-ko biltzar ura etzan ardoa edateko bakarrik izaten. Barru artako giroak eta lagunarteak etzuten berdiñik. Garai artan etzan, orain bezela, illunduta festa asten. Orduan arratsalde erdian ekiten zion soiñujoleak, eta neska ta mutil danak dantzatzen. Illuntze aldera mutilzar jendea, beste batzuek ezkonduak eta gazte batzuek ere bai.

*Mutil-ardo*-ko toki ura dana beteta izaten zan. Nola ardoa nai ainbeste bazegoan danentzat, batzuek ogitartekoa, baiña geienak kaxuelkadak jatera joaten ziran, goxoak gaiñera: tripakiak, konejua xaltzan, aragia, oillasko erreak eta abar, batzuek etxetik eramanda, besteak tabernetan prestatuak.

Orrelaxe jan eta edan egiñez, ango ipui, bertso zaar eta, puxka bat berotutakoan, berriak ere bai. Illunabarra orrela igarotzen zuan jendeak.

Gero, plazako festa bukatzen zanean, mutil mordo bat neska-laguntzera joaten zan, edo joaten giñan. Ori baizan orduko oitura edo legea.

Bertan gelditzen ziranak, berriz, tabernetan zerbait artuz ibili eta berriro *mutil-ardo*-ra sartzen ziran. Soiñujolea ere bai. Eta neska-laguntzen izandakoak ere, oso urritura joan etziranak beintzat, laster biltzen giñan danak *mutil-ardo*-ra.

Soiñujolea Rafael Bereziartua izaten genduan, Adunako semea, Errenderin bizi zana eta il berria dana, erlojeroa izanik, erlojeri batekin bizimoduan jardun ondoren.

Bera soiñujole iaioa zan, eta bertso zaarra ere asko zekiana. Festa ondorenean, barru artan erriko mutil jende gaztea bildu eta jartzen giñan; eta orduan Rafaelek bertso zaarrak kantatzen ekiten zion,



*Ezkerretetik: Isidro Iturain, Aiako garai artako alkatea; Adunako Rafael Bereziartua soiñujolea, berari Aian eskeiñi zitzaion omenaldian; eta Joxe Mari Lertxundi.*

soiñuarekin lagunduz: Kontxexirenak, Bilintxenak, Xenpelarrenak eta abar eta abar.

Gaiñerako jendeak ere laguntzen zion, eta alaxoke giro berdin gabeen ordu pare bat igarotzen gemituan.

Baiña ura ere etzan danen gogoko gertatzen. Nola barru artan mutillak edo gizonezkoak bakarrik izaten giñan, kaleko neska jendea, naiz ta etxeko leioetatik ango kantuak entzuten pozikan egon, berak gurekin batean barruan gozatzerik etzeukatelako, uraxe zan aien amorrua.

Urte batean, beste mutil talde batekin gertatu zan nesken antzeko zerbait. Eun da berrogei ta amar bat mutilleko taldeak osatzen zuan *mutil-ardo*; eta, dalako urte ortan, amalau bat-edo beste guztien aurka atera ziran.

Auxe zuten artarako arrazoa: orkestina galestia ekarri bear zala; eta gaiñerakoak ezetz. Orregatik, *mutil-ardo*-tik kanpora gelditu ziran.

Ala bearrez, urte artako festa ondorenak, *mutil-ardo* barru artan, sekula izan ziran alaiena eta komeririk geiena prestatutakoak gertatu; eta kanpoan gelditutako talde ura antxe, barrungo soiñu eta kantu otsak entzun eta tripak jaten gizarajoak.

Esaera zaarra da begi guztiak ez dutela batera negar egiten. Ezta irriparra ere. Gure erriko festa aietan ala gertatu zan beintzat.

*Mutil-ardo*-ren biltoki orretan, gazteak ez-ezik, zaar jendeak ere artzen zuan gozatu ederrik. Ardo doainik naikoa edaten zuten. Alamoduzko zaar batzuei jateko zerbait ere ematen zitzaien, batzuetan beintzat. Xoxik gastatu gabe naiko kontua esan, gazteen zorakeriez naiko parra egin, eta bapo. Argatik edukitzen zuten erriko jaiak irixteko alako irrika.

Baziran tartean komeri politik gertatuak ere. Beti izaten dira sekula asetzen ez diran oietakoak, eta orduan ere baziran. Oietako bat, *Txorro* deitzen zioten mutilzaar bat, urtez ondo osatua gaiñera.

Illunabar batean, *mutil-ardoa*-n naikoa edanda zegoala, tarte bat arrapatu zuanean, disimuloan zatoa bruxaren azpian sartu eta etxerako bideari ekin zion.

Xamuel, berriz, mutil gazte bat zan, biurri samarra gaiñera. Eta arek txoko batetik ikusi nola *Txorro*-k zatoa bruxaren azpian artu eta etxerako bidea artu zuan.

Orduan, Joxe Mari beste mutil gazte bat lagun artu eta biak mozorrotu ondoren, makilla aundi banarekin *Txorro* ari bidera irten zioten. Aurrera iritxi ziranean, makillak jasoz esan omen zioten:

- ¡Alto!

Eta *Txorro* bera ere biurria izana, baiña ordurako zaartua; eta illundua gaiñera, eta bildurtu egin nunnabait. Orduan:

- Zer nai dezute? -galdetu omen zien.

- Zuk zatoa ostu dezu, eta bota lurrera, aguro gaiñera!

Bildurtu gizarajoa eta berealaxe utzi omen zuan kolkotan gordeta zeramakian zato ura beren aurrean.

Baiña artean ere mutil aiek komeriak egin nai *Txorro*-ren kontura, eta esan omen zioten:

- Orain nai dezuna: gurekin goardizibillen koartelera joan edo bertan belaunikatu eta bi aitagure errezatu. Zedorrek aukeratu.

Eta ez gogo aundiarekin, baiña otoitzari eldu omen zion. Bukatu zuanean, aginduak eman omen zizkioten:

- Berriz ostutzen badezu, gaur bezela, ez dezu izango barkaziorik. Orduan, soka lepotik erantsi eta arrastaka ibiliko zaitugu. Zedorrek atera kontuak.

Ura etxera bialdu zutenean, zer parre egin ote zituzten Xamuelek eta Joxe Marik? *Txorro*-k, berriz, bere artean au esango zuala iduritzen zait:

- Ogei urteko sasoia eduki izan banu, etzidazuten olako burlarik egingo.

Bera ere gizon gogorra eta azio oietakoa xamarka egindakoa baizan, bere garaikoak esaten zutenez.

---

## Eukaristi eguna

**G**aurko ume koskorrak, naiz mutil eta naiz neska, oso umetandik asten dira gurasoekin, edo bestela eskolako maixuekin, ibillaldiak egiten inguruko iriburuetara, batzuetan etxeko kotxean eta bestetan eskolako ume guztiak autobusean eskurtsiora.

Orrela, amar-amabi urteetarako, gauza eta toki guztien berri badakite. Telebistatik, berriz, ainbeste gauza ikusi eta ikasten dituzte, eta orregatik ez dira ezerekin arritzen.

Gure txiki denbora etzan oraingoarekin konparatzeko modukoa. Igande eta jai egunetan gurasoekin mezetara eta kito. Erritik kanpora ia etzan iñortxo ateratzen.

Neroni ere amar urterekin atera nintzan lenengo aldiz erritik, eta orduan Oriora, ama azokara jetxi zan ostegun batean.

Amak, bidean ginjoazela, esan zizkidan nola *ibaia* deitzen zitzaion erreka aundi bat zeukan Oriok bere ondoan, eta aren gaiñean zegoan zubi luze batean pasa bear genduala. Nik, aiek entzun nizkionean, nere bildurra!

Alako batean iritxi giñan zubi artara; eta ni amaren ondoan jarri eta larri asko pasa nintzan. Arunzko aldera eldu giñanean, an trepeta aundi batzuk ikusten nituan, eta arriturik galdetu nion:

– Ama, zer dira oiek?

Eta erantzun zidan:

– Oiek *baporeak* dira. Guk jaten ditugun arraiak, oiekin itxasora joan eta arrapatzen dituzte.

Nik gauza guztiei begira ibili nintzan lenengo errenaldi artan, eta etxera itzultzerako gauza asko ikasi nituan.

Ni ere, sarritan atera eta kanpoan ibili izan baintz, gaurkoak bezelaxe jarriko nintzan, eta nere garaiko besteak ere berdin. Batetik bestera ez baida alde aundirik izaten. Zer prestakuntza artzen duan, ortxe dago alde guztia.

Nik amabi urte nituala, erriko eskoletan genbiltzan gaztetxoentzat berebiziko ibillaldia antolatu zituzten, nai genduan guztientzat.

Orduan Aian zegoan On Julian apaizak artu zuan zuzendaritza ura. Joan nai zutenentzat, baldintza auek jarri zituan: gaztetxo bakoitzeko amar arrautza eraman bear ziran erriko Kooperatibako dendara, eta orduan izena eman. Eta, orretaz gainera, gutxieneko bederatzi urte beteta egon bear zuan.

Ibillaldi edo eskurtsio ura egiteko arrazoia auxezan: Donostian urte artan ospatzen zan Eukaristiaren Batzarra (*Congreso Eucarístico*).

Ala, esandako egun artan, arrautzak eraman eta izena eman genduanak, goizeko bederatzietarako erriko enparantzan bildu giñan.

Aundixeago edo txikixeagoa bagiñan mordo bat, bi apaiz, sankristaua eta beste bi moja andereñoak.

Asteasuko Agoteren autobusa etorri zan. Danok bertan sartu eta *Christus vincit* kantatuz abitu giñan, eta berealaxe iritxi ere bai.

Danok arritzen, jendetza ura ikusita. Gipuzko-ako txikitxoan eguna gertatu baizan ura; eta erri guztietatik gu bezelaxe Donostian bildutakoak millaka alkartu giñan.

Elduak ere askotxo ziran, geienak zaintzaille moduan joandakoak noski.

Amarako geltokiaren aurrean ziran *Congreso* aren ospakizun aiek.

Gogoan gelditu zitzaidan, meza santua ari zala, geltokian treneko makina batek su artu eta gar galantak atereaz nola erre zan.

Alako batean, ango funtzioak amaitu ziranean, danok autobusean sartu eta bazkaltzeko tokira iritxi giñanean, bagenduan zer ikusia ugari. Alako ur putzu zabala eta arrigarrizko barkuak, gure begiak bazuten nun gozatua.

- Zein erri da au -galdetu genion On Juliani.

- Au Pasaia da -esan zigun.

Ainbeste aundiko barkurik izan bear zuanik, nik beintzat ez nuan pentsatu ere egiten.

Aiek ikusten ibili ondoren, gure apaiz zuzendaria aurrez enkargatua zeukan bazkaria. Sartu giñan jatetxe artara eta berebiziko arrera egin zigun nagusiak.

Orduan jakin genduan gizon ura Aiakoa zala. *Joxe Kozineroa* deitzen zioten.

Oso bazkari ona eman ziguten, eta gustora jan genituan aurrean jarri zizkigutenak.

Orduan ezagutu genduan *Joxe Kozinero* ura, gerroztik amaika aldiz ikustea gertatu zitzaidan. Aiara sarritan etortzen baizan.



Bazkalondoan, berriro autobusean sartu eta abitu giñan. Bidean ginjoazela, On Julianek esan zigun:

- Orain *Monte Igeldo*-ra joan bear degu, eta al-dapa aundi batean gora *funikularrean* igoko gera.

Ori entzutean, ura gure poza! Iritxi giñan esandako toki ortara, eta sartu trenean eta gora. Eldu orduko ikusi genituan tximuak. Artza ere bai zulo batean. Ura zan gozamina!

Gaiñera, an genbiltzala, merienda eman ziguten: ogia, txokolatea eta platanoa.

Gogoratzen naiz: sankristaua tximuarekin kome-riak egiten zebillen. Txokolatea erakutsi eta arek, atzaparra luzatzean, kendu. Orrela ari zala, uste baiño geiago urreratu eta berak jateko zeukana txi-muak ostu zion. Apaizak eta guk egin genituan pa-re ederrak.

Igeldoko mendi mutur artan jolasean eta bazta-rrak ikusten ordu pare bat igaro eta asealdi bat artu ondoren, berriro autobusean sartu eta ekin genion etxerako bideari.

Jakiña, apaizak eta mojak ziran bidai artako ar-dura zutenak. Gaiñera, eliz giroko ibillaldia izanik, bidean sarritan kantuan jardun giñan; baiña dana eliz kanta.

Alako batean, orratik, On Juan apaizak *Altza*, *Pelipe*, *trulalai* eta *Maritxu*, *nora zoaz* eta olakoak kantatzen ekin zion, eta orduantxe alaitu zuan au-tobus barru ura.

Nekatuak geunden, baiña an zegoan umore are-kin konturatzeko iritxi giñan Aiako plazara. An lagunak agurtu eta bakoitza bere etxera.

Ura egun zoragarria igaro genduan! Autobusean ibiltzeko irrikaz egoten giñan, eta ia egun guztian bere barruan ibili; bazkari ederra egin; Pasaiko por-

tuan alako barkuak ikusi; Igeldora aldapa bildurgarri artan gora trenean igo; ango tximu, artz eta laberintoak ikusi; *montaña rusa* edo demoniñoak artutako tren artan ibili; eta abar eta abar.

Sekula pentsatu ere egin gabeko ainbeste gauzarekin gozatzen eguna pasa genduan; eta, etxera iritxi nintzanean, banuan zer kontatua.

Guretzako, ibillaldi ura berdin gabeko erromeribat izan zan. Ez det uste neurri artakorik nere bizitzan besterik izan detanik. Bearbada, nere ama zarenarentzat amar arrautz eramatea gauza samingarria izango zan; baiña alako eguna pasatzeko aukera semetxo bati ematea merezi zuala esango nuke nik.

Amabi urterekin  
lenengoz bizitzan  
bidaian autobusez  
ni ibili nintzan.  
Donostian zan meza,  
baiña ez elizan;  
naiz eta erden giñan  
erromesen gisan,  
egun ederragorik  
ez det iñoiz izan.

Donostiko Amaran  
bildu Kongresora,  
bertan igaro giñun  
bi ordutik gora.  
Gero bazkaldutzero  
Pasai San Pedrorra,  
eta ondorenean  
danok Igeldora,  
pena zan alain azkar  
aitzea denbora.

Lenengo ibillaldia  
goxo ta leguna,  
Kongreso aitzakian  
gerta zitzaiguna.  
Zentzua galdu arte  
esango deguna:  
ura izan zan berdin  
gabeko eguna,  
amar arrautzen truka  
igaro genduna.

---

## Altzola

**G**aurko bizikera onekin, edozer gauza eginda ere, dana bidezkoa eta bearrezkoa iruditzen zaigu. Len aberatsak egiten zituzten gauza aiek, gaur edozein langillek egiten ditu.

Len ondartzara aundizkiak bakarrik; orain erri guztia dijoa. Garai batean, oporrak artuta, itxas ertzeko txaleta eta oteletan goi maillako jendea izaten zan; gaur, berriz, oporrak mundu guztiak egiten ditu, eta baztarrik baztar ibiltzen dira. Leen etxe jabeak jauntxoak bakarrik ziran; orain edozein da etxe bat edo biren jabe.

Leen jauntxo oien semeak karrerakoak izaten ziran, baita erdi tontoak izanda ere. Jende xearen semeentzako etzan ortarako aukerarik izaten. Gaur, berriz, edozein langilleren seme egiten da sendagille, injeniero, arkitekto, eta abar eta abar. Orrelaxe goaz gauza guztietan.

Beste gauza ontan ere badegu aldakuntza; baiña alderantziz. Leen, sendi beartsuetan, aberatsetan baiño karrerako geiago izaten ziranak, apaiz, praile edo jesuitak ziran. Gaur bietan berdintsu.

Belaunaldi guztietan gauzak aldatzen doaz, eta ori ez dago gelditzerik. Burua makurtu eta aurrera. Orrek gero ere orrelaxe jarraituko du.

Orain berrogei edo irurogei urte gertatu zan be-launaldiak, gaurko aldean bizimodu gogorra igaro zuten: aurrerapenez gaurdandik urruti, mixeri geiago, jende ezjakiñagoa eta, itz batean esateko, bizi mailla apalagoa.

Baiña orduan ere bazituan jendeak, edo bagenituan, jolastu eta gozatzeko era edo aukerak; eta, nere ikuspegirako, bagenituan gaurkoak ainbeste edo geiago, batez ere erromeri giroan.

Nik ez ditut jotzen soiñu eta festak ziran tokietako billerak bakarrik erromeritzat.

Garai artako baserrietako jende elduarentzat, naiz gizon, naiz emakume, bazegoan beste erromeri giro bat: asteroko azokak eta periak, urteko beste peri sonatuak, idi demak, sega apustuak, estropadak, San Tomasak, erromes giroko ertenaldiak, Arantzazura, Urkiolara, Deustoko San Felizisimo, Lurdes eta beste zenbat gauza. .

Gaztediarentzat, berriz, bakoitzaren erriko festak, eta gero auzoetan egiten ziran erromeriak. Oietzaz gaiñera, Erniorako ertenaldiak, eta garai artan *Luistarren* erakunde arek urtean zear egiten zituan edo prestatzen zituan batzar aietarako ibillaldiak zogarriak izaten ziran.

Batzuetan goizetik joaten giñan, eta beste batzuetan bazkal ondoren. Baiña, edozertara ere, gozatu ederrak artu genituan. Aiek ziran erromeriak, aiek!

1950-eko amarkadan, eta bere aurreko eta ondorengo batzuetan, igande eta jai egunez izan ezik, orduko baserri giroan eta erri koskorretakoak berdin, aste egunetan etzan iñor ateratzen. Bakoitza bere tokian lanean, eta berriketa gutxi gaiñera.

Gure garaian, igande edo jai eguna irixteko irrikitzen egoten giñan. Goizeko mezetara joan oi giñan. Andik aterata, ondoren arratsaldean zein tokitara

joan bear zan erabaki eta alkarrengana biltzeko lekua eta ordua izendatuta jartzen genituan, eta ba-koitza bere etxe aldera. Ori zan jai goizetan egiten genduana.

Nik emezortzi urte nituala, Juan, nere anai zarrrena (g. b.), Asteasuko Ibar-azpi baserriko alaba Joxeparekin ezkondu zan. Lenengo deia edo pregoia egin zuten igandean, oitura ala zalako, *nobio-aparia* deitzen zitzaion orduan, eta lau anai Ibar-azpi ortara joan giñan apaltzera igande illuntze batean.

Kale-baserria bezela da Ibar-azpi etxe ori. Batista Ondartza bertsolaria zana Ibar-azpi ortan etxekoa bezela zuten, eta ura ere antxe zan aparti artan.

Gure artean betiko oitura danez, apaldondoan bertsoan asi zan. Norbaitek esan zion nonbait ni ere bertsoan jarduten nintzala, eta asi zitzaidan zirikaka, eta gero nik ere kantatu egin bear. Olaxe, iru bat saio-edo egin genituan.

Asteasuko aparti ura egin eta amabost aldira, Aiako Altzola auzoan luistarrak ikurrin edo bandera berria egin zuten. Beraren onespén egun artan jaialdi berezi bat jarri zuten, eta gu ere, Aiako gazte talde bat, bazkalondoan Altzolara joan giñan.

Ango tabernan sartu eta zerbait artzen ari giñala, Batista Ondartza beste aldeko bazterretik etorri eta bizkarrean joaz, esan zidan:

- Ernani-Txikia nuan etortzekoa bertsoara. Baiña ez daukala etortzerik abixatu omen du, eta zurekin egin bearko det.

Ni ere gaztea eta bein ere plazaratu gabea. Baiña prest jarri nintzan; eta nere lagunak, arrituta eta bildurtuta ere bai, esaten zidaten:

- Baiña i plazara kantatzera? Asmatuko al dek?

Ala, igo giñan oltzaduraren gaiñera. Saioa egin genduan, eta ondo atera zala esango nuke nik.

Entzuleen artean, eliz giroko billera zanez, apai-  
zak ere baziran, amar bat edo. Eta, garai artan nola  
bertsolari gutxi zeuden, naiz ta Ondartzak nik baiño  
obeto bertsotan egin, beti gertatzen dana: ni gaztea  
ikusi nindutenean, danak txoratuta gelditu ziran.  
Eta, saioa bukatu eta plazara jetxi giñanean, iru edo  
lau apaiz inguratu zitzaizkidan, bizkarrean eskuare-  
kin joaz:

– Ik bertsolari izan bear dek! Doai guztiak ba-  
dauzkak!

Kontsejuak eta orrelakoxe goraltzak emanek jar-  
dun ondoren, alkarri agur egiterakoan, aietako bi  
izan ziran liburuak bialduko zizkidatela agindu zi-  
datenak.

Bata On Ramon Zabaleta, Zegamako semea eta  
orduan Aiako Laurgaiñen erretore zegoana. Arek bi  
bertso liburu bialdu zizkidan: bat Emeterio Arrese-  
rena eta bestea ez naiz oroitzen.

Beste apaizak ez dakit nongoak ziran. Baiña ba-  
tek beste liburu bat neregana bialtzeko modua egin  
zuan, ez edozein bertso liburu gaiñera, Pedro Maria  
Otañorena. Orduan ere bertso aiek pozik irakurtzen  
nituan.

Apaiz ura Aizarnan zegoana zala uste det. Ez da-  
kit zein zan.

Zabaleta jauna aspalditxo il zan. Betiko atsede-  
nean goza dezala. Orixe da nere naia.

Bestearen berririk ez izateak, alakoxe arantza bat  
sartzen dit biotzean. Bearbada biziko da oraindik.  
Ala gertatuko balitz, nere besarkadarik maiteko-  
rrena luzatu nai nioke lerro auen bitartez, eta eske-  
rrik beroenak berari zuzendu nai nizkioke, orduan  
bertsotarako eman zidan bultzada arengatik.

Orrelaxe saiatu ziran orduko apaiz aiek nerekin.  
Gauza aundia izan ez banaiz ere, neregan izan de-  
tan bertsotarako doai apur ori eta bertsolari mun-

duan egin detan pitiña, bi apaiz aiek piztu arazi zidaten txinparta artatik sortuko zan. Alde aundia izaten da, indar gutxiko sua danean, anka azpian artu ta itzali edo aize eman ez indartzen lagundu; eta nerekin ere orixe egin zutela ustean nago.

Garai artan etzegoan orain bezelako afiziorik, eta bertsoan ikasteko oraingo laguntzarik ere ez, eta nereko arekin gelditu nintzan. Baiña ala ere bertsolari izan naiz nere bizitza osoan.

Mailla aundirik iritxi ez badet ere, oso pozik nago egin detanarekin. Neurri guztietakoak bear baidute. Danak berdiñak izan ezkerok, ez genduke bereziko ez onik eta ez txarrik.

Orma bat, oiñarriko arriak, erdikoak eta goeneakoak, danen batasunarekin osatzen da egitazko orma izatera. Zati bat kendu ezkerok, baliorik gabe geldituko litzake, eta beste gauza guztietan berdin gertatzen da.

Bertso saioaren ondoren apaizekiko arremanak bukatu nituanean, nere lagunetara urbildu nintzan; eta, orduan Altzolan nola erromeri giro berezia zan, dantza askatuan asperraldi bat artu arte antxe ibili giñan.

Ondoren, illunabarra iritxi zanean, etxerako bigeari eldu genion. Orduan etzegoan ibilgailurik, baiña ankak bai gaur baiño obeak. Altzolatik Aiara ordubete edo geiagoko bidea zan, baiña ederki etorri giñan, saio batzuk bertsoan eta urrena oiu galantak egiñez.

Orrelaxe izan zan, Aiako Altzola auzoan luistarrin ikurrin berriaren onespene egun artan jarri zuten billera zala-ta, aitzaki orrekin guk egin genduan erromeria.




1 Igaroa kontatu  
nai det lasa-lasa,  
naiz eta bitartean  
urte asko pasa.  
Orixe zan neretzat  
egizko jolasa,  
Gazterik artu nuan  
nik bertso arnasa,  
Altzolan egin nuan  
lenbiziko plaza.

2 Olako asmo gabe  
aruntza ni juan,  
ala bear ortara  
bat nola dijuan.  
Ondartzak bertso tara  
beartu ninduan,  
dana euskal mintzoa  
plaza inguruan,  
zeñek kanta lezaken  
alako giruan!

3 Ni bertsoak entzuten  
amaren altzoan,  
biotzera sartuaz  
ain era gozoan.  
Gero bertsoak sortzen  
neronen pausoan,  
lenengo plazan kanta  
Altzola auzoan,  
ori oroituko zait  
bizitza osoan.

4 Ondartzak ni autatu  
beretzat laguna,  
ta gero biok egin  
bertsozko jarduna.  
Oso saio polita  
zan egin genduna,  
naiz ta urteak joan  
eskertzen deguna,  
batek ezin du aztu  
alako eguna.



*Aiako Asentsio peria.*

---

## Pazkoa

**A**ian, erriko festa nagusiak abuztuan ospatzen diren arren, garai batean baziran beste egun batzuk, erromeri giro berezia sortzen zutenak: lenbiziko Pazkoa, Asentsio jaiak, bigarren Pazkoa, Korpus eta San Isidro. Jai oietan, gaiñerakoetatik nabaitzen genduan aparteko zerbait.

Lenengo Pazkoak garizuma luzearen ondoren asstzen zigun gure barruan edukitzen genduan festa gosea. Egun ura irixteko irrikitzen egoten ginen.

Asentsio jaiak, berriz, esan genezake aiarentzat eta auzo errikoentzat berdin gabeak izaten zirala, bateko periak, besteko gonbidatuen eguna izaten zalako. Aiatik kanpora ezkondata bizi ziranak edo aien ondorengoak biltzeko eguna izaten zuten.

Etxe bakoitzean prestakuntza bereziak egiten zizuten. Kanpotik inguratzen ziranak beren tarteko etxe aietan bapo jan eta edan egin, lengo istori zarrei aitatu batzuk emanek kontu mordo bat esan, eta illuntze aldera erriko enparantzan berriro biltzen ziran kalean bertan gelditutakoak, baserrietan banatu ziranak, ango eta emengo danak kabitu eziñik.

Orduan izaten zan erromeri giro artan saio bat

egin ondoren, bi autobus irteten ziran Aiatik, bat Asteasura eta bestea Zarautza. Kanpotar geienak orduan aldegiten zuten, eta andik aurrera bertakoztat festa goxoagoa izaten zan, geienentzat beintzat.

Neska gazte batzuek bearbada naiagoko zuten kanpoko mutillekin ibiltzea. Askotan gertatzen da: gutxitan ikusten diran loreak ere politagoak iruditzen dira, eta mutillekin ere orrelako zerbait gertatuko zan; noizean bein ikusi eta orduan dana zoragarri, naiz eta bertakoak baiño eskasagoak izan.

Pentekostes edo bigarren Pazkoa ere festa berezia egiten zan eguna izaten genduan. Urte batean, egun ortako gertakizun bat badaukat ondo gogoan gelditua.

Nik amasei urte izango nituan. Goizean, meza ondorenean, lagunekin itzegin nuan, eta esan genion alkarri arratsaldean garaiz errian bildu bear genduala, festa ondo aprobetxatzeko.

Alaxe egin genduan. Soiñua ere garaiz asi zuan, eta guk bereala neskekin dantzan eraso genion, eta puxka batean jardun ere bai.

Saio bat egin ondoren, orduan oitura aundia zan nesken artean: dantzan zerbait aspertutakoan kamioan ibillaldi bat egitera joaten ziran.

Guk mutillak ere orixe egin genduan, eta erriaren gaiñeko kamiora eldu giñanean, Iruretaegia Aiako Andatz-zarate aldeko auzo bat da, eta ango bost mutil orduantxe iritxi ziran bizikletan. Beren tresna aiek kamio ertzeko Argurutze etxearen babesean utzi zituzten, eta danak festara jetxi ziran.

Garai artan, bizikleta oso etxe gutxitan izaten zan, eta gure talde artan ere iñor ez giñan tresna orren jabe. Baiña ibiltzeko amorratzen egoten giñan.

Iru lagun arkitzen giñan une artan, eta irurok txirringa bana artu eta eraso genion. Ibili ere bai

ederki asko. Baiña bateonbatek abixua pasa zien txirringa jabeei.

Guk saioa egin eta artu genituan tokian utzi genituanerako illundu zuan. Goitik beera plaza aldera gentozela, guardizibillen kuartela zegoan plazaren ondoko etxe batean, bigarren solairuan. Gaiñeko aldetik zuan sarrera, eskaillera batzuetan gora. Goien terraza aundi bat, eta askotan guardi bat antxe egoten zan.

Gu, iru lagunok, Antton Mari eta ni aurrekaldean giñan, eta Juanito azkena. Era ortan kuartel ondora iritxi giñan une artan, gure eskubi aldetik orduantxe azaltzen bizikleta jabe aiek; eta, oso gertuan zirala ikusi genituanean, gu bi aurrekoak lasterka aldegin genduan.

Juanito azkena izan eta atzaparrak erantsi zizkioten; eta, jotzeko desapioka eraso ziotenean, Juanito bildurtu zan nonbait. "Ai!" eta "ai!" asi zanean, goien zegoan guardiak borrokan ote zebiltzan iruditurik:

- *¡Todos arriba!* -otsegin omen zuan.

Iruretaegitarrak, ura entzun zutenean, danak kuartelera; eta Juanito, illunaren babesa aprobetxatuz, iges egin eta guregana inguratu zan.

Bizikleta jabeak, naiz errugabeak izan, zaplasteko ederrak artu eta gaiñera bostna duro multa ordaindu bearrean arkitu ziran.

Andik jetxi ziranean, gu gordeta geunden ingurura etorri ziran mutil aiek. Bat bazan ero joera batzuk zituana, eta arek bere lagunei esaten zien:

- Guk errurik ez eta ala ere zaplastekoak! Eta, gaiñera, bost duro ordaindu bear! Au ez dek ortan geldituko! Nik, urrena arrapaten ditudan tokian, txiki-txiki eginda utziko dizkiat.

Eta beste lagunak esaten zioten:



*Aiako Asentsio peria.*

- Etzak olakorik egin!

Alako batean aldegin zuten, eta gu antxe zer egin ez genekiala. Plazan jendea festan zebillen, eta gu ere pozik joango giñakenak. Baiña bildurra etortzen zitzaigun, eta bakoitzak bere etxerako bidea artu genduan.

Erromeri giro onarekin asi bagiñan ere, bukaera illuna eta samiña izan genduala aitortu bear. Baiña gurea etzan ezer, beste aienarekin neurtu ezkerro. Aiek izan zuten benetako suerte txarra: errurik txikienik izan ez eta lenengo zigortu eta gero dirua ordaindu bear.

Bazuten aserretzeko ainbeste arrazoi. Gu ere, aien lekuan gertatu bagiña, uste det zerbait esan edo egitera beartuko giñala.

Zenbat aldiz gertatzen dan munduan mutil aiei gertatua! Errugabeak ordaindu bear errudunen pekatua.



---

## Urdaneta

**G**ure gazte denboran, urrutiko erromerietara jende gutxi joaten zan. Errian eta erriko auzoetan egiten ziran biltzar aietara inguratzen giñan geientsuenak. Geiena jota ere, auzo erriren bateraiño iritxiko zan gazte jendea.

Ez baizan orduan, gaur bezela, erriz erri festetan ibiltzeko erreztasunik. Etzegoan ez kotxe eta ez moto. Geiena zuanak bizikleta, eta ura ere oso gutxik.

Arrazoi orrengatik, inguruko erromerietara biltzen zan jendea, danera oiñez aldatu bearra zegoalako; eta, giro ona izan ezkerro, pozik gaiñera.

Orduan etzan iñor bideko nekearekin batere bildurtzen, nekatzen oitutako jendea giñalako. Beera bezela, gora ere joaten giñan. Guretzat orduan etzuan alderik ordubete edo bi orduko bidea izan. Batere kezkarik gabe egiten genduan joan-etorria. Gaur, berriz, kotxea irixten ez dan tokia bada, bildurra ematen digu. Au da urte gutxian egin degun aldakuntza.

Ogei urte inguru genituala, Joxe Antonio Arrillaga, gaur Arruti baserriko nagusia dana, eta biok, gaztetan oso lagunak giñan, eta orain ere bai.

Nola San Martiñetan Aiako Urdaneta auzoan festak izaten diran, San Martindik urrengo igandean eta arratsaldetik Urdanetara joan giñan.

Eguraldi zoragarria zan, eta laurak aldean abitu, baztarrak ikusiz. Patxara ederrean, orduterdi inguruan iritxi giñan Urdanetara.

Alde ortakoak batzuek beintzat bagenituan lendik arremanak genduzkan lagunak, edo ezagunak beintzat; eta, alako festa egunetan, urruti samarretik inguratzen ziranak arrera berezia izaten zuten, eta guk ere ala izan genduan.

Nola mutil, ala neska, batzuekin eta besteekin berriketan eta dantzan zerbait jardun ondoren, aparti-merienda garaiz egitea pentsatu genduan, gero dantza eta abar erromerian ibiltzeko. Alaxe, Seroretegi ostatuan sartu eta janaldia egin ondoren, bapo jarri giñan festarako.

Festa tokira irten orduko, Otzarreta baserriko Luis aurkitu genduan. Bertsolaria zan; eta, lenago Aian edo Laurgaiñen berarekin bertsotan jarduna nengoan, eta berriro ere bereala alkartu giñan.

Luis orrek arreba asko zituan, eta oso neska ederak gaiñera. Orduan ere bazituan bere inguruan iru edo lau, eta zestoarrak lengusuak beste bi neska. Mutillak ere baziran. Bat beintzat eibartarra, eta soiñujolea gaiñera.

Ala, berriketan saio bat egin ondoren, dantzan ere zerbait bai, eta norbaiti gogoratu zitzaion txokolatea artu bear zala.

Naiz eta gu meriendatu berriak egon, berriro tabernara. Jarri giñan amar bat laguneko taldea, maia aundia etzan eta estu samar. Baiña guri orduan etzigun ajola aundirik. Danok gazteak, eta neska ta mutil nastuan gaiñera, oso lasai baiño naiagoko genduan, seguru asko.

Txokolatea prestatu zuten arte, bateko eta beste kontuen berri alkarri ematen antxe jardun giñan. Alako batean ekarri ziguten eta ekin genion berriketan.

Guk beintzat jateko gogo aundirik ere ez gendukan. Baiña nolabait ere komeriak egin bear, eta ogi koskorra artu eta aldamenekoari katilluan sartu. Orduan arek ere berdin besteren bati; eta orrelaxe, alkar endredatuz, igaro genduan gure txokolate festa.

Gazteak ez du gauza aundiaren bearrik izaten gustora ibiltzeko, eta guk ere ordubete bat uskeri artantxe igaro genduan, oso pozik gaiñera.

Andik irten giñan alako batean, eta berriro ere festa tokira jo genduan.

An dantzan genbiltzala, Otzarretako neska zarrenak esan zuan etxera abitzeko ordua iritxi zala. Denbora aietan garaiz etxeratzen baiziran emakumeak, geienak beintzat. Guk esaten genien:

– Geroxeago joango zerate!

Eta neska aiek esan ziguten:

– Goazen gurekin! Gaur Otzarretara neska la-guntzera joaten diranak, aparta izaten dute. Ez dezute noiznai izango olako aukera.

Alaxe, talde galanta osatu zan. Otzarretara joan bear genduanak amar bagiñan gutxienez; eta Sarobe-berri baserri aldera zijoaztenak beste mordo bat. Danera, ogei bat laguneko taldea.

Soiñujolea ere tartean bagenduanenez, martxa edo bidekoa joaz abitu giñan. Ango oiua eta irrintzia! Badakit gazte bat baiño geiago gure inbiritan gelditu zirala.

Alaxe iritxi giñan bi baserri aietako bide-gurtzera; eta, taldea puskatzerakoan, bertsoetan egin genduan saioska bat. Orduan, batzuk Sarobe-berri

baserrira, eta gu Otzarretara. Biak ere toki artatik gertuan zeuden eta bereala iritxi giñan.

Eldu giñanean, Joxe Antonio eta ni geure etxera bidean abitzeko prest jarri giñan. Baiña berriro ere neska aiek esan ziguten jai artan ango neskekin etortzen ziran mutillak aparitara gonbidatzea lengo usuario zaarra zala, eta guk ere derriorra gendukala.

Gu, lenagoko kontu aiek bromakoak ziralakoan geunden. Baiña gero, benetan ari zirala ikusi genduanean, ura lotsa gurea! Banaka izan bagiña, ez ni eta ez nere laguna ez giñan sartuko. Baiña alkarren anparoan sartu egin giñan.

Jende mordo aundia osatu zan, eta aparria, berriz, oso ona. An bazan danetik. Gure pena bakarra auxe izan zan: alako jaten aukera aurrean, eta guk jateko gogo gutxi, lengo merienda eta txokolate janak zirala merio.

Gaiñerakoan umore eta sasoirik onenez gertatu bagiñan ere, bagenduan alakoxe pena txiki bat: alako aparria aurrean eta guk jateko gogorik ez. Otzarretako neska eta mutillak esaten ziguten:

– Zuek jateko lotsetan al zaudete?

Guk esaten genien etzala lotsarengatik; len jaten jardun giñalako zala. Aiek berriro ere:

– Gu ere jaten jardun gaituk, baiña orain ere bapo jaten diagu.

Etziguten sinisten. Aiek berean gelditu ziran. Guk ere, etorkizunaren berri jakin izan bagendu, alde ederra izango genduan: diru gutxiago gastatu eta gero aparitan geure burua eta aldamenekoak gustorago utzi edo gelditu gindezkean.

Baiña dana bete-betean gertatzea oso zaila izaten da, eta Urdanetako erromeri giro artan ere akats txiki uraxe gertatu zitzaigun.

Gaiñerakoan, apalartea eta ondorena oso ederki, umore ederrean. Soiñua, dantza eta bertsoa, danetik izan zan.

Otzarreta baserriko neska eta mutil aien aita orain dala urte batzuk il zan. Ama, berriz, il berria da, ia larogei ta amar urterekin. Goian bezate atsedan.

Gogoan daukat, Joxe Antonio eta biok etxera abitzeko prest jarri giñanean, ama arek zer esan zingun:

- Lengo urtetan ere gure neska auek mutillak ekarri dizkie aparitara. Baiña aurten bezelako umorerik sekula ez diat ezagutu gure etxe ontan. Portatu zerate. Eta berriz ere, pasaran-edo gertatzen bazerate, bildurrik gabe kaso egin.

Goizeko irurak aldean, orrelakoxe itzak alkarri esanez, etxekoandre, nagusi eta seme-alabekin agurtu eta etxerako bideari eldu genion.

Artean orduterdiko bidea gendukan. Baiña gu bi lagun, eta gaiñera zegoan illetargiarekin, bertsoan eta pasadizoak alkarri kontatuz, konturatzerako etxera iritxi giñan.

Ura zan erromeri giroa gozatu genduana! Egia da, bai, uste ez dan tokian erbia irteten dala.

---

# Urdanetako San Martin jaiak

1 Ogei urte inguru  
guregan zirala,  
zer egin gendun konta  
nai det bereala:  
San Martindik urrengo  
igandea zala,  
Urdanetara jun da  
gertatuaz ala,  
iñoizko ondoena  
ibili giñala.

2 Gaztetandik nituan  
erromeri naiak,  
gogozko zitzaizkidan  
auzotako jaiak;  
ta Urdanetakoak  
ain ziran alaiak,  
naiz oiñezkoak izan  
orduko bidaiak,  
pozik ibilitzeko  
aiek bai garaiak.

3 Urte batean giñan  
gertatu berezi,  
ixilik gordetzerik  
ez luke merezi;  
an neska batzuekin  
alkartu lenbizi,  
ta kontuak esanez  
giñan dantzan asi,  
neska jatorragorik  
nik ez det ikusi.

4 Neska aiek esaten  
itx goxo legunik:  
“Etxera joateko  
ez degu lagunik”.  
Ta lagundu genien  
Joxean eta nik,  
ordaindua ziguten  
afaria emanik,  
ez det uste ainbeste  
merezi gendunik.

5 Urdaneta, berezi  
zerbait bazenduan,  
gauza orretan nago  
aitormen senduan;  
burutikan dabilkit  
nik ezin kenduan  
nola San Martiñetan  
ala abenduan,  
guk auzo ortan zenbat  
gozatu genduan.

6 Amaika erromeri  
badaukat goguan,  
bide neketsurikan  
etzegon orduan.  
Gaztea izateak  
zer egiten duan!  
Murgiltzen naizenean  
orduko munduan,  
txoratzen egoten naiz  
aurtxoen moduan.

7 Gaztetako kontuak  
nik ezin azturik,  
naiz eta sasoi ura  
daukaten galdurik.  
Festan ibiltzen giñan  
taldean bildurik,  
guk ez genduan utzi  
iñor samindurik,  
ori berdindutzeko  
eztago dirurik.

8 Umorea genduan  
geurekin gaiñezka,  
asarretzeak eman  
izan zidan kezka.  
Pake ta alaitasunez  
egin bedi festa,  
giro orren barruan  
bear degu presta,  
gauza ederragorik  
mundu ontan ezta.



9 Festara juten giñan  
askotan korrikan,  
ez baizegon kotxerik  
eta motorrikan,  
iñoiz bidean artuz  
jasa gogorrikan;  
orduan etzan falta  
festa jatorrikan,  
etzeukaten batere  
gaurkoen zorrikan.

---

## Iturriotz eta Muatz

**G**arai batean, Aia festa toki aparta zan. Nere Goroitzapenetik asiko naiz. 1947-tik 1960-ra birtarte ortan, oso billera eta erromeri giro berezia eza-gutu genduan nik eta nere garaiko neska-mutillak.


Urte aietan festak era ontan antolatzen genituan: Gabonetan asita, igande eta jai guztietan Garizuma arte jartzen zan soiñujole bat; eta gero, Pazkotatik San Juan aurreko igandera arte.

Orduko festa aiek antolatzeko erriak etzuan xoxik ematen, eta antolakuntzarako jartzen zan batzorde edo mutil talde aren esku gelditzen zan soiñujolea ekartzea, gero ari ordaintzea, festa garaian dirua biltzeko txapela pasatzea...

Plazako saioa bukatzen zuanean, soiñujolea taberna batera eramaten zan; eta soiñu poz orrekin nola jende geiago biltzen zan, tabernariak debalde aparia ematen zion.

Gero, beste festa aldia egiten genduan aitzaki orrekin. Soiñua, dantza, kantua eta bertsoaren faltarik etzan izaten, erronda garaia iritxi bitartean. Plazan asitako erromeri ura tabernan bukatzen genduan.

Festa antolakuntza ortako batzorde edo talde



*Iturriotzen, San Inazioaren bosteungarren urteurrenean, beraren irudiarekin Azpeitirako erteeran.*

orretan neroni ere ibili nintzan lau bat urtean, eta taldekideak ondorengo auetxek nituan: Juan Mari, Juanito, Joxe eta Iñaxio. Bost giñan guzira.

Garai artan nola festa gose aundia zegoan, jende mordo aundia biltzen zan Aiara, bertakoa geiena, baiña auzoerrietatik ere mordoska etorri oi zan. Pentsatu besterik ez dago: txapela pasa eta biltzen zanarekin ordaindu bearra zegoan, eta geienak pezta bat botatzen zuten. Soiñujoleak lenengotik amabost duro kentzen zuan, baiña gerora ogei durora jaso zuan. Plazan, diru ori biltzeko, berreun lagun bear zuten; eta, geienetan, festako gastuak ordaindu eta pezta batzuk gelditu egiten zitzaizkigun.

Iru bat urtean, Aiako festa garaia bukatzen zanean, nola Iturriotz eta Muatzko festak orduan ospatzen ziran, San Juan egunean Muatza joaten giñan bazkaltzera; eta Aiako festa aitzakian sobratzen ziran xoxak an gastatzen genituan.

Lenago nion bezela, Aiako plazako erromeri giroa San Juan aurreko igandean amaitzen genduan, eta urrengo erromeria Iturriotz aldera izaten zan gazte jendearentzat. Batere giro ona egin ezkerro beintzat, oso gogoko tokia genduan.

Aia aldetik sasoiko guztiak joaten giñan. Asteasu, Errezil eta Bidani aldetik ere jendea barra-barra etortzen zan. Etzan gaindegi ortan jendearen faltarik izaten.

Len zerbait aitatu det nola Aiako festen ondoren, iru bat urtean, San Juan festak aprobetxatuz, errian festa eratzaille ibilitako taldea bazkaltzera joaten giñan.

An goiko bi benta edo jatetxe aiek biak ziran bazkari bat egiteko oso toki onak. Askotan, aurrez enkargatu ezenean, etzan lekurik izaten, eta guri ere orixe gertatu zitzaigun lenengo urtean: astebete aurretik Iturriotzen galdetu eta dana betea zeukatela.

Orduan, Muatz beste baserrira bosteun bat metroren tartea zuten, gaur eroria badago ere, eta antxe agindu eta gero beti bertan egiten genduan. Baita udazkenean Erniora joaten giñanean ere.

Jendeak jatordu ederrik egiten zuan garai aietan Iturriotzen eta Muatzen. Gu ere, bost mutil, iru urtean jarraian joan giñan San Juan egunez Muatza bazkaltzera.

Bigarren urtean, amabiak alderako iritxi giñan Iturriotza. An erromeri giro artan atzera-aurrera ibili ondoren, ordubata ta erdi aldera Muatza alderatu eta bazkaltzeko maian jarri aurretik bermuten bana artuz geundela, Iturriotztik etorri zan Errezilko *Azpilla*, lengo urteetan ere askotan izana eta oso ezaguna.

Berez etzan gizon txarra izango bearbada. Baiña, alakoxe ezikera eta bizikera zituana zalako-edo, nola Zelatungo billera aietan, ala Iturriotz eta Muatzen, beti mozkortuta ibiltzen zan. Izketa, berriz, maldizioa eta berdekeria. Kultura orren barruan zeramagian bere bizitza.

Eguerdi artan ere orrelaxe zebillen, alkandoraren aurrekaldea dana ardoz zikindua eta jende artean saltoka; eta maldizioa, berriz, itzik ainbeste.

Festa egun oietan, Aiatik guardizibil bikote bat beti igotzen zan ordena jartzera. Urte artan ere antxe zebiltzan, eta lenago nonbait Iturriotzen ikusia zeukaten. Baiña gero, Muatza joan ziranean ere, antxe zebillen gure *Azpilla*; eta, berriro len bezela maldizioka barrundatu zutenean, sukalde ondora jetxi arazi eta bizar-labanarekin buruko ille guztiak kendu zizkioten. Aren bildurra andik aurrera! Kendu zizkioten biraoka jarduteko gogoak.

Orduko komeri ura pasa zanean, sartu giñan bazkaltzera, eta ordu pare bat pasa genituan, jan eta edan bapo egiñez. Gu ere bazkal tokitik atera gi-

ñan, arritzekoa ez danez, oso umore ederrean; eta *Azpilla* antxe zegoan, ganbara bazterrean eseri eta triste asko.

Nere lagun Juan Mari ere olakoak toreatzea gus-tatzen zitzaiona zan, eta asi zitzaion poliki-poliki itzegiten:

– Triste al zaude, *Azpilla*?

Erantzuna:

– Bai! Alaxe natxiok bada!

Juan Marik:

– Orain maldiziorik ere ez dezuz esaterik izango?

*Azpilla*-k:

– Bai, motell! Ixilik, baiña aundienak orain botatzen dizkit; eta, indarrik baldin badu, guardizibil oiek ez dituk luzaro biziko.

Juan Marik:

– Maldizioak baiño errezoak indar geiago du, eta obe zenduke errezatzen asiko baziña.

*Azpilla*-k:

– Gustora errezatuko nizkikek amar *pater noster*, guardizibil oiei biei perlesiak burutik ankerak jo ta mugitzen ez dirala gelditzeagatik! Eta gure Jainkoarentzat ez uke milagro aundia izango!

Orrela, *Azpilla* toreatzen ari giñala, bi errezildar etorri ziran. *Azpilla*-ri zer pasa zitzaion bazekiten eta esan zioten:

– Guardizibillak Iturriotztik ire billa oraintxe abitu dituk, oso jenio txarrean gaiñera; eta obe uke basoan barrena ezkutatuko baintza!

*Azpilla*, ori entzun zuanean, etzuan bi aldiz esan bearrik. An joan zan gizarajoa Beama aldeko bidean barrena.

Ez genduan parre gutxi egin *Azpilla*-ren kontura.

Baiña, ez dakit arek egindako errezoengatik-edo, guardizibil aietako bat gazterik il zan.

Festan edo erromerian, nola edo ala jolasteko, zerbait bear izaten du. Gure egun artako jostaillu bat *Azpill*a izan zan.

1 Errian festak jartzen  
lanean jardunez,  
xox batzun etekiña  
izaten gendunez,  
gero bazkaldutzero  
Muatzera junez,  
danak gastatzen giñun  
San Juan egunez.

2 Zer gertatu zitzaigun  
antxe urte baten  
oraindik ere nola  
gogoan daukaten:  
bi guardizibilek  
sasoia zeukaten  
*Azpill*a mozkorrari  
illea ebaten.

3 *Azpill*a-ren burua  
utzi zuten soillik,  
gero maldizioka  
jardun zan ixillik.  
Aren eskariz geldi  
ezkerotan illik,  
gaur etzegon munduan  
guardizibilik.

4 Azpilla ixiltzeko  
ura komeni zan,  
beti maldizioka  
ibilitzen baizan.  
Ain ille mozte txarra  
ark etzuan izan:  
urterako pakea  
ardi zarren gisan.

5 Ille mozteak eman  
zion desengaiño,  
alain triste etzan, ez,  
egon egundaiño.  
Maldizioak utziz,  
zalea zan baiño,  
bildurraren bildurrez  
biurtu zan ñaiño,  
azkenik errezuan  
erasotzeraiño.

6 Lenengo zirkoa ta  
ondoren orkesta,  
nolako komeria  
Muatzen zan presta!  
Ura oroitutzea  
arritzeko ezta,  
noiznai ezta izaten  
orrelako festa.





*Basarri eta Lasarte. Andatz-zaraten bertso kantari.*

---

## Pagoetako zillar-etzaiak

**A** iako Pagoeta mendiko gaillurrean, 1935 urtean, eta garagarrilla edo ekainaren 2-an, onetsi eta jarri omen zuten.

Zarautzko abertzaleak osatutako mendi-elkar-teak eta Aia aldeko beste batzuen artean aurrez zutitu eta jarria zeukaten gurutzea.

Baiña urrengo urtean bakarrik egin omen zan urtebetetzeko ospakizuna aundikiro edo ofizialki, esaten dan bezela. Andik berealaxe gerra piztu baizan, eta andik aurrera etzeukaten jaialdi ori egiteko baimenik.

Gaiñera, parte artu zuten aiek danak gerran ibiliko ziran; eta, zerbait egin bazuten ere, ixilka eta ezkutuan egin bearko zuten. Garai artan, gurutze orri omena egiten arrapatu ezkerro, seguru izango zuten urte pare bateko itzala. Garaian garaiko gauzak, eta ordukoak ere orrelaxe ziran.

Andik urte mordo batera asi ziran berriro Pagoetako onespén orren eguneko urtemuga ospatzen; eta orduan ere guardizibillak beti igotzen ziran egun orretan, zer gertatzen zan ikustera.



*Pagoetako gurulzean.*

Egun ortako jaialdi ori urtetik urtera indartuz etorri da. Gaur egun aundikiro ospatzen dute. Aterpe bat ere badago, eta bezperatik jende mordo bat igo eta prestakuntzak egiten asten dira. Igande ortan meza santua ere ematen dute, eta gaur oso indarrean dago. Aia aldetik ere igande ortan jendeak joera aundia dauka.

Ogei ta bost urte betetzen zituan urtean, 1960-an, zillarrezko eztaiak zituala eta jaialdi bereziak edo ospakizunak jarri zituzten.

Nere anai Patxi (G. B.), Joxe Mari Lazkano (G. B.) eta ni, irurok igo giñan Pagoeta gaiñeko erromeri artara. Ala, bertako giro artan saio bat egin genduan. Baziran dantzariak, trikitixa, bertsolariak eta abar luze bat; eta irurok aurrez pentsatua genduan Altzolara jetxi eta antxe bazkalduko genduala.

Ola genbiltzala, asi ziran trumoi-laiño itxusi batzuk azaltzen, eta gu bi anaiak esan genion Lazkanori:

– Euri zaparradaren bat ekarri baiño len, gu abitzera gaitzeaztik.

Lazkano beste lagun batzuekin zegoan eta esan zigun:

– Abitu! Nik atzetik arrapatuko zaituztet!

Gu Pagoeta gaiñetik Altzola aldera abitu eta berealaxe, Aizarna aldetik gora azpi-laiño zuri bat zeterren; eta, “Denboralea bazetorrek” alkarri esanez, lasterka ekin genion. Ala ere, euria zerbait asi eta iritxi giñan Altzolako eliz aldera.

An ostatu *Lapраста* edo izeneko bat bazegoan, eta antxe babestu giñan gu bi anaiak. Begirutzen genduan, baiña lagun Lazkanoren aztarnarik ez.

Sartu zuan laiño zuri itxu bat. Ekin zion trumoi eta tximista. Bildurtzeko moduko denboralea sortu

zuan. Alako euri jasarik! Eta gu an, lagunaren kezketan. Alkarri esaten genion:

– Pixka bat luzatuko zian lagunekin; eta, denborale au ikusi duanean, goiko bordan babestua izango dek.

Alaxe, zalantza artan geundela, ogitarteko bana jan genduan.

An jende geiago ere bazegoan, gu bezelaxe, ekaitzaren igesi sartuak; eta, aiekin berriketan geundela, denbora aurrera zijoan bezela, asi zan atertu eta pixka bat argitzen.

Ordurako baziran bostak eta geiago; eta gu, lasai-lasai, Aiarako bideari ekin genion.

Seiterdiak aldean iritxi giñan errira, eta Lazkano orrek nere anai Juanen tabernan zeukan babestoki edo bizilekua. Galdetu genduan aspaldi iritxi al zan, eta gure anai zanak esan zigun:

– Lazkano ez dek onera azaldu. Ez al ziñaten alkarrekin?

Orduan kontatu genion gertatu zanaren berri, eta andik aurrera bagenduan naiko kezka. Asi giñan galdezka iñork beraren aztarnik ematen ote zigun, eta bat berealaxe etorri zitzaigun esanez:

– Lazkano, Pagoetan gurekin egonda, abitu dek, Altzolara zuengana dijoala esanez.

Orduan bai estutu giñala, eta pentsamentu eta galdera txarrak genituan guk anaien artean:

– Bideak galdu ote ditu? Tximistak zerbait egin ote dio? Irristaren bat eginda, min artuta ote dago?

Baiña oiek danak aizeak zeramazkian. Etzegoan erantzunik. Orrela genbiltzala, zazpiak ere jo zuten. Eta alako batean or azaldu zan gure Lazkano gizarajoa, erropak bustiak eta lokaztuta, jotako aurpegia eta ibili eziñik.

Sartu zan Juaneneko tabernako sukaldera, eta gure mutillak bazuan zer kontatua. Baiña itzegiteko ere etzan gauza; eta, pixka bat indarberritu arte, pakean utzi genion.

Gure lagun Lazkano bere onera etorri zala ikusi genduanean, asi giñan galdezka:

– Motell, non ibili aiz orain arte?

Berak esan zigun orduan:

– Egon lasai. Gertatu zaizkidan guztiak kontatuko banitu, liburu aundi bat betezeko aiña istori banitxaukakek.

Orduan ekin zion bere ibillera kontatzen:

– Zuek Altzolara abitu eta artean pixka bat luzatu egin diat kontu kontari. Ango lagunekin bukatu eta beeraka bosteun bat metro inguru egin ditudanean, konturatu nauk jertsea talde aretxen ondoan utzi detala, eta berriro aren billa lengo tokira. Aurkitu diat eta bera artu; eta, lengo bidean beera abitu orduko, beste ezagun batzuekin topo. Batekin eta bestearekin nabillela, ni konturatzerako azpi-laiño ori sartu dik. Orduan abitu nauk presaka. Bideak galdu dizkiat, Trumoia eta tximistak asi dituk; eta, nora ezean nabillela, borda zar aundi bat aurkitu. Antxe babestuta egon nauk, denborale zatar ura baretu bitartean, zer egin ez dakitala. Noizbait, trumoiak ixildu eta euria atertu duanean, erten nauk bordatik, eta nere buruauste guztia zuek aurkitzea uan. Baiña Altzola zein aldean egon bear zuan ezin tankerarik eman laiño arekin. Zalantza artan abitu nauk ustez Altzola aldera. Baiña, zuzena zalakoan, zearo kontrako bidea artu diat. Alako batean, esi batekin topo; eta, ari jarraituz, iritxi nauk langa batera. Gaiñera, aren ondoko esola batean, *acotado de caza* jartzen duan tablero bat ikusi diat (ori Laurgaingo eremuaren muga



*Pagoetako gurutzearen oiñetan..*

adierazten zuan idazkia zan), eta nere buruari galdezka jardun nauk: “Au beste aldea dek?”. Baiña berriz ere lengo bidean jarraitu nik beera eta beera. Alako batean, laiñoak altxatzen asi diranean, baserri bat bosteun bat metrora. Bertara joan eta atea jo diat. Etxekoandrea edo emakume bat atera zaidak. Esan zioat: “Laiñoarekin galduta nabil, eta Aiarako bidea nun dago?”. Parre egiñez esan zidak: “Baiña, gizona! Non zabilta? Au Elkanoko auzoa da, eta emendik Aiara beste bi ordu bear dituzu”. Ori entzun detanean, etsipenak jota bezela gelditu nauk. Nondik nora bidea daukaten erakutsi zidak, eta ekin ere bai. Baiña ura pauso tristea! Gosea, nekea eta etsipena, danak batera bizkarrean, eta ezin eramán. Ura kalbarioa! Noizbait baserri baten ondora eldu nauk. An gizon bat ikusi detanean, zein etxe zan galdetutzean, Sarobe-berri dala esan zidak. “Aiara bidean ondo al noa?” Eta berak baietz. Orduan oso pozik abitu nauk. Geroxeagoko bide zulo edo estrata baten aseran, beor bikain bat larrean, eta ondradua zirudian gaiñera. Bere parean pasa eta metro batzuk egin ditudanean, moxal bat bidean etzanda; eta, ni urreratzean, bildurtuta-edo, asten dek irrintziz. Orduan, umea ala nabaitu duanean, abitu dek bere ama amorru bizian umea babestera. Alde batera sasi aundia eta bestera txarrantxa, ura nere erioa! Une artan, beorrak arrapatzen ninduala uste nian, eta “Ai, ama!” bildurgarritzko oiua egin diat. Txarrantxazko esiari gaiñetik salto egin eta sasi tartera erori nauk. Baiña ala ere pozik, beor arengandik libratu naizenean. Eskuak-eta zerbait urratu dizkiat. Baiña, beste gabe aldegitoko modua egin detanean, kontentu. Gero, bidea ezagutu detanean, nere neke eta ezin guztiekin ere lasai etorri nauk. Baiña nere belaunetan etziok oraintxen indar asko. Anka azpitan, berriz, edukiko dizkiat intxaur alea aiñeko babak.



Orrelaxe kontatu zigun bere ibillera neketsua. Baiña, ondo iritxi zanean, gu ere oso pozik, eta bera zer esanik ez. Goizetik guk asi genduan erromeri giro eder ura ia bukatu genduan zoritxarrean. Ara nola izaten diran gauzak. Izan ere, mendia lainoak artzen duanean, gizaki geienak nora jo ez dakitela uzten ditu.

Pagoetako jai ortan, berriz, ia urtero orixe egiten du: goizetik bero samar asi eta ordubiak alderako trumoa sartu geienetan, eta orduan ere alaxe gertatu zan.

---

## Pagoetako eguna

1 Goizetikan genduan  
guk sasoi bikaiña,  
baita laster jo ere  
Pagotako gaiña.  
Dantza ta komeria  
an bazan nai aiña,  
erromeri giroa  
ona gendun, baiña  
gaizki irten zitzaigun  
mendiko kanpaiña.

2 Eguna pasatzera  
irten giñan prestu,  
baiña eguraldia  
zearo trakestu.  
Lazkanoren joerak  
denok aldrebestu,  
lenbizi lasai egon  
eta gero estu,  
zabarkeriak iñoiz  
gauza onik eztu.

3 Pagotan gertatua  
dadukat goguan:  
Altzolako bidea  
guk artu genduan.  
Lazkanok zion: “Nere  
buruak zer duan!  
Jertsea aztu zaidak  
bordaren onduan,  
itzuliko nauk eta  
zuek bera juan”.

4 Jertse billa joanik  
jendean artera,  
kontu kontan gelditu  
beretzat kaltera.  
Jetxi balitz orduan  
gurekin batera,  
garaiz iritxiko zan  
beko aterpera,  
zer gertatu zitzaion  
nua esatera.

5 Bordatik itzultzean  
jertsea artuta,  
mendia itxutu zan  
laiñoa sartuta.  
Norabait joatera  
zegon beartuta,  
ark nai zuan tokira  
ezin zuzenduta,  
bi orduz ibili zan  
bideak galduta.

6 Alaxe zijoala  
laiñope itxuan,  
uste gabe eldu zan  
Elkano auzuan.  
An Aia nun zegoan  
galde omen zuan;  
erantzuna: "Bi ordu  
badauzkak pausuan".  
Kejatzeko ainbeste  
arrazoi bazuan.

7 Aiarako bidean  
gertatu berezi:  
bide zulo batean  
beorra ikusi.  
Ura uzetaka ta  
Lazkano igesi,  
itxumustuan salta  
zituan bi esi;  
arek alakorikan  
etzuan merezi.

8 Naiz goizetikan irten  
gu txorien gisan,  
giroa ere oso  
zoragarri baizan,  
eguerdian laiñoa  
itxu etorri zan;  
Lazkano galdu eta  
gu aren peskizan,  
ez genduan nai aiña  
gozatzerik izan.

9 Giroa ikusirik  
gure aukerako,  
eguna artu gendun  
mendi alderako.  
Ekaitza sartu zuan  
ordubaterako,  
Lazkano galtzea zan  
danon kalterako,  
eskarmentatu giñan  
beste baterako.

---

## Eibar

**G**ure erri eta auzoetako festa eta erromeri aietaz gaiñera, izan zan beste erromeri mota baten bolara gure gazte denboran, gutxi gora-beera berrogei ta amarreko amarkadan.

Garai artan, Euskal Erri guztian izango zan noski, baiña batez ere Gipuzkoan, luistarrak eta Mariaren alabak izugarrizko indarrean egon ziran, eta orren eragiñez billera eta jaialdi asko antolatzen ziran urtearen buruan.

Luistarrak eta Mariaren alabak zer ziran norbaitetek galdetu lezake. Gaurko gazteak ez baidute gauza orren aztarnik.

Garai artan, lenengo jaunartzea zazpi urterekin egiten zan; eta gero, amabi urterekin, komunio aundia esaten zitzaiona. Orduan sartzen ziran mutillak luistarren Kongregazioan; eta neskak, Mariaren alabak deitzen zitzaion Kongregazioan.

Lenago esaten nuan bezela, neskak ainbeste ez, baiña mutillak urtean prankotan biltzeko aukera izaten zuten. Lenbiziko billerak errialdeka egiten ziran. Oiek, billera aundirako prestakuntza egiteko jartzen zituzten. Gero, batzar nagusia urtean bat eta erri aundi samarrean ospatzen zan.

Bein, orrelako luistarren billera nagusi oietako bat Eibarren jarri zuten; eta, beste ainbat erritatik joan ziran bezela, Aiatik ere joateko prestatu giñan. Bazkalondoan, erriko plazan autobusa bete-bete egin eta ekin genion Eibarrerako bideari. Igandea zan ura.

Eguerdi artan, Zarautzen, arri jasotzen izugarrizko apustu sonatua jokatua zan, Oiartzungo Usategieta eta Eibarko Zian-zar.

Sasoiko zan garaian, Zian-zar ondotoxoz obea omen zan. Baiña ordurako berrogei ta seina urte izango zituzten; eta, uste ez arren, gauzak aldatuta zeuden ordurako.

Dirua, alde aundiarekin, Ziaran-zarren alde atera omen zan. Bere lagunak itxaropen osoa zeukaten berarekin, eta bai jokatu ere. Baiña gero ziran kontuak.

Ziaran-zar oso ondo asi omen zan. Baita lendabiziko tanda ondo bete ere. Baiña bigarrenkoa egiten asi zanean, eziñak eman eta bukatu gabe erretiratu gizarajoa. Ala, Usategietak errez irabazi, eta beti gertatzen dana: batzuek galdu egin bear, eta orduan komeriak.

Aiatik irten, Zarautz igaro, Getari kamioan abitu eta laster, gure autobusak ots txar bat ateratzen zuala-ta, autobusa gelditu, motorraren kapota altxa eta txoferra zerbait ikusten ari zan bitartean, kamio baztarretik gizon bat gure autobusari begira.

Zapi zuri bat baizuan autobusak goien aurrekaldean, "*Aiatik Eibarrera*" idazki orrekin; eta, ori ikusi zuanean, txoferrari galdezka ea eramango al zuan mesedez: Zarautzen kartera ostu ziotela, an ezagunik etzuala iñor eta oiñez abitu zala.

Txoferrak ere errukitu eta eramane egin zuan. Iritxi giñanean, eskerrak eman eta an ezkutatu zan gure gizona.

Eibarko billera artan izugarri giro ona gertatu zan, eta iñun kabitu ezin zan ainbeste jende bildu giñan.

Itzaldiak eta eliz giroko egintzak bukatu ondoren, dantzari txikiak, aurrekua, bizikleta karrera eta abar eta abar. Naiko ikus-pesta izan genduan.

Gero, ondoren, autobuseko jendea taldeka banatu giñan: batzuek alde batera baztarrak ikusi edo olako zerbait; eta gu, berriz, meriendatxo bat egiñez, plaza ertzean oso ederki egon giñan.

Illunarekin batean, ekin genion etxerako bideari. Txoferra txurruta puska bat egiten zuan oietakoa zan; eta, ez dakit aren eragiñez edo bestelako deskuidoren batez, Zumaia aurrean euria asi zuan eta ango azkenengo zubian baztarreko espaloiairen gaiñera irten zitzaion eskubi aldeko kurpilla, eta baranda ere zerbait ikuitu zuan.

Ura kurriska batzuek egin zutena! Ia-ia joan giñan ibaira. Baiña Ama Birjiñak edo San Luisek, bateonbategen lagundu zigun, eta oso ondo itzultzeko suertea izan genduan. Bagenduan santuei edo Jaungoikoari eskerrak emateko arrazoirik asko.

Aldundiaren Laurgaingo basetxe ontan bizitzen jarri ezkerre, eibartar askotxo etortzen ziran etxe ontara, geienbat Peli Egaña aldun edo diputadu egon zanean. Alaxe, batekin eta bestearekin beti zerbait itzegiten jardun bear izaten da, ta bein batekin asi nintzan alde ontako kontuak esaten.

Ala ari giñala, antzematen nion apustu zalea zala, eta batez ere arri jasotzailleen kontuak esaten.

Ordurako Manterolari buruz mintzatuak geunden. Esan nion nola nere kuiñadoa zan, non bizi zan eta abar luze bat.

Baiña Ziaran-zarren kontua ere aitatzeko itz-bide eta etorri zan, eta orduan nik esan nion:



- Oso ona omen zan ura sasoian.

Eta berak esan zidan:

- Bai. Onak asko dira. Baiña zortzi ta amar arruako arriekin Ziaran-zarri irabaztekorik emen ez da izan.

Ori esan zuanean, neri gogoratu zitzaidan Zarautzko apustu ura, eta orduan esan nion:

- Sasoiari ona izango zan, baiña Zarautzen Usategietak pasada ederra eman omen zion, ba.

Orduan, ixillune bat egin ondoren, erantzun zidan:

- Ziaran-zarri jipoi aundia eman ziola esaten dezu? Aundiena neri eman zidan egun artan. Patrikan nituanak eta geiago galdu nituan. Korredoreak nere atzetik. Trena ordaintzeko dirurik ez. Zer egiten nuan ez nekiala, oiñez abitu nintzan. Baiña Getari bidean nijoala, autobus bat gelditu nere parean, Eibarrera zijoana; eta antxe joateko suertea izan nuan. Gaiñera, autobuseko txoferrari kartera ostu zidatela esan nion, eta dana gezurra.

Orduan esan nion:

- Ekatzu bostekoa. Neroni antxe nintzan autobus artan, eta gero jardun giñan esaten zuregatik: "Onak dana gezurra esango zian", eta alako kontuak.

Ara denborarekin jakiteko suertea nola izan nuan, amabost bat urte igaro ta gero.

Gauzak gertatzen diran une artan aintzat artu ez arren, batzuk denborarekin garrantzi aundiko edo ospetsu biurtzen dira; eta Eibarko bidai arek ere netzat oso oroipen sentikor bat eta ikuitu berezia uzten dit biotzean.

---

## Lurdes

**E**rromeria etzan festa giroko billera aietan baka-  
rrik izaten. Baita eliz giroan egiten ziran ibi-  
llaldi, billera eta jaialdi berezi aietako ospakizun  
guztiak ere, erromeriak ziran.

1958-garren urtean, Lurdesko Ama Birjiña  
agertu zaneko eungarren urte muga zala-ta, urte  
santua jarri zuten.

Bestela ere ala izango da; baiña orduan bereziki  
munduaren baztar guztietatik Lurdesa inguratzen  
zan jendea.

Gipuzkoako luistar edo gaztediaren eguna ere ja-  
rri ziguten, eta oso pulamentuz antolatu gaiñera.  
Erri bakoitzetik zenbat jendek izena ematen zuan  
ikusi, eta orduan bear ziran ainbeste autobus bi-  
llatu bear ziran.

Urte aietan nola aduanako arazoa zegoan, auto-  
bus bakoitzeko gizaki batek jarri bear zuan taldeko  
zuzendari edo arduradun. Ortarako Gobiernu Zibi-  
llera joan bear zan, eta bertan baimen berezi edo *pa-  
saporte* bat ematen zuten.

Garai artan Aiako luistarren lendakari neroni  
nola nengoan, baimen berezi ori ateratzeko ni jarri  
ninduten. Ala, egun batean joan nintzan Gobiernu  
Zibillera.

Ni bezelaxe, erri askotatik joandakoak ere asko ziran, eta itxaron bear aundia izan nuan. Gutxieneko ogei banituan aurretik.

Artalde aundi batean ere, ia danak naiz ta zuriak izan, bakarren bat edo beste beti izaten da beltza; eta nere aurrean zegoan talde artan ere bat gertatu zan ardi beltzaren antzekoa. Neretzako beintzat bai.

Nere aurretik txanda zai zegoan ura, oso mutil itxura ederrekkoa zan. Ondo jantzia gaiñera. Nik ez nuan bera ezagutzen, baiña arek ni bai. Bereala asi zitzaidan:

– I Aiakoa aiz? Ni Garmendia txoferra nauk. Kamionarekin ibiltzen nauk, eta plazako ire anaia-  
ren tabernan askotan bazkaldu diat.

Esan zizkidan kontuak entzunda, sinistu egin nizkion. Gaiñera uste det Adunakoa izan eta Andoa-  
iñen bizi zala orduan esan zuala.

Edozein ere bereganatuko zuan arek, eta ni ere berarekin oso arremán onean sartu nintzan; eta, bateko eta besteko kontuak esanez, geure txanda artara urreratzen ari giñan.

Nere aurretik zegoan Garmendia edo zalako arek, bere txanda irixteko bi bakarrik gelditzen zirala ikusi zuanean, neri begira esan zuan:

– Oraintxe paperak eta dirua pronto jartzen asi bearko diagu.

Orrela mintzatu eta bereala, ekin zion galtzen atzeko patrika eta txaketarenak miatzen. Zearo aztoratuta jarri zan, eta nik orduan galdetu nion:

– Zer gertatzen zaik?

– Kartera galdu edo ostu, etzekiat zer gertatu zaidan.

Begiratzen zuan inguru aietan. An karterarik etzan ageri.

Orduan neri, belarri ondora urreratu eta goxo-goxo, esan zidan:

– Euretako baiño geiago baldin baukek, eskertuko nitek. Besterik etzeukat alamoduzko ezagunik.

Amabost duro zala uste det baimen edo *pasaporte* ura egitea, eta garai artan ogei durokoa papezkoa izaten zan.

Nik ere ez nituan milla duroko asko izango nere mende; baiña nere burua ondatzeko aiña bai. Ogei duroko bat ateratzeko asmotan sartu nuan patrikan eskua; eta, paper bati eldu eta atera nuanean, ikusi nuan bosteun peztakoa zala. Baiña besteak ere ikusi zuan, eta berealaxe esan zidan:

– Orixe utzidak mesedez, beste gauza batzuk ere erosi bearrak bazeuzkat eta!

Nik ere ezetz esateko ausardirik ez, eta eman egin nion. Bai besteak promesa ederrak egin ere. Ala zion:

– Estuasun ontan, i aizelako salbatu nauk. Baiña ni ere portatuko nauk irekin. Lenago iñon ikusten ez baaut, ire anaiaren tabernan urrengo aste bukaeran izango nauk. Bezperatik deituko diat; eta, alkarrekin bazkalduz, kontuak garbituko dizkiagu.

Oiek izan ziran andik aldegiterrako esan zizkidan itzak.

Lurdeserako bidaiari abitzeko amairu egun falta ziran. Gu Donostian baimen edo *pasaporteak* ateratzen izan giñanean, nere lagun Garmendia edo ala zala esaten zuan arek, asteburuan Aiara azalduko zala oso benetako itxuran agindu bazidan ere, etzan beraren deirik edo bisitarik izan, eta orduantxe asi nintzan errezelo txarrak egiten.

Lurdeserako eguna iritxi zanean, goizeko zazpiretan irten giñan Aiako taldea autobus batean. Asteasuko *Agote* enpresakoa bera.

Irungo aduanara urbiltzen ari giñan bezela, autobusez bete ziran inguru aiek. Muga igarotzeko geldialdia egin bearra baigenduan. Xendarmeak autobus bakoitzaren barrura sartu eta beren begirada ematen zioten, eta orregatik olako illara luzea osatu zan. Eun da ogei autobus bildu omen ziran Gipuzkoa guztiko gaztediaren erromes giro artarako.

Muga igaro genduanean, ekin genion aurrerako bideari. Artean autopistarik etzegoan, baiña emengo aldean bide onak, eta ordekek gaiñera.

Autobus-kate bat eginda joan giñan, eta bide ortako erri koskorretan eta nekazaritzan ari zan jendea ere arritzen guri begira. Etzan gutxiagotarako. Kilometrotan ikusten baizan eten gabeko autobus-katea.

Oso ederki igaro genduan bitarte guzia. Ez det uste iñork aberi bat ere izan zuanik, eta arratsaldeko irurak alderako iritxi giñan zorioneko Lurdesa.

Gu iritxi eta berealaxe, asi ziran *gaixoen ordua* edo aiek uretan bustitzeko egintza ortan. Ondoren, Ama Birjiña agertutako toki berezi artan ere zerbait egin genduan. Gero, illuntzeko zazpietan, meza santua, eun urteko ospakizun artarako bereziki eginda zeukaten eliz aundian.

Uraxe aundia! Eun milla lagunentzako tokia zeukala guri esan ziguten. Baiña ori geitxo izango ote dan iduritzen zait neri.

Arrautz baten gisakoa da, gaiñean erdi-erdian bizkar ezurra bezela, ormigoiz eta burniz egiña, eta andik bi aldeetara saiets ezurren antzera. Ondoa edo azpia ere tankera artakoa duanez, erdi-erdian aldarea dauka, eta jira guztitik ikusten da meza-emalea. Eta, danean altabozak dauzkanez, entzun ere bai.

Eliz artantxe entzun genduan nik eta beste askok Lurdesko lenengo meza.

Meza entzun eta egun artako eliz lanak bukatu genituanean, jatena geronek eramane genduan eta, batzuek autobusean eta besteak an inguruan zeuden aulkietan jarrita, afaltzen jardun giñan.

Ondoren, bazeuden an jira artan kafetegiak eta, sei-zortzi laguneko talde koskorretan, kafea edo kafesnea, bakoitzak zer nai zuan, ura artuz, eman genion jira bat inguruari.

Joandako tokian euskaldunak zerbait berezi egin bear izaten du, eta orduan ere baziran nonbait almoduzkoak.

Ango taberna edo kafetegi aiek ere, erronda egiteko ordua amaiketan zeukaten nonbait, eta txozna aietako nagusi bat asi zan bere burnizko persiana jexten; eta, erditik beera eratxi ezkerok, ez dakit nongoa izango zan, mutil gazte bat, artzaia zala esan ziguten bera ezagutzen zutenak, persianaren beeko aldetik lau oiñean, nagusia konturatzerako, barrura sartu zitzaion.

Alegiñak egin zizkion erteteko kanpora esaten. Ala esan naiko zion noski, guk ez genduan ulertzen baiña. Eta, alperrik zala ikusi zuanean, nagusiak, barrura sartu eta kopa bat koñak eman zion, ura eskatzen zion eta. Erten zanean, ala esaten zuan artzaiak:

- Ixteko itxura egiten zian. Nik barrendik dirua erakutsi diotanean, laster sartu eta kopa atera zidak. Gau guztian ere zabaldua edukiko likek gustora asko, or dauzkan patar oiek saltzeagatik.

Zerbait artuz eta beste zerbait ikusiz ibili ondoren, autobusera sartu giñan. Ura baigenduan gaue-rako babeslekua.

Baiña, danok gazteak giñanez, eta gurekin zan apaiza ere oso sasoiko izanik, ez genduan pixka batean lo artzerik izan. Batzuek kantatzen eta besteak bertsotan, nai ez dala ere, danak gazteak diran to-

kian umorea sortzen da, eta gure artean ere ortatik bazan aukera ederra.

Norbaitek esan lezake, zerrenda auek irakurtzean:

- Lurdesa joan eta orrela ibili al ziñaten?

Nik baietz erantzungo diot. Egin genduanetik ez det ezer gorde nai, eta seguru nago Ama Birjiña ere, alako umore jatorrean gu ikusita, bera ere pozak txoratzen egongo zala. Zerua ere goibel eta tristerik egoteko egindakoa ez da izango, eta Lurdes ere zeru txiki bat da.

Gau ura autobusean erdi lotan igaro genduan. Gero, goizean jeiki eta kafetegi batera joan eta kafesnea edo zerbait beroa artu ondoren, berriz ere eliz egintzetan ekin genion.

Lenbiziko, goizeko zortzietan, gurutz-bidea ospatu genduan. Lurdesko kalbarioak oso sonatuak dira, eta alakoxe tokian eta alaxe egindakoak diralako izango da.

Ango otoitzaldi ura amaitzean, ondoren eliz aundian meza santua. Gipuzkoako gotzaiak bere laguntzailleekin eman zuan.

Ura entzundakoan, Beterraingo kuebak ikustera joan giñan. Gero, bazkari legea egin eta ordubata inguruan etxerako bidean abitu giñan, Lurdesko Amaren gorantzan *Zeru eta munduak* abestuz.

Maiatza zan. Txarrak egiten ere badaki, baiña orduan oso eguraldi ona zan; eta, garaia ala izanik, bero aundia egiten zuan arratsalde artan.

Baionan ere geldialdi bat egin genduan baztarrak ikusiz. Baiña bereala erten giñan berriz erretirako bidean.

Gure taldeko mutil batek, ez dakit oiñetako berrriak zitualako edo bero egiten zualako, orpoetan eta beatz gaiñetan babak atera ta zapatak sufritu ezi-

nik, anka utsetan zetorren. Nola Donostira garaiz iritxi giñan, taberna baten inguruan toki ona ikusi zuanean, txoferrak esan zigun:

– Ementxe zerbait artzeko toki ederra zegok.

Eta bertan gelditu edo baztartuta utzi zuan autobusa. Nai zuanak zerbait artu edo komunera joan, aukera jarri zuan.

Anka utsetan zetorren ura ere, besteekin batean autobusetik jetxi eta abitu zanean, bi emakume eldu antzekoak zeuden an inguruan. Ni ere aien ondoan nengoan eta neri esan zidaten:

– Jesus! Mutil ori anka utsik nola dabil?

Nik erantzun nien:

– Promesa egin du Lurdestik anka utsik buelta egiteko.

Ori entzutean, alkarri esan zioten:

– Orrek zeukak sinismena, orrek!

Nik txantxetan esan nien, baiña aiek benetan artu zuten. Ara nola izaten diran gauzak.

Donostiko taberna artan zerbait artuz unetxo bat igaro ondoren, abitu giñan azkenengo bide zatia egitera; eta illundu eta laster iritxi giñan Aiako plazara.

Oso ondo egin genituan Lurdesko joan-etorri eta gainherako ibillera guztiak. Baiña ni ar txiki bat barruan nuala ibili nintzan bidaiia guztian.

Lenago aitatzen nuan, egun batzuk lenago, pasaporte ateratzera Gobienu Zibillera joan nintzanean, alamoduzko batek bosteun pezeta nola kendu zizkidan; eta nere kezka guztia izan zan mutil ura non ikusiko nuan. Lurdesen ere begiratu nuan makiña bat aldetara, baiña aurpegi ura etzan inñundik agertzen.

Eta, bidean gentozela, Errenteriko Zumardian festan zebillen jendea: gazte mordo bat antxe dan-



tzan. Nola inguru artan autobusa mantxo zijoan, pasaran, festari begira nentorrela, dantzatokiko er-tzean antxe ikusi nuan neri diruak kendutako mutil ura.

Geroztik beste inun nere begien aurrean ez da jarri.

Gauza batean nago seguru: antzerkia egiten bazekiala; eta, artan jarraitu izan balio, onezkero oso aberatsa zan.

Ez dakit gaur bizi dan edo ez. Baiña neri kendutakorik etzidan itzuli. Eta orduko bosteun pezeta, gaurko amar milla duro aiña baziran, eta min artzeko ainbat arrazoi banuala iduritzen zait.

Ara nola izan zan nere lenengo Lurdesko ibillaldia. Kostata, baiña zerbait ikasi nuan gertakizun artatik: dirurik edozeini eta edozein moduz ez emateko sekula santan. Uste det Lurdesko Amak zerbait erakutsi zidala.

---

## Santa eskea

**G**ure gaztaroan, erromeri giroa bizitzeko era asko zeuden, naiz festa aitzakian egiten ziran bille-rak, Lurdesa, Arantzazura, Urkiolara erromeri gi-roan egiten ziran joan-etorriak eta abar.

Santa eskean ere bagenituan egun bereziak izan-dakoak, eta beste geiagoren artean emen kontatzeko bat aukeratuko det, 1954-garren urtekoa.

Aurrez asiak geunden eskera erteteko antola-kuntzak egiten. Taldea osatu giñan. Zazpi lagunek itz emanda geunden ortarako: Juan Mari Artxiola, Jose Antonio Arruti, Joxe Larraspuru, Joxe Mari Gaztandizabal, Odoltsu, Errota Iñaxio soiñujolea (G. B.) eta ni.

Gaztandizabal, Arruti eta nere kontura zegoan aterik ate bertsotan edo kopletan egiteko ardura. Juan Marik ere tartectan zerbait egiten zuan; bai-ñan geiena guk.

Aurreko urteetan, Aiako alkate jaunak, Santa Ageda aurreko igandean, goizetik iru meza izaten zi-ran, eta meza bakoitzaren ondoren erriko enparan-tzan aguazillak bandoa jotzen zuan, amalau urtetik gorakoentzat santa eskean ibiltzea galerazita geldit-zen zala esanez.

Len aitutzen nuan urte orretan, zurrumurrua zegoan aurretik, urte artan libre izango ote zan, eta gu ere itxaropen orrekin geunden.

Baiña esandako igande ori iritxi zanean, berriz ere, lengo urteetan bezela, jo zuan aguazillak bandoa. Lenago, Aiako kaletik eskean asteko itzeginda geunden. Baiñan, ori entzun genduanean, aldatu egin genduan ibilbidea.

Santa eskea baiño bi egun lenago, egundoko elurra egin zuan. Zalantza batzuk izan genituan: batzuek, etzala atera bear; besteak, baietz. Eta, orrela ibili ondoren, baiezkoak irabazi zuan.

Ala, elur aundia zegoala, Laurgaingo Orbelaun baserritik arratsaldeko lauretan asi giñan. Urrena, Zarautzko Urteta auzoko Etxeberri, bi bizitzakoa, Kortaburu, Aierdi, Oiarte, Gorritxo, Pagalutz eta Paskualsoro. Oiek danak Zarautzko erri sailletan daude.

Berriro Aiako lurretan sartu giñan: Aranburu-azpi, Aranburu-berri eta Aranburu-zarra, irurak alkarren ondoan daude. Urrena, Izeta, bi bizitza, Sagarmaneta, Otzarre-ta. Aranburutik asi eta zazpi baserri auek Elkano auzokoak dira.

Urrengo baserria, Zarrola. Ortik berriro Laurgaingo auzoan sartu giñan.

Zarrolatik urrengo, Bizkar baserria genduan, gaur bizi naizen tokitik nere auzorik gertuena. Orduan ez nuan asko pentsatzen gero bizitzera guarda-etxera etorri bear nuanik. Ara nola dan gizonaren izatea.

Bizkarko baserrira bidean ginjoazela, txillarrazepa motz bat zegoan bide ertzean, eta aren barruan zerbaitek karraxia edo kurrixka egiten zuan. Linterna argia zuzendu genduanean, izkiazoa ikusten zan, eta batzuek asi ziran makillarekin *dili* eta *dale*.

Bi zeuden nonbait lotan eta biak lurrera erori ziran. Gauzez bestela ere motel xamarrak izaten dira, eta gaiñera elurretan, erdi kokilduta egongo ziran. Baiñan gixaraixo aiei kendu zizkaten otzak. Ura zan eiza egiteko modua!

Bizkar baserrira goizeko ordubata aldean iritxi giñan. Joxe Mari eta Maria, nagusi-etxekoandreak, jaiki ziran: eta, ateondoan bertso saioa egin ondoren, barrura sartzeko esan ziguten. Baita gu pozik sartu ere. Orduan Mariari esan genion, bi izkiazo erakutsiz:

– Au da eiza egin deguna!

Maria oso sukaldari ona zan, eta esan zigun:

– Zuek bertsoan eta berriketan ari zeraten bitartean, patatekin gisatuta jarriko dizkizuet.

Ori entzun genduanean, ez giñan asarre. Goseak eta otzak ebakita baigeunden.

Gu konturatzerako, jarri zigun kazuelkada ederra, eta ez dakit neroni ere jateko gogo geiagorekin sekula asi ote naizen. Besteak ere etzeuden atzera begira egoteko.

Kazuelkada ura jan genduan, urdaiazpikoarekin egindako tortilla ere bai, ardoa bapo edan, eta orduantxe jarri giñan erromerirako moduan. Naiz ibiltzeko eta naiz ateondoan kantatzeko, ura zan saioa, ura!

Len ere zerbait egin genduan. Baiñan ondorengo baserrietan asten giñan ateondoan bertsoan eta ezin ixildu. Neska gazterik agertzen bazan, berriz, errogatibetako letaniak baiño saio luzeagoak egiten genituan.

Kanpoan otz bazegoan ere, gure taldean etzegoan aundirik, eta Laurgaingo auzoan etxez etxe jarraitu genion: Bei-etxe, Palazzo, Seroretegi, Apaiz-etxe, Iriondo, Iturraran, iru Landarbide, Ibarrola-goikoa

eta bekoa, eta ondoren Manterola, Laurgaingo azkeneko baserria.

Ondoren datozenak Arrute-egia auzokoak dira: Manterola-erdi, Manterola-saletxe, Ortegi, Azkorte, Sarobe, Odoltsu, Arruti bi bizitza eta Larraspuru. Au zan azkenengo etxea.

Goizeko seiretan iritxi giñan baserri ortara, eta taldeko bat, Joxe, baserri ortako maiorazkoa zanez, bertan gosaldu genduan. Etxekoandre Pantxikak baratxuri-zopa eta tortilla egin zizkigun, eta berriz ere ederki jarri giñan. A zer indarberritua artu gendua!

Gosalondoan, soiñua jo eta bertsoa kantatu, beste saio bat egin genduan, eta ondoren bakoitza bere etxera. Giroa ere alakoxea, eta ura oian sarzkeko gogoa eramane nuana! Besteak ere nere moduan egongo ziran.

Orrelaxe amaitu genduan, bezpera arratsaldean asitako santa eskeko ibillaldia.

Lengo oitura onela zan: santa eskean ibili eta zortzialdira edo amabost egunera talde osoa bildu eta apari bat egitea. Apari orri *santa-jatea* deitzen zioten toki batzuetan. Aia aldean etzan orrela deitzeko oiturarik.

Gu eskean ibili giñanetik urrengo igandean jarri genduan eguna; eta, izendatu bezela, aparia ere egin genduan.

Gaur egun santa eskean biltzen diran xoxak zerbaitetarako eman egiten dira. Baiña garaian garai-koak izaten dira, eta orduan etzegoan orrelako oiturarik.

Orrelaxe, apariarekin ospatu genduan santa eske ondorena. Baiñan ordurako zurrumurrua zabaldua zegoan, alkate jauna asarre samar omen zegoala, berak emandako agindua autsi gendualako.

Ala bearrez, ez giñan gu bakarrik santa eskean ibilitakoak. Bazan beste talde bat ere urte artan ibilia. Talde ori azken unean artaratu zan nonbait; eta beste prestakuntzarik egiteko denborarik ez eta aoko soiñuarekin ibilia ziran.

Guk aparria igandean egin eta biaramonean, astelena, aguazillak etxez etxe abisuak egin zituan: alkate jaunaren aginduz, santa eskean ibilitako guztiak urrengo egunean udaletxeko aretora biltzeko. Orduaz ez naiz oroitzen, baiña illuntzean izango zan. Alaxe daukat iduripena.

Neroni gripe edo orrelako zerbaitekin nengoan, eta nere anai Andres joan zan nere orde. Bildu omen ziran esandako orduan. Alkatea eta idazkaria an omen zeuden serio. Gaiñerakoak ere bai noski. Alkate jaunak esan omen zuan:

– Santa eskean ibili zeratela egia al da?

Baietz; egia zala erantzun omen zioten.

Orduan alkateak:

– Nere agindua autsi egin dezute; eta orrentzako zigorra, bakoitzak amar duro ordaindu bear dezute.

Santa eskaleak ere, burumakur antxean, esan omen zioten agindua autsi zutela, baiña beste errietan ibiltzen zirala.

Eta nere taldekoak onela esan omen zioten:

– Zarautzko partean, Aian ainbeste ibili gera, eta an ez dute eragozpenik jartzen, eta ez al dago amar duroren tokian bost jarrita gauza konpontzerik?

Orrela jardun ondoren, azkenean bost duro ordaindu eta kito. Orduko istoria orrela bukatu zan.

Batzuek dantza lotuan ibili ziralako kartzelara eramán zituzten; eta guri santa eskeagatik bost duroko zigorra. Ura bai zala alkate gogorra!

Soldadu joan aurretik, 52, 53 eta 54-ko iru urte

oietan erten giñan santa eskera. Aiako kalea eta inguruko baserriak utzita ibiltzen giñan. Lenengo bi urteetan ondo ibili giñan. Etzitzaigun kejarik inñundik etorri. Baiñan, irugarrenean ibili ondoren, alkate jaunak jakin zuan eta zigortuak izan giñan.

54-ko iraillean soldadu joan nintzan; eta, larogei egun igaro ondoren, libratuta etxera etorri nintzan, eta ni bezela beste mordoska bat. Orduko kupoan mutil geiegi gertatu omen giñan, eta arrazoi orren-gatik iritxi zan guretzako suerte ura.

55-eko ilbeltzean, Asteasuko iru mutil etorri zitzazkidan: aien errira santa eskera gau bat pasatzera koplari joaten banintzan, irureun ta berrogei ta amar pezeta emango zizkidatela; eta joan egin nintzan, eguna iritxi zanean.

Kalea dana eta beste baserri mordo bat pasa genduan. Asera Panaderiko tabernan eman genion, eta bukatu ere antxe egin genduan, kafesne bana artuz.

Agindutakoak eta beste amar duro eman zizkidaten, eta aiek kontentu eta ni ere bai. Naiz eta nekatu aldia aundia artu, soldata ura jasotzekotan merezi zuan. Urrengo urtean sartu nintzan ni Laurgaingo eremuan Diputazioko langille bezela, eta orduan eguneko berrogei pezeta zegoan bakoitzaren soldata.

Asteasun eman zidaten ura irabazteko, amar egun pasa bear nituan lanean. Gaur ere, enpleatu batek amar egunean irabazten duana agindu ezkerero, bertsolaria ugari billatuko litzake. Nere ustea ala da beintzat.

Gu santa eskegatik 54-ko urtean zigortuak izan giñan; eta, andik zazpi urtera, 61-ean, udaletxetik deitu zidaten, mesedez nai nuan taldea artu eta erriko beartsuen alde santa eskera erteteko, eta erten egin giñan.

Egun guztia baserrietan pasa genduan, eta

illuntzean kalea, eta emezortzi milla pezeta entregatu genituan udaletxean. Ordurako diru mordo aundia zan.

Ain urte gutxiren barruan aldatu ziran alkatea eta oitura guztiak: lenago galerazten eta gero erteko deika.

Urte artakoa egin ondoren, ni ere ez nenbillen meniskotik gustora, eta andikan laster operatu egin nintzan: eta ni ere gogo aundirik gabe eta santa eskeari utzi egin genion, eta beste ogei bat urtean aztuta egon nintzan.

Aian bazan Agustin Aldalur deitzen zan mutil berezi bat, ni baiño bost bat urte gazteagoa. Esan zitekeen erria serbitzeko gizaki bat zala. Bera zan organista eta txistularia, bietan oso ona. Koruko kantari taldea eta erriko dantzari txikiak berak zuzentzen zituan. Igande eta jai egunetako mezetan eta illeta guztietan berak jotzen zuan organoa.

Agustiñek errian debalde egin bear ziran gauza guztietan artzen zuan parte, oso pozik gaiñera. Aian santa eskea, len galerazita egon zalako-edo, garai orretan atzendurik edo aztuta bezela zegoan.

Lenengo, erriko ikastolan maisu zebillen Eujenio Agirretxe asi zan. Egun orretan ume talde aundi bat artu eta baserriz baserri eguna eskean pasatzen zuten.

Gure Agustiñek ori ikusi zuanean, illunabarrean aundi eta txiki talde bikain bat osatu eta kalea pasatzen asi ziran. Ikasitako kantak eta koplak abesten zituzten.

Orrela iru bat urtean ibili ziran, eta gauza zerbait obeto egitea gogoratu zitzaion Agustiñi. Orduan neri deitu zidan, esanez:

– Etorri adi gure talde ontara. Gure kantuak baiño, ire bertsoak giro ohea jarriko ditek erriko jendearen artean. I etorriko baintzake, beste grazi bat



izango likek gure santa eskeak. Ez dek soldatarik izango. Baiña, iru bat orduko saioaren ondoren, gure alkartean aparti ederra egingo diagu, eta apalondoa diru guztiak baiño geiago balio duana izaten dek.

Aukera oiek danak eman zizkidan ezkerero, nik ere baiezkoa eman nion, eta pozik gaiñera.

83-an asi nintzan Agustiñen talde orretan koplari lanak egiten, Aiako kale etxe guztiak pasatzen; eta geroztik urte bat utsegin gabe serbitu det erria. Illunabarrean zazpiak aldean asi eta amarretan bukatu.

Lenengo bi urteak bakarrik egin nituan, eta barentzat oso lan gogorra egiten da, lareun bat bertso kantatu bear izaten nituan eta. Ez da baserrietan bezela: batean kantatu eta urrengora irixterako naiko denbora daukazu. Etxe batean saio aundi samarra eginda ere, urrengorako ederki atsedentzen da. Baiña kalean aterik ate asten danean, ez dago arnasa artzeko denborarik ere. Bertsoak ere ezberdiñak kantatu nai, eta or izaten dira komeriak.

Irugarren urterako Otamendi artu nuan laguntzat; eta orrela, txandan kantatuz, askozaz errezago ibiltzen da.

Geroztik, beti lagun bat izan det: Zendoia, Artzain, Zatain edo besteren bat. Irukotea ibilitako urteak ere izan ditugu.

Danetan oso pozik, alai eta giro umoretsu batean igaro ditugu, batez ere apalondoak. Bertso berria eta zaarra aukeran, tartean soiñua eta dantza, danetik. Eta askotan ordu txikiak iritxi eta bukatu ezin. Orrelaxe izan ditugu santa eskeko egunak eta gauak. Urteroko gure erromeri giro ori beti aundi-kiro ospatu izan degu.

Baiñan 90-ekoa izan zan istorira pasatzeko oieta-koa. Egun ura oso berezia gertatu zan. Urreak eta

brontzeak baiño alde aundiagoa zuan urte artakoak beste gaiñontzekoekin.

Urte ortan Santa Ageda bezpera igandean gertatzen zala-ta, eske eguna baiño bi illabete lenago, Agustiñek neri esan zidan:

– Igandea dan ezkeroz, egun orretan goizetik asi baserriz baserri eta bazkaritara arte ibiltzeko sei bertsolari osatuko al ziñateke?

Nik baietz erantzun nion; bertsolariak billatzeko lan ori uzteko nere kontura.

Orduan Agustiñek esan zidan:

– Ik bertsolariena egiten badek, guk soiñujole eta panderistak jarriko dizkiagu. Jendea ere bai, eta baita kotxezaleak ere, batetik bestera taldea aldatzeko. Santa eskeko goiz orretan bederatzieta erriko enparantzan bilduko gaituk, eta era ortan iru talde prestatuko dizkiagu.

Dana zuzenduta jarria zegoan eguna iritxi zane-rako. Kezka bakarra genduan geurekin: giroarena. Gaiñontzekoak pronto jarrita geunden: sei bertsolari, iru soiñujole, pandero-joleak beste sei, eta bear ziran kotxeak ere bai.

Eguna iritxi zanean, goizeko bederatzieta, Aiako plazan, esanda zegoan bezela, bildu giñan danok.

Bi bertsolari, soiñujole bat bere panderistarekin, eta bildu zan jendea iru zati egin eta iru taldetan banatu giñan.

Santa eskerako prestatu giñan iru taldeak era ontan izan ziran. Sei bertsolariak Aiakoak jartzeko asmotan asi nintzan ni.

Baiña Manuel Lertxundi *Olaberría* Usurbillen bizi danari deitu nion, eta bai agindu ere. Baiña andrea gaizki samar zeukalako, bere orde z gaur Usurbillen bizi dan zarauztarra, Kandido Arrojeria, bialdu



*Aiako santa eskean, 1990-an.*

zuan. Orduan ondo ezik zegoan Manuelen andre ura, andik lau urtera il zan (G. B.).

Arrojeria eta Zatain bertsolariak, Aiako Iosune Eizmendirekin ezkondata dagoan Anoetako soiñujolea eta bertako panderistak, beren taldearekin, Aiako goi aldeko bi baillara zituzten pasatzekoak: Etxeta baillara eta Iruretaegia.

Markos eta Otamendi bertsolariekin, soiñu jolea donostiarra, baiña Aian bizi dana. Aien taldeak, Kurpidea auzoa eri erri ondoko beste etxe batzuk.

Artzain eta nik osatzen genduan irugarren bertsolari bikotea; soiñujole Nekane Lertxundi, eta panderoarekin Manterola bi aizpa.

Gu asi giñan Arrutiegia auzotik. Gero Laurgaiña aldatu giñan. Eguraldi aldetik giro aparta, eta geure aldetik ohea. Goizean motel antxean asi giñan. Baiña gero, Laurgaingo guarda-etxean, nere andreak jarrita, amaiketakoa egin genduan, ura sasoa etorri zitzaiguna! Ateondoan bertsoan saioa egin eta abitzen giñanean, aiek irrintziak eta oiua! Ura zan umorea, ura!

Ondoren jarraitu genion eta Ubegun baillaran gora asi giñan. Errota jatetxera iritxi giñanean, beste amaiketakoa. An beste indarberritua artu eta Olaskoegira. Au beste auzo bat da. Andik barrena larroko auzora, eta ortxe bukatu genduan, berrogei ta zortzi baserri pasa ondoren, goiz parteko saioa.

*Alkar* alkartean genduan bazkaritarako lekua. Baiña, gu iritxi giñanerako, arratsaldeko laurak ziran. Gaiñerakoak ordurako bazkalduta zeuden. Gure aldean lan gutxi egin zuten. Bi talderen artean, guk bakarrik pasatako baserri kopurua urruti gelditu zitzaien.

Gu oso nekatuta iritxi giñan. Baiña giroa ere ezin ohea, eta pozez txoratzen igaro genduan santa eskeko igande goiz ura.

Gu bazkaltzera ageri ez eta Agustin kezketan zegoan ordurako, zerbait gertatu ote zitzaigun pentsatuz. Azaldu giñanean, etzan asarre gure zuzendaria.

Organista zanez, bostetako mezetara joan bear zuan koruko lanak egitera; eta elizara abitu aurretik eman zizkigun bere aginduak: nola ordu erdi batean meza bukatzen zan, bost eta erdietan bertsolari, soiñujole, panderista eta taldekide danak eliz aurrean plazan egoteko, aundikiro ospatu bear genduala ta.

Gu ere zintzo agertu giñan esandako ordu eta lekuan, eta ordurako plaza guztia jendez betea zegoan. Bertakoa ere asko, baiña kanpokoa geiago.

Asi giñan altabozetik bertsoa kantatu eta tartean soiñua eta panderoa, eta beste batzuk zakua pasatzen. Ura zan une gozoa, ura! Plazako jende guztia txoratzen egon zan.

Agustiñen poza, berriz, zenbateraiñokoa izan zan adierazteko nik ez daukat itzik. Neregan uste auxe daukat: Agustin, urrengo Urtezar gauean, organoa jotzen ari zala, ilda gelditu zan; eta santa eskeko egun artan pozaren pozez biotzari erasan ote zion.

Plazan berrogei bat minutuko saioa egin ondoren, leen banaka ibili giñan iru taldeak batuta, eta gaiñerako jende guztia gure ondoren genduala, kallea pasa genduan. Bi ordu t'erdi gutxi gora-beera.

Ondoren, leengo alkartean jarri ziguten aparria. Apalondoan asi giñan batzuetan bertso berriak, besteetan zaarrak. Ura zan umorea eta giroa!

Nekatuta geunden ezin da geiago, baiña ez giñan aspertzen. Ain egon giñan pozik eta gustora, naiz eta orduak aurrera bazijoazten. Orduan baiño pena aundiagoarekin ez naiz iñundik etxera etorri, eta ez det uste gaiñera orduko zoramen ura berdinduko detanikan.

Andikan amabost bat egunera, Agustin da biok

santa eske eguneko gora-beratzaz itzegiten asi giñanean, berak ala esan zidan:

- Aurtengo santa eske eguna baiño ederragorik nere bizi guztian ez diat pasa. Alain egun osoa gertatu uan. Iru talde alakoak, batetik bestera aldatzeko naiko kotxea, eguraldia ezin ohea, eta giroa oraindik ohea. Berriz ere saiatuko gaituk, baiña egun ori berdintzea eziñezkoa iruditzen zaidak. Besteak beste, apalondoan pasa genduan une gozo ura etzaidak sekula aztuko.

Orduan nik esan nion:

- Orduko talde ura bilduta beste apartari bat egitea zer iruditzen zaik?

Erantzun zidan:

- Pentsatzen dezutenean kaso egin. Aparia presatzea nere kontu.

Ni nere lagunekin zerbait itzegiten asi nintzan, baiña andik laster Agustin gaixotu eta ospitalera joan zan.

Ala asi giñan ezkeroz, aparria egiteko eguna maiatzaren 26-an jarri genduan, Asentsio eguna edo ospakizuna 27-an nola zan. Aian bezperatik asten baita festa giroa, eta ura aprobe txatuz eta Luis Arrillaga, ezbear batez gurditxoan gelditua dagoan gure lagunari omenalditxo bat egiñez.

Agustin ere amabost egun leenago ospitaletik etxeratu zan, eta bera ere aparitara joateko asmotan gertatzen zan. Baiña, eguna iritxi zanean, etzan agertu gure apartari artara.

Ni eta gaiñontzekoak ura gure artean izango zan pozarekin bildu giñan, eta beraren utsunea naikoa izan zan guk amets eginda genduan giroa galtzeko.

Uste genduan santa eskeko illuntze ura bezelakoa gertatzea, baiña oso urruti gelditu zan. Etzan leengo egun artako girorik eta gutxiagorik ere sortu

azkeneko biltzar artan. Une eta egun bereziak uste gabeen gertatu bear izaten dute. Aurrez pentsatzen danean, oker irteten dira.

Andik ondorengo egun batean, Agustiñekin topo egin nuan kalean, eta:

- Leengoan zer moduz? -galdetu zidan.

Erantzun nion:

- Ni leengo apalondo arekin gogoratuta asi niñuan, baiña oraingoan oso urruti gelditu zaiguk leengoan izan genduan giro eta gozamen ura. Nik uste diat, i tartean izatera, askoz ohea izango genduala.

Agustiñek erantzun zidan:

- Ni oso pozik joango niñuan, baiña medikuak esan zitxean sukaldaritzako lurrun eta puru-kea dagoan tokitik aldentzeko, eta orretxegatik gelditu bearrean gertatu niñuan, naiz eta joateko amorratzen egon. Amaika aldiz gogoratu zitzaidan illuntze artan; baiña, ni an izan banintzan ere, ez pentsatu leengo egun eta gau ura bezelakorik geiago gure bizitzan gertatuko zaigunik. Nik badizkiat geiago ere egun gustokoak paseak. Baiña santa eskeko egun ura berdindu edo urreratzekorik ez diat izan, eta berri izateko ere etzedukat esperantzarik. Meza ondorengo saio artan plazako jendearen gozamen ura ikusi nuanean, pozaren pozez negar egin nian, eta geiago ere ikusi nizkian begiak malkoz bustita. Bizitza osoan gogoratuko nauk ni egun artaz.

Oietxek izan ziran Agustiñek neri esan zizkidan itzak.

Leen zerbait aitatu det, eta nere lagun min ura urte artako Urtezar illuntzean, Aiako Aitzpeako elizan letaniak kantatzeko organoa jotzen ari zala, biotzak *plast!* egin eta bertan ilda gelditu zan. Ura une beltza!

Urteberri arratsaldean bostetan zan illeta; eta,

gorputza etxetik ateratzen asi ziranean, larogei urte zeduzkan amak, baiña oso pizkorra zegoan, ain seme maitea izan Agustin eta berarengandik ezkutatzera zijoala ikusi zuanean, naigabe ura ezin kabitu eta biotza lertu zitzaion. Gaixoa bertan ilda gelditu zan. Orrelaxe izan zan semea eta amaren bukaera.

Esan liteke, Agustiñek neri esan zizkidan kontu aiek esan zituanean, bere azkenaren urbiltasuna nabaitzen zuala. Neri alaxe iruditzen zait.





*Zutik, ezkerretik: Joxe Mari Lertxundi; Ebaristo Lete, Bergarakoa; atzeko biak, ez-ezagunak; Antonio Lekuona, Oiartzungoa. Belauniko, ezkerretik; Lasarteko mutil bat eta Luzio Izagirre, Mutrikukoa.*

---

## Soldaduskako jolasak

**G**ure garai artan soldadu joateko txanda udaberrian izaten zan. Baiña guri soldaduskarako deia egin ziguten urtean, gure kinta artan mutil geiegi gertatu zan nonbait. *Excedente de cupo* deitzen zioten.

Letrak zakuan sartu eta txotx egin zuten. Suertatu ziran letra aiekin asten ziran abizenak genduzkanak, Aian lau mutil gertatu giñan: bi Ibar-guren, Izeta eta Lertxundi.

Gaiñerako gure kintakoak udaberrian joanak ziran. Guri irailaren lenengo larunbatean jarri ziguten eguna; eta ordua, berriz, goizeko zortzi t'erdietarako Donostiako Norteko geltokian. Bai txintxo asko mutil jendea bildu ere esandako ordurako.

Gaur gazteak urte oietarako baztar guztietako berrri badakite. Baiña gure garaian ia erritik sekula atera gabe, ezeren aztarnik ez eta bildurrak amorratzen iñora abitzeko. Eta militarren mende joatea zer izango zan pentsatu besterik ez dago.

Bederatzietako trenean sartu eta eguerdi alde-rako iritxi giñan Gasteiza. An kuartelean sartu eta

erropak eman zizkiguten. Gero, bazkaria. Bazkalondoan, fusilla, matxetea, kaskoa eta petatea artu eta, oitura duten bezela, danok formatu arazi eta abitu giñan.

Udaberrian joanda zeuden aiek soldadu egiñak nola zeuden, aiei soldadu zaarrak edo *beteranoak* deitzen zitzaien; eta nola oitura bat izaten dan kuarteletan, len dauden zaarrak, gero joaten diran gazte edo berriei iseka egitearren, ardi zaarrak bildotxei egingo baliote bezela, *beee... beee... beee...* egiñez jardun oi dira; eta guri ere alaxe egin ziguten.

Arratsalde erdian abitu giñan Gasteizko kuartelelik; eta, bost-bat kilometro igaro ondoren, iritxi giñan Araka-ko kanpamentura, eta bertan zortzina lagunentzat lotokia zuten *tienda* izeneko gauza borobil batzuek zeuden; ondoan irurogei bat zentimetro altuan orma, eta goia lona batekin estalia.

Ertz batean *hogar* bat. Aldamenean istruziotan ibiltzeko tokia. Tiroan entrenatzeko ere bai. Gu nola artilleri astunekoak giñan, kañoiak, obusak eta ametralladorak manejatzen ikasteko tokia.

Kanpamentu ortantxe pasa genduan soldaduska guztia.

Arakako kanpamentu artan, burgalesak mordoxka bat baziran. Araban bertakoak ere bai, eta beste napar batzuk. Baiña gipuzkoarrak giñan geienak.

Udaberrian joanda zeudenak gure kintakoak ziran. Guri suertea egokitu zitzaigun. Iru illabeterekin soldaduska bukatuko genduala zurrumurrua zebillen. Baiña lendik joanda zeuden aiek, ori etzuten entzun nai. Soldadu zaarretako batek ola esaten zigun:

– Emen sartu errez egiten dek. Zuek bereala etxera joateko pozean etorri zerate. Baiña ikusiko

dezute gu lizentziatu eta zuek emen nola geratuko zeraten.

Baiña etzan ala gertatu. Len esaten zuten bezela, iru illabete baiño zerbait lenago gaiñera, etxera itzultzeko baimena eman ziguten. Eta, joan giñanean, guri zaarrak egiten ziguten bezela, orduan guk egin genien *beee* eta *beee*. Etziran goxoak gelditu, baiña ura etzan gure errua, eta gu pozik etorri giñan.

Soldaduskak baditu alderdi txarrak eta une estuak, nola militarren mende egon bear izaten dan. Ango legeak gogorak izaten dira. Kontuz ibili bear izaten zan an. Ezertan utsegin ezkerro, etzegoan barkaziorik. Erruki gabe jartzen zuten zigorra, eta arretaz ibili bearra zegoan.

Baiña bazituan alderdi onak ere. Danok nola sa-soiko mutillak giñan, ez genduan umorea eta jolasaren faltarik izaten.

Gosaria eta bazkaria an emandakoarekin pasatzen giñan. Baiña apari-merienda an bertan zegoan *hogar*-ean egiten genduan. Gu sei-zazpi laguneko taldea izaten giñan illuntzero. Bakaillu-kaxuelkada oso goxoa jartzen zuten bakoitzarentzat iru peztan. Guk ere diru askorik ez genduan izaten, baiña ainbeste bai.

Ardo gorria ere oso ona egoten zan; eta, kaxuelkada jan eta beste litro erdi bat ardo edanda jartzen giñanean, bagiñan iru bat bertsolari, eta aoko soiñua oso ondo jotzen zuan bat ere bai, eta illuntze alai askoak bagenituan igaroak.

Batzuetan, ofizialak sartzen ziran *hogar*-ean, eta orduan etzegoan bertsoan eta alako berriketarik egiterikan. Nagusi jendeari grazi gutxi egiten zioten alako gauzak.

Gauza guztiei billatzen zaizkie erremeditzeko mo-

duak, eta guk ere arkitzen genituan bertsoan eta jolasean jarduteko garai eta tokiak.

Kanpamentutik goraxeagoan bazegoan piñudi bat; eta, aske edo libre arkitzen giñanean, dozena bateko taldea joaten giñan, soiñujolea eta iru bertsolariak tartean giñala. Izugarrizko giroan igarozten genduan, bertso, soiñu eta abesti. Ura zan benetako erromeria!

Lenago esaten nuan, kupo artan mutil geiegi gertatu giñalako, txotx egin zutela; eta, beti gertatzen dan bezela, batzuentzat bakarrik suertea ori. Baiña neri ere noizbait egokitu bear, eta orduan iru illabetez azpitik soldaduska egin eta etxera itzultzea suertatu zitzaidan.

Istruzioak ikasten eta teorikan estuasun batzuk pasa genituan; baiña une gozoak ere gertatu zitzaizkigun bat baiño geiago. Len aitatu det nola goiko piñudira joan eta soiñu, bertso eta kantu, eta dantzan ere bai iñoiz, nolako jolasaldiak egiten genituan.

Egun batean pentsatu genduan toki berrira joan bear genduala. Kanpamentuaren azpikaldean artasoro eder bat zegoan eta zortzi lagun antxe sartu giñan. Bertsoan ere egin genduan saio bat. Ipuiak kontatzen ere bai. Eta gero karta jokoan asi giñan, *zazpi t'erdian*.

Danera ordu t'erdi bat igaro genituan ordurako, guk inguruko nekazariren batena uste genduan arren, an azaldu zitzaigun sarjento bat, atxurra altxa ta jotzeko desapioa egiñez.

- Zer ari zerate emen? -galdetu zigun.

Denbora pasa kartetan ari giñala esan genion. Gu ere oso buru makur jarri giñan, eta barkatzeko arren eta arren!

Eta berak esan zigun ordukoagatik barkatzen zigula; baiña, berriz arrapatzen bagiñun, kalabozora sartuko giñuala. Etzigula urrengoan barkatuko.

Ez giñan asarre, andik aldegiten utzi zigunean.

Beste bi asteburu Otxandianon pasa genituan. Oiartzungo Antonio Lekuona nuan lagun bat, eta Jon izenekoa bestea.

Azkeneko au Otxandianokoa nola zan, arek esan zigun oso erromeri polita egiten zala eta an pasako genituala asteburuak.

Gaiñera, nere Aiako lagun batzuk antxe inguruan ari ziran baso-lanetan, Otxandianotik bi kilometrorra. Don Andresen finka edo deitzen ziotena, pagadi aundi bat zan.

1936-ko gerratean atake aundiak izandako tokia omen zan. Pago askok omen zeukaten beren gerriaren barruan metralla, eta aizkora asko puskatu omen zituzten.

Gu larunbat arratsaldean baso artara joan giñan, eta an arkitu genituan Joxe Antonio Arruti, Euxebio Gorostiola, Miel Azkue, Julian Sarobe, oiek Aiakoak; eta beste bat alegitarra, *Kale*, nagusi bezela egiten zuana.

Gero, illuntzean, gu eta baso-mutillak Otxandianora bildu giñan. Baso-mutil taldea, nere Oiartzungo laguna eta ni larunbat illuntze artan jetxi giñan basotik.

Ordurako erromeria asia zegoan; baiña egun artan-soiñu aundiarekin nola jotzen zuan, ia dana dantza lotua zan, eta guri etzigun grazi geiegirik egiten.

Pixka batean erromeriari begira egon eta talde osoa apaltzera sartu giñan. Baita Otxandianoko soldadu lagun ura ere, bere osabarekin.

Osaba ura izugarri alai zan. Aren ateraldiak, txisteak eta abarrek umore aparta jartzen zuten.

Apari denbora oso giro ederrean igaro genduan, eta apalondoan oso gauza polita gertatu zitzaigun.

An serbitzen bi neska gazte bixkiak zebiltzan, biak politak gaiñera; baiña gure izkuntzarako neska motxak ziran. Gure lagunaren osaba arek, aiei begira jarri eta esaten zuan:

– Oek motzak? Ez, mutiko, ez! Neska auek politak dira.

Gu ere gero konturatu giñan gizon arek itsusiari motza deitzen ziola; eta guk, berriz, txikia danari edo luzeera gutxi duanari. Ara itz batek probintzi batetik bestera nolako nasketa sortu lezaken. Garai artan beintzat bai. Gaur alkar errezago ulertzen dute angoak eta emengoak.

Larunbat illuntze artan, apalondoan, erromeriari begira plaza ertzetik egon giñan; eta, soiñua bukatu zuanean, basoan ari ziran taldea beren txabolara joan ziran. Oiartzungo Lekuona eta ni, berriz, tabernan bertan lo egin eta goizeko autobusean itzuli giñan Arakako kanpamentura.

Berriro, amabostaldira, itzultzeko suertea izan genduan Otxandianoko erri politera. Orduan ez genduan baso-mutil aietakorik, baiña erromeri berezia gertatu zitzaigun. Lagun bat Lekuona lengoa nuan; eta bestea, Ernanikoa, bertsolaria gaiñera.

Aurrekoan apaldu eta lo egin genituan tabernara sartu giñan, eta ogitarteko eder bana eskatu genituan. Baita ekarri ere.

Aiek jaten ari giñala, bertsotan asi giñan, eta be-realaxe taberna guztia jendez bete, plaza erdi utsik geratzeraiño. Neskak ere askotxo sartu ziran, dantzaz zebiltzan lekutik. Gero ala esan ziguten: an afizio izugarria zala bertsotarako. Etxekoandreak ere etzigun ogitartekorik kobratu.

Plazara irten giñanean, dantzara joan giñan eta ez genduan kalabaza artu bildurrik. Joaten giñan neska guztiak, gurekin dantzatzeko amorratzen. Ura zan suertea, ura!

Ala, erromeria bukatu zuanean, agurtu genituan dantzako neska lagunak, eta amarrak ondorenean berriro ostatura sartu giñan. An Otxandianoko gure soldadu lagunaren osabak apaltzera gonbidatu ginduan. Gose aundirik ere ez gendukan orduan, eta apari arin bat egin genduan.

Baiña berriro ere bertsoen eske asi zitzaigun jendea. Aien gogoia betetzeko aiña egin genduan; eta, aurrekoan bezelaxe, bertan lo egin eta urrengo goizean itzuli giñan Arakan utzi genituan lagunetara.

Otxandianora bigarren aldiz joan giñan ura, Garotako edo Pilareko Ama Birjiñaren eguna zan; eta, egun ura zalako-edo, erromeri berezia gertatu zitzaigun: bi soiñujole eta beste bi panderista; eta inguru artako neska eta mutil, gazte jende guzia, an bildu zan.

Panderistak neska eta mutilla ziran. Biak ere bai, baiña batez ere neskak trikitixarekin koplak kantatzen grazi berezia zuan. Kantu tartean izugarrizko irrintziak egiten zituan. Jendea gozatzen zan aren koplak eta irrintzi oiekin.

Baiña ez guziak. Festa-tokiko ertzean, soiñujole-engandik naiko gertu, an nonbait ere basoan ari ziranak bi mutilzaar zeuden. Bearbada, ain zaarrak etziran izango; baiña, jantziak ere zarpail samarrak zeuzkatelako-edo, ala ematen zuten.

Eta neska pandero-jole arek, aiei begiratzuz, koplak kantatzen zituan; baiña geienetan ondoren jarriko detan au edo auek:

Altuan dago  
San Juan Koruko; *(bis)*  
nobixua billatzen  
digu lagunduko,  
mutilzarrik ez artu,  
gazterik badago.



Zaldixak irrintzi ta  
astuak arrantza, *(bis)*  
zarrak utzita ere  
bada esperantza,  
laguna obia da  
gazte aberatsa. *(bis)*

Neskazarrak juaten dira  
San Antoniora, *(ter)*  
santuari eskatzera  
senar on bana, *(bis)*  
komeni bada.

Santuak egiten die  
buruarekin ez: *(ter)*  
Zergatikan leenago  
akordatu ez? *(bis)*  
Orain baterez!

Begira nago, begira,  
goiko kamio berrira,  
noiz etorriko ote dan  
maitea nere errira;  
begira nago, begira,  
goiko kamio berrira.

Mendirik mendi lainua,  
pagorik paso usua,  
ezta arrapatzen erreza  
maiorazkuen pausua;  
mendirik mendi lainua,  
pagorik pago usua.

Nere maitearen ama,  
asto baten jabe dana,  
ark ekarriko dit neri  
etxean bear dotana;  
nere maitearen ama,  
asto baten jabe dana.

Durangon bazkalduta  
Mañarian gora, *(bis)*  
Urkiola ganeko  
San Antoniora;  
ai! oi! ene!  
Urkiola ganeko  
San Antoniora.

Urkiola ganeko  
santu debotua, *(bis)*  
amaika neska-mutil  
uztartutakua,  
ai! oi! ene!  
uztartutakua,  
Urkiola ganeko  
santu debotua.

Mutilzar aiek azkenean tabernara aldegin bear izan zuten; baiña ezkutatu ziran artean, etzuten atsegin izan.

Guretzako erromeri zoragarria gertatu zan. Lagun bat bertakoa izateak ere asko lagunduko zigun; baiña bestela ere oso arremen ona izan genduan Otxandianoko jendearekin.

Berriro larunbat edo igande batean agertuko giñala esanda itzuli giñan. Baiña andik laster lizentziatu edo soldaduskako bukaera iritxi zitzaigun, eta artan amaitu zan gure Otxandianoko festa.

Otxandianora bi alditan joan eta bietan oso ondo ibiltzeko suertea izan genduan; eta an egin genituan lagunei, naiz neska eta naiz mutil, agindu genien berriz ere itzuliko giñala.

Baiña emandako itza ez genduan betetzeko modurik izan. Urrengo asteburuan ez baiziguten Gasteiza jexteko baimenik eman; eta, ura kendu ezker, Otxandianora ere etzegoan joaterik.

Baiña kanpamentu inguruko mendi aldera ertea etziguten galerazten; eta, aitzaki orrekin, Zarautzko Joxe Mari, Oiartzungo Lekuona eta nik larunbat ura bapo aprobetxatu genduan.

Arakako kanpamentukik kilometro batera-edo, Mandojana erri koxkor bat zegoan: bi edo iru etxe eta eliza. Arabako sailletan era ortako errixkak askotxo dira.

Gu irurok ara joan giñan; eta, bertara irixtean, eliza ondoko baratza arresiz itxitako batean udare eder batzuk ikusi genituan, eta nik esan nien lagunei:

– Orain, zer dagoan ikusiz, or aurrera joango gaituk; eta gero, etxerakoan, illunabarraren babesean, udareak artuko dizkiagu.

Mandojana artatik aurrera jarraitu genion, eta beste errixka batera iritxi giñan. Izenaz ez naiz gogoratzen, baiña ura zerbait aundixeagoa zan: eliza eta zazpi bat etxe bazituan inguruan, eta taberna ere oso itxura ederrekoa.

Sartu giñan barrura eta zerbeza bana eskatu genituan. Mutil gazte batek serbitu zizkigun, eta gogoratzen naiz Oiartzungo Lekuonak nola galdetu zion:

– *¿Cuánto es?*

Baiña gu nola gure artean euskeraz ari giñan, arek ere euskeraz erantzun zion:

– Iru pezta.

Guk, arriturik, esan genion:

- Euskalduna al aiz?

- Bai -erantzun zigun-. Orain bi urte Antzuolatik etorri giñan, eta orain emen bizi gera.

Une artan, aita eta ama ere atera ziran sukaldetik, eta aitak nondarrak giñan galdetu zigun. Guk ere eman genion gure errietako berri, eta oso arreman onean sartu giñan.

Ura zan poza artu genduana, sendi euskaldun bat aurkitu genduanean! Euskal Erriaren barruan geunden; baiña ala ere guri iruditzen zitzaigun munduaren beste aldeko baztarrean geundela. Garaiak ere alakoak ziran; baiña gaur ere Araba inguruan ez da euskaldun geiegi aurkituko.

Ala, gurasoekin kontu kontan ari giñala, barrengo aldetik bi alaba agertu ziran, neska ederrak gaiñera. Asi giñan izketan eta galdetu genien:

- Igandetan Gasteiza joaten al zerate?

- Ez -erantzun ziguten-: egun berezietan bakarrik. Geienetan bertan gelditzen gera. Neska eta mutil ogei bat lagun nola osatzen geran, oso erromeri polita egiten degu.

Orduan guk esan genien:

- Zer soiñu daukazute?

- Emen gramola daukagu; eta, nai badezute, be-reala jarriko degu.

Ala, jarri zuten. Aldameneko neska eta mutil, zortzi bat sartu ziran tabernara, eta ekin zioten dantzan. Nere bi lagunak ere bai. Baiña ni nola dantza lotuan bein ere ibili gabea nintzan, aldamentetik begira nengoan.

Alako batean, bertako alaba aietako batek dantzan egitera beartu ninduan. Baiña pieza bakarra egin nuan. Ura izerdia atera nuana!

Gero, tarte batean, trikitixa jarri zuten, eta orduantxe leer gaizto egin arte ibili nintzan.

Guk geure garaian itzuli bearra gendukan; eta, abitzeko prestatu giñanean, nagusi-etxekoandreak itxogiteko esaten ziguten; alkarrekin apalduko genduala.

Esan genien:

– Gaur ezin gentzake. Lista pasatzeko ordurako joan bearra daukagu. Baiña biar bazkalondoan soiñu eta guzti etorriko gera.

Ura entzun zutenean, txoratzen gelditu ziran ango neska eta mutillak, urrengo egunerako pozean.

Taberna artako festa giroa utzi eta abitu giñanean, konturatu giñan berrogei minutu bakarrik genduzkala lista pasatzeko ordurako, eta bidean ordu erdi bat bear genduan gutxienez.

Len illunabarrean udareak artzekotan gelditu giñan; baiña orduan etzegoan artarako astirik. Bada ez bazan ere, korrika txikian igo giñan kanpamentura, eta ala ere sobre aundirik gabe. Baiña iritxi lista pasatzen asi baiño len, eta orrekin naikoa genduan.

Ango egin bearrak bete ondoren, *hogar*-era sartu eta aparti-merienda egin genduan; eta gero lagunak, neri adarra jotzearren, esaten zidaten:

– Orain postrerako an utzi ditugun udare aiek eduki bagenitu!

Ortan jardun ziran. Baiña kontu guziak alperrik. Udareak eta sagarrak jateko sasoi ederra bai guk orduan; baiña aiek apaizaren baratzen gelditu ziran, eta kito!

Larunbat illunabarra orrela bukatu genduan. Gero, geren txaboletan lo egin.

Igande goizean betiko martxan asi giñan. Lenengo, danok formatu; gero, ikurriña bere zuzta-

rrean zintzilikatu; ondoren, gosaldu; eta, jarraian, meza santua entzun.

Bazkaritarako ordura arte denbora pasako tartea izaten genduan, eta bitarte ori aprobe txatu bearrean gertatzen giñan, arratsalderako erromerirako lagun taldea osatu bearra baigendukan. Alaxe, soiñujole eta beste geuk maiteenak genituanak bildu arazi eta gure asmoen berri eman genienean, danak joateko amorratzen jarri ziran.

Ala, zortzikotea osatu giñanean, guk nola ango berri bagenekian, bazkalondoko martxa nola egingo genduan erabakita jarri giñan.

Agindu auek eman genizkien lagunei: danok batera abitzen bagiñan, zitekena zan sarjento xarren batek-edo kargu artzea. Orregatik, non alkartu tokia izendatu eta danok biñaka kanpamentutik ateratzea erabaki genduan; eta alaxe egin ere.

Izendatu genduan toki artara, ordubi t'erdietarako taldekide guztiak bilduta geunden. Andik aurrera danok batera jarraitu genion, erri artara iritxi arteko bideari.

Ia urbil samar jarri giñanean, soiñujoleak ekin zioten *bidekoa* edo *martxa* jotzen, eta gaiñontzekoak irrintzi eta oiuz; eta ango bizi-lagun guztiak leioetatik guri begira arritzen ikusten ziran. Ala ere, etzan izango Parisen aiñako jende pillarik; baiña guri arrera ura egitea bazan naikoa.

Bertara irixtean, sartu giñan tabernara; eta batzuek kafea artu genduan eta besteak zerbeza. Orrelaxe jarri giñan umore giro ederrenean.

Taberna artan, errian bertakoak sei-zazpi lagun egongo ziran, batzuk jokoan jo ta autsi eta besteak aldamenetik begira, orrelaxe igande bazkalondoko jolasaldia pasatzen.

Gu aruntza iritxi giñan taldea, geure giroan egon nai genduan, eta orregatik jokalaria aiengandik urrutiena zegon maian jarri giñan.

Bereala soiñujoleak ekin zioten euskal kanta eta bertso zaarren doiñuak jotzen: *Andre Madalen, Neskazar bat tentatzen* eta trikitixaren koplak ere bai.

Alako umorea gendukan eta tabernako nagusi-etxeakoandreak eta seme alabak, danak etorri ziran gure ingurura. Ixil-unean geunden tarte batean, tabernako nagusi arek galdetu zigun:

– Zuen artean ez al da bertsojaririk?

Eta taldeko norbaitek erantzun zion:

– Bai! Badauzkagu bi!

Ala bearrez, Ernaniko bat, *Zumeta* zala uste det, baiña ez nago seguru izenarekin; eta neroni nintzan bestea.

Kantatzeko eta kantatzeko erregutu zigun, aspaldian entzun gabe zegoala ta.

Bereala asi giñan. Soldaduskako bizimoduaren gaiñean zortziko nagusian egin genduan saio ura; eta urrengoan soiñujoleei esan nien nik santa eskeko kopletan egin bear genduala, eta bertso ba-koitzaren ondoren doiñu ura jotzeko.

Asi giñan. Baiña oraingoan nagusiarekin sartu eta gero alabetara aldatuz jarraitu genduan, tartean gaiñontzekoak *Dios te salve* kantatzen zutela.

Izugarrizko umorea zegoan gure artean. Ango oiua eta bertako etxeakoandreaken algarak alakoak ziran, une artan bere alabakiko tratuan ari baigiñan: sui jatorrak izan nai bazituzten, gurekin kontatzeko eta abar.

Bien bitartean, jokoan ari ziran aiek, naiz eta erdaldunak izan, guri begira arritzen zeuden, eta bertako nagusiari galdetu zioten, alain pozik egoteko ea

zer gertatzen zan. Ea kantu aiek al zuten alako grazia.

Orduan nagusiak esplikatu zien koplak eta bertsoak zuten berezitasuna; eta, gure giroa zergatik zan jakiñik, aiek ere konformeago gelditu ziran.

Egun artan kantatutako kopla aietatik, batzuk beti gogoan izan ditut, baiña danak eta gutxiagorik ere ez, saio aundia izan baizan.

Lertxundi:

Zuri alaba eskatutzeko  
au da une apraposa,  
aitak baietza emango balit  
nik artuko nuke poza.

Zumeta:

Onek bezela, nik ere aitari  
egingo diot eskea:  
nai bazenduke, orri bat eman,  
neretzat gorde bestea.

Lertxundi:

Zeure sendian nai badituzu  
sui jator eta santuak,  
aukera danak badaduzkazu,  
orain atera kontuak.

Zumeta:

Nagusi jauna, izango dezu  
oso sui pare noblia:  
nere laguna mutil ona da  
eta ni berriz obia.



Lertxundi:

Emen gelditu bearko degu  
ez tratu ta ez andregai:  
aitan baietzak ez du balio  
alabak ez badute nai.

Zumeta:

Zure alaba artuko nuke  
pozik neretzat andregai;  
maitetasunez izan bear du,  
derriorrean ez det nai.

Bertso giro artan ari giñala, asi ziran etortzen aldamenetako etxeetan bizi ziran neska-mutillak. Orduan, tabernaren ondoan artarako zeukaten es-talpera aldatu giñan, eta antxe egin genduan erro-meria. Batzuetan dantza lotuan eta tartean aska-tuan, zoragarritzko arratsaldea igaro genduan.

Bukatzeko garaia iritxi zanean, beste saio bat bertsotan egin genduan, nagusi eta etxekoei eske-rrak emanaz.

Taberna artan erromeria eta jolasaldia egin geni-tuan igande ura, zoragarria izan zan an bildu giñan gazte jendearentzat. Noizbait bukatu eta geure kan-pamentura abitzeko prestatu giñanean, tabernako sendi arek, eta gaiñerakoak ere bai, arren eta arren urrengo igandean ere berriro itzultzeko eskatu zigu-ten. Baita guk agindu ere, benetan gaiñera.

Baiña usteak erdia ustela izaten omen du, eta guri ere ala gertatu zitzaigun.

Urrengo egunean, astelenean bertan, asi bear izan genduan, maniobretara Soria aldera joateko prestaketak egiten, ez edozein moduzkoak gaiñera.

Gasteizko trenaren geltokian merkantzia aundi bat pronto jarria zeukaten, eta bertara eramaten asi giñan kañoi, antiareo, obus, ametralladora, tanke, kamioi eta bear ziran trepeta guztiak. Eta azkeneko orduan baita mando eta mulak ere.

Asteazken goizean abitu giñan Gasteiztik, danok bagoietan, abereak bezela.

Gure bagoi artan sarjento bat genduan buruzagi. Gu bezelaxe, bera ere gaztea; eta, militarra izateko, umore onekoa eta alaia oso. Berak galdetu zigun ez al zan iñor aoko soiñua, txistua edo olako zerbait jotzen zuanik.

Gurekin erromerian ibilitako aoko soiñua jotzen zuan ura gure artean zijoan, eta bereala asi zan jotzen, eta gaiñontzekoak kantatzen, zekitenak beintzat. Eta sasoi ortan, batzuk asi ezkerro, besteak ere aien babesean zarata benikan ateratzen dute.

Orrelaxe igaro genduan Gasteiztik Sala de los Infantes-era bitarte ura. Merkantzia zama izugarriarekin eta oso mantxo joan zan. Orregatik, ordu asko bear izan genituan bidean. Baiña alako nagusia gertatu zitzaigulako, konturatu gabe igaro genduan ain bide luzea.

Sala de los Infantes erri aundi samarra zan ordurako ere. Beste askoren proportzioan azi bada, gaur amabost milla biztanle edukiko ditu.

Erri orren inguruan jarri ziran militarren kanpamentuak. Amabost eguneko maniobrak izan genituan. Angoak bukatu eta berriro Gasteiza itzuli giñan.

Urrengo egunean, iru illabeterako izenean soldadu joanda geunden guztioi lizentzia eman ziguten. Guk ez genduan alakorik uste, naiz eta zurrumurru ura bazebillen gure artean.

Maniobretara irten giñanean, nere paixano erropak kuartelean, neretzako tokatu zitzaidan takillan,

giltzaz itxita utzi nituan. Baiña, itzuli nintzanean, takilla irikia eta barruan erroparik ez.

Militarren kaki jantzi aiekin etorri ezkeru, berriro aiek itzultzera joan bearra zegoan kuartelera. Nik, bada ez bada ere, ez nuan kuartelera azaldu nai.

Ala bearrez, Astigarragako Jesus Letek galtzak alkandora eta jertsea bazeduzkan sobrean. Ni baiño askozaz luzeagoa zan, eta ni aren erropak aundiegi neuzkan. Baiña, ala ere, neri etzidan ajolik, berriro joan bearrik gabe libratu nintzanean.

Aitatu genduan lagunartean len izandako tabernakoei itzuliko giñala agindutako kontua. Baiña orduan bakoitza bere etxera lenbailen irixtea zan amets bakarra. Baita egi biurtu ere.

---

## Arantzazura erromes

**S**oldaduskako egin bearrak bete genituanean, bukatutako agiria edo *licencia* eman ziguten, eta etxera oso pozik itzuli giñan, ala bearrez Santu Guzien bezperan gaiñera.

Negu ura etxe aldetik igaro nuan. Astean lana egin eta igande eta jaietan, errian edo auzoan erromeririk bazan, ni eta nere lagunak antxe izaten genduan gure biltokia.

Lenengo, dantza saio batzuk egin. Gero, gustokorik bazan, neska laguntzera joango giñan. Ondoren, berriro lengo lagunak errira biltzen giñanean, bazuetan afaldu egiten genduan.

Baiña ori etzegoan jaiero egiterik. Dirua urri xamar egoten baizan gure artean, eta patrikak agintzen zuan moduan ibiltzen giñan.

Bein baiño geiagotan gertatu giñan, batere apaldu gabe, kafea artu eta bertsoetan, umore ederrean gaiñera.

Gaur baiño jende alaiagoa izaten zan garai artan. Dirua eta aurrerapenak etorri ziran orduan asi zan gizona berekoitzen eta diruaren mende jartzen; eta lengo umore eta lasaitasunak orrelaxe joan ziran pikutara, eta ez det uste berriz etorriko zaizkigunik.

Soldaduskatik etorritako negu aldi ura orrelaxe igaro nuan; eta, beti bezela, neguaren ondoren etorri zan udaberria.

Garai artan luistarrak indarrean zeuden, Euskal Errian beintzat. Ala, asi ziran Gipuzkoako gaztediaren zuzendaritza zeramatenak, Arantzazun billera bat ospatzeko deiak egiten.

Nola udara ondoren Oñatitik Arantzazura gauez oiñezko ibillaldia jartzeko asmotan zeuden, artarako prestakuntza bat egin nai zutela. Baiña lenengo billera Arantzazun egitea komeniko zala; eta billera ura Pazkoa Espiritu Santu edo Pentekostes egunean jarri zuten.

Aiatik autobuskada bat gazte luistarrak joan giñan. Lenengo, meza santua eta gero itzaldiak, euskeraz eta erderaz: gaztediaren batasuna sortzeko, Oñatitik Arantzazura oiñez, otoitz eta kantua, ibillaldi ura jartzeko nola asmoa artua zeukaten; era artan alkartuz, frutu bikaiñak lortzeko ustea zeukatela, eta gaztediaren aldetik erantzun on baten itxaropenez zeudela.

- Gutxienez amar millarekin amets eginda gaude, eta amets ori egi biurtzea zuen eskuetan dago.

Orrelaxe jardun ziran gaztedia berotzen; eta jardun bakarrik ez, baita berotu ere. Garaia iritxi zanean, ala gertatu zan.

Elizako lanak bukatu ziranean, irten giñan, eta inguru dana jendez betea zegoan. Autobusa ere mordo baizan. Eta garai artan, ibillaldi aietakoa jartzen zanean, bazkaria bakoitzak berea eramaten zuan. Ez baizegoan oraingo konturik. Eta guk ere egun artan bakoitzak berea eraman genduan.

Arantzazun etzegoala patxarazko tokirik bazkaltzeko, eta Oñati aldera jetxi giñan, eta antxe lasai bazkaldu.

Gero, kafetegi batera sartu eta tokia ere lasaia

nola zegoan, danok taldeka jarri maietan eta, kafea artuz, batzuek txisteak kontatzen, besteak parrez eta beste batzuek jokoan egiñez, orrelaxe igaro genduan bazkalondo ura; jan ondoren gorputzak izaten duan makal-unea.

Atsedenaldi arekin ostera indarberriturik jarri giñanean, norabait andikan abitzea pentsatu genduan; eta, nora jo erabaki eziñik geundela, norbaiti gogoratu zitzaion Bergaran Pentekostesetan sekulako festak izaten zirala, eta bertara joan bear genduala.

Alaxe, autobusean sartu eta abitu giñan kantari, umore eder askoan. Berealaxe iritxi giñan zorioneko Bergarara.

Alako giro zoragarria eta alako jai sonatuak Bergaran izanik, jende asko ibiltzea gauza normala zan, eta alaxe zebillen gaiñera. Gu ere autobusetik jetxi eta txoferrak galdetu zuan:

- Zenbat denbora pasa bear degu emen?

Danen artean erabaki zan; eta, ordu t'erdira be-  
rriro danak autobusera biltzeko itza emanda, taldeka banatu giñan.

Ura zan jendearen emana! Bergara erri luzea da, eta guk ere baztarrak ikusi nai genituan. Baiña jende artean ezin ibili batera eta bestera.

Alaxe gabiltzala, kafetegi eder batean atarira eldu giñan. Gu dozen erdi bat lagun izango giñan taldean, eta izugarri toki ederra zegoan toldo azpi artan. Maiak eta aulkiak ere bazeuden utsikan guretzat ainbeste, eta bertan eseri giñan.

Alaxe, edariren batzuk artuz geundela, gazte talde bat agertu zan festa giroan; danak berdin jantziak, bat soiñu txikiarekin, beste bat panderoa joaz, beste bi edo iru txistulari... Aien saltoak eta irrintziak! Aien sasoi!

Ala zebiltzala, guregana inguratu ziran. Ni ez nintzan konturatzen, baiña soiñujolea bera akordatu zan, eta oiuka asi zitzaidan:

– Lertxundi!

Nik ere orduan ezagutu nuan. Len esan bezela, soldadu egon giñanean, Arabako erri koskor bateko tabernan, bi egunetan, erromeri bereziak egin genituan, eta soiñujole bat uraxe bera izan zan gurekin.

Ura laster gogoratu zan taberna artan egindako erromeriek; azkeneko igandean pasa genduan umorearekin batez ere.

Bereala asi zitzaidan, baiña neri bakarrik ez, baita nere lagunei ere:

– Orain dantza eta juerga puxka bat egin, eta gero alkarrekin apalduko diagu -esan zigun.

Baiña nik agertu nion zer eta nola gertatzen giñan, eta berak berriro ere:

– Baiña pena dek, bein juntatuko eta au ospatu gabe gelditu bearra!

Azkenean, etsi zuanean, ola esan zidan:

– Besterik ez bada ere, bertsoan egin bearko dek, ba!

Eraso zion soiñuarekin bertsoen doiñua jotzen, eta ez nuan beste erremediorik izan. Derrigor batzuk kantatu egin bear. Ez dakit dozen erdiren bat edo geixeago ziran, baiña kantatuta libratu nintzan.

Ala esan zidan:

– Berriz ere Arabako taberna artara joan bear diagu.

Baiña joatekotan gelditu giñan; ni, beintzat, bai.

Soldaduskako lagun soiñujolea eta bere taldearekin jolasaldi ura igaro eta aiek agurtu ondoren, itzuli giñan autobusaren ondora. Beste geienak ere inguratu ziran ordurako. Baiña, olako ibillaldietan

geienetan gertatzen dan bezela, iru lagun falta ziran gure talde ura osatzeko.

Antxe egon giñan, aiek azaltzen ez eta gaiñerako guztiak amorratzen. Geienez ere ogei bat minutu izango ziran, baiña guri oso luze egin zitzaizkigun. Izan ere, zai jartzen danean, minutua luze izaten da; eta guretzat ere ango denbora ura ala izan zan.

Noizbait ere azaldu ziran; eta, gaiñerakoak erritan asi ziranean, jarri zuten beren aldetik arrazoa ateratzeko aiña aitzaki: autobusa zein tokitan gelditu zan aztu edo, an jiraka zebiltzala, nastu egin zirala, eta argatik ainbeste denbora pasa zutela ura billatu eziñik.

Bearbada gezurra asmatuko zuten, baiña egia izatea ere litekena da, ezagutzen ez dan erri batean. Oso ondo artzen ez badira autobusa edo kotxea uzten dan tokiko ezaugarriak, gero komeri latzak gertatzen dira.

Neroni gertatu zait, bein ere izan gabeko erri batean illuntze aldean kotxea utzi, gero gauean billa asi eta iñun aurkitu ezin. Ia bi ordu bear izan nितuan kotxea billatzen. Ura gertatu zitzaidanean, pentsatu nuan Bergarako autobusa galduta ibili zirala esandako aiek, egitan jardunak izango zirala.

Alaxe izan zan gure Bergarako mezaren luzagarria. Noizbait danok osatu giñanean, berriro ere kantari abitu giñan, eta bidean ez giñan geiago iñun gelditu.

Aiara illunabarrarekin batera iritxi giñan. Egun zoragarria pasa genduan Arantzazu, Oñati eta Bergaran. Unerik gozoenak azkeneko geldialdi ortan izango genituan igaroak.

Nik, beintzat, bai. Soldaduskan jolasean ibilitako lagunarekin topo egitea suertea izan bainuan. Artean lizentziatu berriak izanik, bero-beroan ger-



tatu giñan; eta ala uste gabean alkartzea guretzat gauza aundia izan zan billera ura.

Arantzazura geroko gauezko ibillaldiak egiteko prestakuntzak egitera joandako egun ura zoragarria gertatu zitzaigun.

Gauezko Oñatitik Arantzazurako igoera aiek antolatzen zituztenean, erri guztietan deiak egingo zituztela agindu ziguten erakuntza artako zuzendari edo arduradunak; eta gu berrizko ere pozak txoratzten etxeratu giñan.

Oñatitik Arantzazurako gaua abuztuaren azkenengo larunbata jarri zuten; 30-garrena zala uste det. Aurretik deiak egin zituzten erri guztietara; Aiara ere bai.

Gu ere lasai xamar ibiliak izango giñan nunbait. Izan ere, gaur baiño aukera txikiagoa; eta, gu billa asi giñanerako, autobus danak beste errietako deiari aginduta zeuden, eta Aian bat ere gabe gelditu giñan. Ala bearrez, erriko mutil batek kotxe aundi bat bazeukan bederatzi plazakoa; eta Aiako luistarren lendakari eta zuzendaritzan ibiltzen giñan amar lagun kotxe artantxe joateko modua egin genduan.

Bestela danok batera joango giñanak, autobusaren arazoa zalako, gu errian bertakoak geure taldea geure aldetik, eta San Pedro auzokoak ere bai, gutira Aiatik ogei bat izango giñan, lenengo Arantzazurako gauezko igoera artan parte artu genduanak.

Egun artan gu illuntzeko zortzi t'erdietan irten giñan erritik. Gogoratzen naiz eguraldi bero zakar oietakoa zala; eta, Ormaiztegi aldera iritxi giñanean, bildurgarriko denboralea sartu zuala.

Ango tximista eta trumoia! Euria, berriz, bildurtzeko moduan. Kamio bazterretako kanterilla danak gaiñezkatu eta soroetatik beera lurra. Arri ale ba-

tzuk ere baziran. Andikan Zumarragara bitarte ura etzan izan motza.

Kupitzeko moduko gertaera ere ikusi genduan. Arratsaldean ibillaldiren bat egitera ateratako jendea trumona arek uste gabean arrapatu zuan; eta antxe ikusten ziran batzuk kamio ertzeko aritz zaarren baten azpian babestuta.

Alaxe ginjoazela, gizon bat bi ume koskorrekin, besoarekin gelditzeko egiñez.

Guk, berriz, tokatzen zan baiño bat geiago zijoan gure kotxean; eta, naiz pena ematen zuan aiek ala uztea denborale arekin, aurrera jarraitu genduan. Baiña puxka bat bidean jarraitu ta gero, gure txoferrak ala esan zigun:

– Gaizki egin diagu, bi ume koskorrekin zegoan gizon ura denborale onekin bide baztarrean uztea. Nola edo ala, aientzat ainbeste toki egingo giñean kotxe barruan.

Gero jardun giñan sentimentuzko kontuak esaten, baiña guztia alperrik. Bear zan garaian ez genien lagundu, eta geroko gure pena aiek etzioten laguntza aundirik emango.

Bidean ginjoazela, gure txofer ura etzan elizkoi amorratu oietakoa, eta ala esaten zigun:

– Ontara ezkerro, Oñatiraiño joango gaituk. Baiña gaur ez pentsatu iñor andik gora abituko danik. Praileak giro onekin gauezko ibillaldia egitera etziaztik. Oiek tontotik pixka izaten die!

Kontu oiek esaten jardun zan. Baiña, Oñatira irixterako, trumona ura pasa zuan, eta gero ateritan igotzeko zoria izan genduan. Arantzazuko Amak lagundu zigun bein eta berriz.

Lenago nion bezela, tximista, trumoi eta arri-jasa, bildurgarrizko denboralea bidean gertatu zitzaigun, eta aundien-aundiena Beasaindik Zuma-

rragara bitartean. Andik aurrera asi zan pixka bat arintzen; eta, Oñatira iritxi giñanerako, atertu egin zuan.

Amaiketan zan Oñatiko enparantzan biltzeko ordua; eta gu ere, sobre aundirik gabe, baiña ordurako eldu giñan.

Baiña ura komeria! Kotxea uzteko tokia nai eta iñun arkitu ezin. Baztar guztiak beteak zeuden ordurako. Ura jendearen emana!

Amaiak jo eta bereala, artarako tokiak prestuak zeuzkaten eta itzaldiak egiten asi ziran, garai artan zeuden onenak gaiñera: Aita Agirretxe prantziskotarra, On Manuel Olaizola apaiza. Seglarrak ere baziran beste bi gutxienez, baiña izenez nortzuk ziran esateko ez dakit.

Itzaldien bukaeran, batek eman zituan ibillaldi artan bete bearreko aginduak: jende guztia berdintsu banatuta joan bear genduala prozesioan; ez une batean multzo aundia eta gero etena; alkarrekin itzegin gabe eta errespetoz.

Agindu oiek artu ondoren, abitu giñan Oñatitik gora, eta ondo antolatua zeukaten, talde osoa, aurre, atze eta erdiko, danak alkarrekin arremana izan zezaten.

Aurreko muturrean mutil bat antenna bizkarrean zuala; beste batzuek altabozak bizkarrean zituztela; eta, orrelaxe, aurretik atzeraiño bitarte guztia antenna eta altaboz; eta, gaiñera, bi ertzetako jendeak eskuarekin eutsiz, kable edo ari luze bat, danak ondo entzun zezaten.

Bidean gora errosarioa errezatuz abitu giñan, eta gertakari bakoitzaren bukaeran abesti gozorik abestu genduan.

Gaiñera, aitortu nai zuanak, apaiza eta praillea asko zan, eta jende artean banatuak zeuden propio. Inguratzen zitzaionari, apaizak besoa lepo gaiñetik

luzatuz eltzen zion, eta orrela egiten zuan, nai zuanak, aitortza.

Baiña nola artarako oiturarik etzeukan jendeak, bildurri edo lotsati xamar badakit arko txo gertatu zirala. Gauza orrekin konturatu omen ziran apaizak ere, eta urrengo urterako aitortza mota ura kendu egin zuten,

Bidean gora ginjoazela, puxka bat inguratu giñanean, aldamenetako aitz tontor aundi enen gaillurrean izugarriko suak agertu ziran. Gaua ain illuna eta alako suak ikusteak, neri beintzat barruan alako zirrara bat sortu zidan; eta geiagori ere alaxe entzun nien, Arantzazuko Amaren sorrera ura berrituko balitz bezela. Gizonak izaten ditu une bereziak bere bitizan, eta orduan ere alako zerbait gertatu zitzaigun.

Arantzazura goizeko iru t'erdia aldera iritxi giñan. Eliza aundia dana goi eta be gaiñezka, eta beste mordo bat kanpoan. Olaxe meza entzun genduan.

Meza denbora ura naiko luze egin zitzaigun. Iru bat ordu igaro genituan bidean, eta ango nekearen zama ura gaiñean genduala eliza epelean jarri giñanean, eta goizaldeko ordurik txarrenak gaiñera, derrigor loari eutsi eziñik gertatu bear. Eta eutsi eziñik bakarrik ez. Nik ere saio batzuk egin nituan lotan, eta beste geienak ere tentatuko zituan.

Baiña ura etzan utsegite aundia, nere ustez, naiz erdi lotan egon. Gaztedi ura bere aurrean ala ikusita, pozik egongo zala pentsatzen det Arantzazuko Ama.

Mezaren amaieran, *Arantzazuko Ama Birjiña*, zeruko erregin aundia abestuz irten giñan elizatik.

Kotxezalea alako batean arkitu genduan, eta be realaxe abitu giñan beeraka. Baiña andik Oñatira jextea ederki kosta zitzaigun. Len been gelditu zi-

ran autobus mordoa orduantxe nola gora zijoazten, eta bidea berriz gaurko aldean estua eta txarra; eta, batzuk gora eta besteak beera, alkarri tokia egin eziñik pasa genduan makiña bat denbora. Noizbait ere bide korapillotsu ura igaro genduanean, ez giñan asarre.

Oñatin gelditu gabe, aurrera jarraitu genduan. Zumarragara irixtean, kafetegia eta pasteleria, biak zeuzkan ostatu batean gosaldtu eta aurrera berriz ere; eta Aiara iritxi arte geiago ez giñan inñun gelditu. Goizeko zortzi t'erdia aldean izango giñan erriko plazan kotxetik jetxi eta bakoitza bere aldera banatuak.

Egun artan neuri gertatutako gauza batekin gogoratzen naiz. Garai artan ere, gaur bizi naizen Laurgaingo eremu ontan nuan nere ogibidea. Ordu-rako ere basozaiña nintzan. Igande eta jai-egunetan serbitzua egiten genduan, eta orduan ere zuzenean jo nuan Laurgaiña.

Irten nintzan mendira eta, ibillaldi bat egin ondoren, pago baten azpian goroldio ederra zegoan eta antxe etzanda jarri pixka bat atsedentzeko asmotan.

Jarri banintzan jarri! Nonbait segituan lo artua izango nintzan. Amar t'erdia aldea izango zan an etzan nintzanean; eta, urrena esnatu nintzaneerako, ordubiak ziran.

Ni lotan nengoan bitartean, Arantzazuko Ama Birjiñak zainduak izango zituan Laurgaingo baso eta mendiak. Egun artan beintzat etzan ezeren okerrrik gertatu.

Ara zer izaten dan nekearen ondorena. Nekeak neke. Nik beintzat bapo erremeditu nuan egun artan. Gero, gauzak ondo atera zitzaizkidala ikusi nuanean, eskertu nuan Arantzazuko Ama.

Oñatitik Arantzazura, gauezko aibillaldi aietara, beste bi urte jarraian joan giñan Aiatik; eta urte ba-

koitzean, autobusa mutillez bete-bete eginda joateko modua lortu genduan.

Ango bidea otoitz eta zerutar albiste gozoz mingaiña dantzatzen genduan bitartean, konturatzerako igaro eta goizaldeko orduetan Arantzazuko eliza aundira irixten giñan.

An meza santua entzun, amaieran Jauna artu, *Arantzazuko Ama Birjiña, zeruko erregin aundia* abestuz gure Amatxo eta praileak agurtu, eta berriro etxera. Orrelaxe ospatu genituan Arantzazurekiko arremanak.

Nik parte artu nuan iru urte aiek, jende aldetik berdintsuak izan zirala esan bear. Eratzailleak asiera artan arrakasta aundia lortu zuten. Baiña zuzendaritzan zebiltzan aiek uste zuten aldean, urte gutxian iraun zuan.

Mutillen gauezko ibillaldi ura txepeltzen asi zanean, zerbaiten berrikuntza eman nairikan, Mariaren Alaba eta emakumezkoekin egunezko igoera jartzen asi ziran. Baiña etzuan indar aundirik artzeko suerterik izan.

Nola, bada? Mutillekin ain azkar artu zuten egintzari eutsi eziñik gelditu baziran, neskekin etzegoan zer egiñik. Baiña gauzaren berri ondoena proatuta jakiten da, eta eratzaille aiek ere jakin zuten.

Nik uste det, ibillaldi aiek ain azkar porrot egiteko arrazoi ura, beste zerbaiten eragiñak lagunduta iritxi zala. Seguru asko arrazoi onengatik: Luistar eta Mariaren Alabak, garai artarako, len izan zuten indar eta berotasun ura aultzen eta oztutzen asia zegoalako. Oso indartsu asi baziran ere, orregatik sortu zala Oñatitik Arantzazurako ibillaldi aien uste gabeko amaiera.

Era ortako jaialdi edo antzeko gauza batzuk, iñoiz poliki-poliki asi eta txuspertzen dijoazela, izugarrizko indarra artzera irixten dira. Beste batzuk,

berriz, alderantziz: bat-batean indarrean asten dira; baiña, giroak lagundu ez diolako-edo, berealaxe su indartsu ura itzali zorian gelditzen da, eta azkenean itzali.

Orrelako jaialdi edo gauza batzuk antolatzen asteak berekin du arriskua. Joko batean dirua jokatzea bezela da. Ez daki inork aurretik gauzak nola aterako zaizkion eta zer erantzun izango duten.

Baiña orrelako jaialdi eta antzeko gauzak antolatzen asteko adorea duanak, txaloak merezi ditu. Gaizki aterako dan bildurrarekin ezer egin gabe dagoan arek, ez dio erriari bultzada aundirik emango.

---

## Aiako Euskal Festak

Aian, 1957 urtean, luistarren erakunde edo Kongregazioa artean indarrean zegoan. Ala bearez, orduan neroni nengoan lendakari.

Pentsatu genduan, nola neska eta mutil gazte jende ugaria zegoan, erri giroko festa eder bat jar-tzea; eta ospe geiagorekin ospatzearren, *Euskal Festa* izenarekin bataiatu genduan.


Iñungo diru laguntzarikan etzegoan garai artan. Nola edo ala, gazte jendearen artean moldatu bearra zegoan; eta, geure gisa gauzak prestatuz, iritxi giñan lenengo euskal festa ura ospatzera.

San Luis eguna urte artan ostiralean gertatu zan; baiña urrengo igandean jarri genduan festa egun ura,

Era ontan izan zan ospakizuna: goizeko amarretan, kalejira; amaiketan, meza nagusia, bertan luis-tar eta Mariaren Alabak jaunartzea zutela; meza ondoren, erriko enparantzan, aurrekua; gero, bertako mutillen artean aizkol apustua; ondoren, Joxe Antonio Arruti eta nik bertso saio bat, eguerdiko jaialdiari amaiera emanaz; eta, jarraian, guk talde eder batekin Juaneko ostatuan bazkaria.

Arratsaldean, lendabiziko, neska eta mutil mordo





*Aiako euskal festa batean, antolakuntzan jardundako gazteak.*

bat sozio giñala, kalejira zoragarri bat egin genduan. Gero, mojetako aretoan, antzerki bat; eta aren amaieran lengo bikoteak beste bertso saio batekin angoa bukatu. Ondoren, erriko enparantzan, erromeria gaueko amar t'erdiak arte.

Lenengo euskal festa ura orrelaxe amaitu genduan, aurretik lan asko eginda; eta egun artan ere, buruauste eta abar, asko nekatuta. Baiña bestela zoragarria izan zan lenbiziko jaialdi arek eman zigun esperientzi ura.

Danak ondo gertatu zitzaizkigun: eguraldi ona, egitarau guztia ondo atera, jendearen erantzuna berdin gabea, iñork min artu edo alako suerte txarrik ere ez... Eta egun artan ikusi zan gauzarik aundiena eta pozgarriena: gaztediaren batasuna.

Aretxek arritu ninduan geiena. Lenago eliz billera eta alako gauzetatik igeska eta urruti antxean ibiltzen ziranak ere, ospakizun aietarako egin bear ziran prestakuntzetan laguntzeko borondatetsu agertu ziran, eta erri batean gauza ori lortzea ez da auntzaren gau erdiko eztula.

Ori izan zan egun arek eman zuan emaitzik ederrrena; eta urrengo urtean berriro antolatzen asteko adorea eta kemena eman zizkigun. Ikusiko degu aurreragoan nolakoak izan ziran urrengo euskal festak.

1958-an jarri genduan bigarren *Euskal Festa*. Urte artan larunbatean gertatu zan San Luis eguna, baiña igandean ospatu genduan.

Lenengo urteko antolakuntza arek asko erakutsi zigun; eta, lenbizikoan baiño gastubidea ere aundia goa nola zan, diru biltzeko zerbait pentsatu bearrean arkitzen giñan, eta erriko tabernetan suskriizioa jarri genduan.

Juaneneko tabernan, Joxe Mari izeneko mutilzar batek ogei duro jarri zituan; eta beste mutilzar bat,



*Aiako festetan.*

Lorentxo izena zuana, Joxe Mari aren kontrario amorratua, batenbatek esan omen zion besteak zenbat diru jarri zuan, eta, ura austeagatik, berak berrogei duro jarri zituan.

Berriz ere Joxe Marik, Lorentxorena ikusi zuanean, beste berrogei jarri eta autsi egin zuan len besteak zeukan diru kopurua.

Jendea berriz ere aldamenetik zirrikaka, eta azkeneko jarrialdia Lorentxok egiña izan zan. Irurogei ta amar duro osatu arte jarri zuan, eta bestea etzan geiago etorri.

Bosteun da berrogei t'amar peztako altxorra utzi ziguten bien artean, eta orduan kopuru ura diru asko zan. Asarrea gauza txarra dala esaten da, eta alaxe da izan ere. Baiña bi mutilzar aien arteko asarreak guri mesede ederra egin zigun. Esaera zarra da danerako gaizki etortzen dan gauzarik ez dala izaten, eta guretzat ere alaxe gertatu zan.

Jaialdi artarako oso ondo prestatu giñan: lau aizkolari, Laurgaiñen basoan ari ziranak, Aratz-erreakoak; arri jasotzen, berriz, Aiako Manterola, garai artako txapelduna; Errenteriko txistulariak; soiñujolea, Rafael Bereziartua, len esan bezela, berez Adunako semea, baiña orduan Errenterin erlojero lana egiñez bizi zana; bertsolariak, Uztapide eta Joxe Lizaso.

Goizeko seiretarako asi giñan gazte mordo bat festetarako jartzen diran zinta oietakoekin plaza eta kaleak apaintzen, eta gauza guztiak pronto jartzen. Ura egin genduanean, gosaldu.

Ordurako txistulariak eta soiñujolea etorriak nola zeuden, kalejira egiten ekin zioten. Aiekin batera, ume mordo bat, *buru aundiak* tartean zirala. Mutil sasoiko batzuk bide erakutsi eta su-ziriak jaurtiaz, eta beste batzuk kanpantorrera igo eta

kanpaiak jotzen, erria alaitasunez gainezkatu genduan.

Gero, meza nagusia; eta bertan Zumaiako abesbatzak bete zuan koruko eginkizuna. Meza ondoren, dantzari txikiak; gero, aizkolariak; eta ondoren, Manterolaren bi saio.

Lenengoa iru minutukoa. Atsedenaldi bat artu ondoren, minutuko ekinaldi bat egin zuan, amar arruako arri kubikoarekin, eta amar aldiz jaso zuan. Marka aundia zan garai artarako, naiz eta andik onera gauzak aldatu diran.

Orrek berea bukatu zuanean, bertsolarien saioa, eta ondoren bazkaltzera.

Era ontan banatu giñan bazkal tokietara: aizkolari, txistulari eta soiñujolea, Kanuane erretokira; eta arrijasotzaillea, bere laguntzailleak, bertsolariak eta luistarretan zuzendaritzan geunden taldea, ogei ta bost lagun guzira, bazkaldu genduan umore ederrean Juaneneko ostatuan.

Kafea artuta jarri giñanean, neroni ere sasoi antxean nengoan ordurako; eta, arratsaldeko ospakizunak egiten asteko garaia nola iritxia zegoan, eta bertsolariak berriz oso patxaran nola zeuden, neronek eman nion asera bertsoetan, nerea entzun eta besteak asi zitezen.

Lertxundi:

Bere bidea orain emanaz  
zuzendaritza arazoi,  
auek lanean jarri aztea  
nik ez al daukat arrazoi?  
Nik bertsoetan eduki banu  
garai baten bezin sasoi,  
oso lan txarrak emango nizken  
Uztapide ta Lizasoi.

Uztapide:

Uste gabean bat asi zaigu  
maiburutik deadarka,  
ta erantzuna osatu bear  
estuka eta indarka.  
Onek guztia txukun-egoki  
eta ni berriz baldarka,  
guk izena ta ori nagusi  
emen pasako dek marka.

Lertxundi:

Entenditzeko aiña esan dit  
Uztapidek lengo ortan,  
bertsotan ere gutxi jarduna  
bainago aspaldi ontan.  
Oinbeste ere naikoa badet  
debalde egitekotan,  
ni ixiltzera nijoa eta  
zuek jarraitu bertsotan.

Uztapidek:

Al duan danak kantatutzen du  
bertsoa bertsoan orde,  
itxura batez zuk egin dezu  
bildurti edo kobarde.  
Lana pixkana partitu eta  
danontzat genduan obe,  
onek egin dik arria tira  
ta berak eskua gorde.

Gero, jarraian, Uztapide eta Lizasok bazkaldon-  
doko giro artan saio bat egin zuten, eta ondoren pla-  
zan aurkezteko gendukan egitarauarekin asi giñan.

Lenengo, txistulari, soiñujole, *buru aundi* eta bertara bildutako jende guztia partaide zalarik, kalejira zoragarri bat egin genduan.

Ondoren, dantzari txikien saioa; gero, asto-karrera; eta, ango komeri guztiak ospatu eta erromeria asterako, bertsolarien azkenengo saioa iritxi zan.

Eguraldia ere oso ederra zan. Jaialdia, berriz, nola arrakasta aundiakoa gertatu zan, plaza dana jendez betea zegoan; eta, olakoetan oi dan bezela, gaztea geiena.

Asi ziran bi bertsolariak. Garai artan bertso gosea ere orain baiño aundiagoa zegoan, eta jende guztia ixil-ixilik, naiz eta plaza libreza izan.

Asi ziran alkarri zirika; eta, orrela ari zirala, gaztediaren edertasun aren gainean sartu ziran beren bertso-gaian. Orain ondoren datozen bertso auek, orduan kantatutakoak dira:

Uztapide:

Zeiñen gaztedi jatorra Aian  
nola mutil ala neska!  
Eztago emen enteratzeko  
asi bearrik galdezka.  
Alkarturikan prestatu dute  
gaur izugarrizko festa,  
au baiño gauza ederragorik  
mundu ontan ezer ezta.

Lizaso:

Gaur Uztapidek gaztediari  
azkar bota dio begi,  
luistar auek bide txarrari  
eman diote arpegi.

Era ontantxe aurrera ere  
bizitza osoan segi,  
alare azken ordu aretan  
ezta izango geiegi.

Uztapide:

Ispillutzat or gelditutzen da  
luistar auen egintza,  
jatortasunez baidaramate  
mundu ontako bizitza.  
Guztiok alkar besarkatuaz  
zorioneko dabilta,  
naiago nuan neronek ere  
luistar egon banintza.

Lizaso:

Luistar zala Uztapide au  
nik ezagutu nuan da,  
lenago nola bukatu zuan  
aztuta egongo al da?  
Zuzendariak damutu gabe  
gero denbora joanda,  
zinta berririk ez eman oni  
lengoa galdu zuan da.

Egun artakoa, erromeri jator eder batekin, bere garaia iritxi zanean, amaitu genduan. Auzoetatik bildu zan jendea ere txoratzen, eta berriz ere jar-zeko esanez.

Gaztedi osoa ain alkartua ikusi eta geroni ere, jai erakuntzako zuzendaritzan ibili giñanak, zein pozik gelditu giñan agertzeko, ez dago itzik asmatzerik. Ain izan genduan egun zoragarria.

“Bigarrena ezkerro, irugarrena seguru”. Orrela da



gure artean esateko oitura. Gertatu ere askotan egiten zan gauza izango zan. Bestela, etzan esaera ori sortuko.

Gure lengo bi urteetako euskal festa izenekoak, eta izanez ere bai, euskal kutsu berezia izan zuten. Olako errietan egiten diranak baidira benetako euskal festak. Baiña gutxienez erdia belarrimotza, eta, oituraren indarra bolaran dagoalako, euskal erara jantzi eta besteekin batean kalez kale ibiliarekin bakarrik, ez dira betetzen, olako egun batek bere egitazko maillara irixteko bear lituzkean neurri edo araudiak.

Orregatik, aurreko bi urteetan ospatu genituan euskal jai aietarako erriaren aldetik ain arrera ona ikusita, irugarren urtean berriro antolatu genduan.

Urte artan igandean gertatu zan San Luis eguna, eta egun berean gure zaindaria gertatzeak ere, jaialdiari ematen zion alako osotasun bat.

Giroa ain gendukan beroa gaztediaren artean; eta eguraldia, berriz, ain ona ikusirik, oso goiz asi giñan plaza eta erri inguru guztia apaintzen.

Errenteriko txistulariak eta Rafael Bereziartua genituan alaitzaille, aurreko urtean bezela. Zumaiako *San Pedro* eliz-abetesbatza, meza nagusia kantatu eta arratsaldean mojen konbentuan abesti emanaldi bat egiteko. Mezetako itzaldia egitera bereziki ekarria, On Jose Maria Agirrebalzategi, Oñatiko erretorea. Bertsolariak, Uztapide eta Mitxelena. Aizkolariak ere baziran, bertako bi beste bi basomutillan aurka.

Berdin gabeko eguraldia gertatu zitzaigun; eta amarrak aldean kalejira alai batekin piztu genduan egun guztiko euskal festaren zuzia. Jarraian, meza nagusia. Koruko lanak Zumaiako abes-batzak egin zituan. Itzaldia, Agirrebalzategik. Meza ondoren, dantzariak. Jarraian, aizkolariak. Eta, eguardi ar-

teko saioari amaiera emateko, bertsolarien kanta-aldia. Gero, bazkaria.

Aurreko urtean bezela, Juanene ostatuan genduan bertsolariak eta beste gazte talde batek. Bazkalondoan bertso-saio bat egin zuten; eta, garaia eldu zanean, plazan txistulari, soiñujole, bertsolari eta neska ta mutil talde aundi bat osatu giñanean, soiñujole aiek bidekoa edo martxa joaz, eta gu aiekin batean, goiko mojen aretora.

Orduan gu joan giñan baiño gustorago, munduan etzegoan gizakirik.

Ura barrengo poza eta gozamina! Mojen konbentura iritxi eta barrura sartu eta bereala, antzerki bat eskeiñi ziguten, motxa, baiña oso polita. Etzan sentimentuz eta negarrez egoteko oietakoa. Zearo alde-rantziz gertatu zan orduan eskeiñi zuten antzerkia. Aretoa jendez bete-betea zegoan, eta danak parrez lertzen denbora guztian jardun ziran, ni jardun nintzan bezelaxe.

Erriko talde batek antzeztu zuan. Garai artan, gaur baiño sarriagotan antzerkiak egiten ziran, batez ere garizuma garaian. Eta ortan ere, sarritan ari dan taldea jarri egiten da. Jendearen aurrean oitu, eta ikasi ere bai. Eta bi gauza oiek oso garrantzi-suak izaten dira.

Antzerkia bukatu zanean, areto artako jaialdian bi gauza falta ziran. Lenengoa, txistularien ereserkia. Eta, aiek beren saioa amaitu zutenean, bertsolariak prest zeuden asteko.

Agirrebalzategi apaiza bertsozale amorratua zalarik, berak jarri zizkien gaiak. Gipuzkoako txapelketaren azkena edo finala ospatu berria zegoan Eibarren: Uztapide aurrena eta Mitxelena bigarren. Ori izan zan orduko emaitza. Eta apaiz arek bi bertsolarien aurkezpena itz neurtuetan egin zuan:

– Orain egingo det aurkezpena,  
bikote aundi batena:  
bat Gipuzkoan leena,  
eta bestea bigarrena,  
Uztapide eta Mitxelena.

Biak ere sasoi betean zeuden, eta oso saio ederra egin zuten. Txistulariak, atrillaren gainean paperak jarri eta andik letuz jardunak ziran; eta ondoren datozen bi bertso auek, ori gai artuta kantatuak dira. Egun artan gauza askori arreta jarri bear eta besterik ez nuan ikasi.

Uztapide:

Txistularitik bertsoalarira  
gaur alde aundia dabil,  
guri etzaizkigu aterako  
aueri bezin borobil.  
Oiek paperatikan letuaz,  
gainera berenez abil,  
eta gu berriz erdi tontoak  
ez papera ta ez atril.

Mitxelena:

Soiñu alaiak ateratzen or  
jardunak lau txistulari,  
ta amaitzean entzule danak  
jo dute txalo ugari.  
Au inbiritan oiek zeuzkaten  
atril eta paperari,  
oiek alperrik jarritzea dek  
letzen ez dakianari.

Areto artako saioa amaitu zanean, danok erriko enparantzara jetxi giñan, soiñujoleak bidekoa joaz, eta gazte jendea saltoka eta oiuka.

Berriro gazte eta zar enparantzan bildu giñanean, orduan egin zuten bertsolariak egun artako azken saioa.

Ondoren, erromeri eder eta jator batekin eman genion irugarren urteko euskal festari amaiera.

Urte aietan jaialdiak antolatzen ibili giñan taldekideak, egun artakoa bukatu zanean, ala esan genion alkarri:

– Geiago ez diagu ezagutuko Aian, iru urte aue-tan bezelako euskal festarik.

Naiago nuan nik gure orduko uste ura oker ateratzea. Baiña, zoritxarrez, ala gertatu zan. Ala ere, oraindik badago denbora, eta esperantza ere bai.

Iru urte aietan, euskal festak antolatzen ibili giñanak, oso pozik gelditu giñan, guk egin genituan, lan, neke eta buruauste aiek ordaiñetan utzi ziguten emaitza berdin gabe arekin: guk asi giñanean uste genduan aldean, gauzak askozaz obeto atera zitzaizkigun; erriaren erantzuna ezin obea; eguraldiaren aldetik, aukerakoak; gaztediaren batasuna eta borondatea, gaudituz eziñezkoak; diru aldetik ere, aseran naiko larri bagiñan, baiña nola edo ala zor guztiak ordaintzeko modua egin genduan.

Azkeneko jaialdia amaitzean esan det lenago zein-ñen pozik alkar agurtuz banatu giñan bakoitza bere etxe aldera.

Ondorengo egun batean berriro bildu bearra gendukan kontuak zuzentzera, eta geiago egin bear zan edo ez erabaki bat artzera. Egin genduan billera ura. Zor-artzekoak danak garbitu eta zertxobait sobratu egin zan gaiñera.

Baiña berrizkoari bildurra artu genion: gastuak ere aunditzen; jendea ere, gauza sarri jartzen asi ez-

kero, aspertzen joaten da; gaiñera, lengoak ain ondo atera eta urrengoa kaskar samarra gertatu ezker, len egindako on guztiak aztuta, jendea gaizki esaka asteko arriskua ere nola zegoan, uztea erabaki genduan.

Orrelako lanetan ibiltzeko, gaztetasun betean egon bear dute zuzendaritzan dabiltzan aiek ere; eta aurreko muturrean genbiltzan iru bat beintzat, gure bizimoduan serio pentsatzen asita geunden. Ni andik bi urte ingurura ezkondu nintzan; eta Juan Mari taldekidea ere berealaxe.

Ondoren. luistarren lendakari Joxe Mari Iturain jarri zan. Eta Agustin organista ere, orrelako jaialdiak jartzea asko gustatzen zitzaiona zan. Orduan ere baziran amar bat laguneko taldea. Izenez zein ziran ez naiz oroitzen, eta barkatu dezatela eskatzen diet nere oroimen motela.




*Aiako festetan.*

Ni ezkondu nintzan urtean eta urrengoan, bi jaialdi jarri zituzten. Angiozarko itxua ekarri zuten soiñujole. Oso erromeri ederrak egin zituzten. Gazte taldea soiñujolearekin Juaneneko ostatuan jarri zuten bazkaria.

Neroni ere bi urte aietan partaide izan nintzan. Angiozarko itxuak (G. B.), oso bertsozalea zalarik, ni ezagutzen ninduan lenagotik, eta bakalondoan bertso eske asi zitzaidan; eta, neroni ere oso aldarte onean nola nengoan, bertso mordoa kantatu nuan. Bukatu nuanean, ala esan zidan itxuak:

– Eskerrik asko, Joxe Mari. Nik iru bertso eskatu eta zuk amar baiño geiago kantatu. Ikusten det ezkontzeak mesede aundia egin dizula.

Orrelaxe izan ziran Aian jarri ziran era ortako bi jaialdiak. Euskal festa bezela etzuten lenengo iru aien maillarik. Baiña erromeri bezela oso ederrak izan zirala esan bear.



*Laurgain.*

---

## Laurgain

**A**iako erriak biztanle gutxi ditu, baiña lur saillez Gipuzkoako aundiienen artean sartzen da; eta, ain zabala izanik, zazpi auzotan banatua dago, eta auzo bakoitzean eliza edo ermita bat dauka.

Garai batean apaiz-etxeak eta seroretegiak dantetan izango ziran. Gaur toki batzuetan ezkutatuak daude, naiz eta orma kondarrak ikusten diran. Baiña oraindik sei auzotan igande eta jai egunetan meza santua ematen dute; eta jaieroko ospakizuna egiten duten tokiak auek dira: San Pedro, Santiago, Laurgain, Elkano, Urdaneta eta Alzola.

Iturriotzen, San Juan bertako zaindaria danez, egun artan eta biaramonean meza izaten da, eta urtearen buruan beste egun berezi batzuetan ere bai; eta garizumako arratsalde guztietan gurutz-bidea, eta eliza bete jende izaten da gaiñera.

Zazpi auzotan erria banatua izango zan, inguru aietako baserriak eliz-lan eta erromeri-billerak egiteko erosoago izan zitzaten.

Garai batean, orain dala irurogei urtetik asi eta ogei ta bost bat urtera bitarte ortan, eta lenagoko garaietan zer esanik ez, auzo guztiak ziran festa toki berdin gabeak.



Batzuek oraindik ere beren zaindarien egun oietan indarrean jarraitzen diote. Iturriotzen San Juan eta San Juan Txiki jaietan jende asko biltzen da; San Pedron, Santion, Elkanon eta Urdanetan ere bai. Altzolan ere San Roman egunez, bertan ain jende gutxi bizi dan arren, andik kanpora joanda bizi diranak geienbat jende mordoa biltzen da.

Zalantzarik gabe, geiena galdu duana Laurgaingo auzoa da, eta ikusi dezagun zer aldakuntza egin duan.

Nere garaian ere bai, baiña lenagoko istoriak esaten dutenez, Laurgaingo auzoa zan Aiako erriak zuan bereziena. Erri koskor bat bezela zan: eliza aundia, il-erria ere bai, apaiz-etxe ederra, serore-etxea zer esanik ez, elizpean aterpe ona, plaza ere oso polita, eta zerbait beeraxeago arrizko jauregi aundi bat. Danak ez, baiña Laurgaingo baserri geienak nola Lardizabal-enak ziran, jaun orrena zan jauregia ere.

Laurgaingo festak San Miel egunean asten ziran. Bertan apaiz bat egoten zan, eta gero Aiako erreto-rea, eta Altzola eta Urdanetako apaizak ere bai. Danak bildu eta meza nagusia ematen zuten. Aiako txistulariak ere bertan izaten ziran.

Altzola, Urdaneta eta Laurgain, iru auzo oiek nola nagusi bana zituzten, bazituzten beren artean lotura edo arremán bereziak. Auzo bakoitzean urtero baserri bati kargu bat ematen zioten, eta kargu orren izena *maiordomoa* zan, eta eliz lanetan ere parte artu bear izaten zuten.

San Miel eguneko meza nagusietan zazpi eske egiten omen zituzten elizan: iru auzoetako *maiordomoak* lenbizi, eta ondoren bertako beste lau aterazten omen ziran.

Eske aren zergatia edo arrazoia ez dakit zer izango zan; baiña jendeak dirua bota nai bazuan, aukeraren faltan etzan iñor geldituko.

San Miel egunez meza nagusi ura aundikiro ospatu eta ondoren, danak plazara irten eta erromeria asten zan; trikitixa jo eta jendea dantzan.

Alaxe saio bat egin ondoren, eguerdiko festa saioari amaiera emateko, aureskua ateratzen zuten; eta geienetan dantzatzen zuana kanpoko; Aia aldeko edo beste auzoren batekoa.

Egun ura nola konbidatuen eguna izaten zan, aureskua ateratzen zuan mutil arek zein neska eramaten zuan dantza aurrera, gero baserri artara mutil ura bazkaltzera eramaten omen zuten.

Urte artan zein etxetan *maiordomoa* gertatzen zan, Urdaneta eta Altzolatik etorritako *maiordomoak* eta Aiako txistulariak ere, danak baserri artara bazkaltzera gonbidatzen omen zituzten.


Orrelakoxe oiturak izan ziran Laurgaingo auzoan, eta urte askoan gaiñera. Baiña, gauza guztiei bezela, aiei ere amaitzeko ordua iritxi zitzaien; eta gaur leen igarotakoak kontatu bear, ondorengoak aurreko oituren berri jakin dezaten.

Laurgaingo auzoa garai batean aundia zan. Nagusiaren jauregia, apaiz-etxea, seroretegia eta gaiñerako baserri guztiak kontatu eta baziran ogei ta amasei etxe.

Irureun biztanle ere etziran urruti izango; eta garai artan, bertako zaar eta gazte eta gonbidatuen artean, jende mordo aundia biltzen zan, eta erromeri itxurazkoa egiteko ori gauza bearrezkoa izaten da.

Orduan zegoan umorearekin gaiñera, pentsatu besterik ez dago nolako festak egingo zituzten.

Garai bateko Laurgain, Pagoetako gallurretik asi eta Orioko barrako itxas-ertzeraiño irixten zan. Pagoetaren magalean dago Sagastizabal baserria, eta Orioko barraren ondoan Oribar-zaar baserria, bi bizitzakoa gaiñera.



*Laurgaingo erroneria.*

Gero, Laurgaingo auzoa bi puska egin zan. Bee aldean bizi ziranak, eliz lanetarako Orio erosoago zeukatela eta asi ziran aruntza elizaz aldatzeko eske. Aiako erretoreak baimena eman omen zien, eta geroztik amairu baserri eliza kontu eta festa giroan Oriora joaten dira.

Laurgain orrelaxe asi zan pixkana-pixkana indarra galtzen. Jendea ere asko gutxitua dago, eta gaur egun esan liteke Laurgaingo festa giroa itzaltzen dagoala.

Nik ezagutu nuan garaian ere erromeri ederrak egiten ziran. San Miel eguna oso billera onekoa zan. Baiña urrengo igandea, Ama Birjiña Errosarioko ura, izaten zan berdin gabeko eguna.

Aia aldeko, Altzola, Urdaneta, Elkano, Urteta, inguru guzietako jendea biltzen zan. Gazte eta zaar, ura jendearen emana, iñun kabitu eziñik! Aiek ziran garaiak, aiek!

Gaiñera, San Martin aurreko igandera arte jaiero erromeria jartzen zan; eta, batere giro ona izan ezkerro, beti jendez plaza beteta.

Orain San Miel egunez eta urrengo igandeko meza nagusitan jende mordoska bat, eta illunabarran ia iñor ez. Urteen buruan gauza asko aldatzen dira, eta Laurgaingo festa giroa ere bide ortantxe joan da.

Era ortara irixteko bultza dioten arrazoiak badaude bat baiño geiago: lenengo, auzo onen zati bat Oriora aldatu zalako; bigarren, baserriak ustu eta jendea gutxitu dalako; eta irugarren, tabernarik ez daukalako.

Gaur egun alkarte bat badauka, eta oso polita gaiñera. Baiña ori ez da naikoa. Beste auzo askotako gisan jantoki eder bat eduki izan balu, gaur ere billera ederrak egingo ziran. Oso toki polita da Laurgain; baiña jendea bertara etortzeko, zerbaiten

aitzakia bear izaten du; eta aitzaki ori billatzeko aukerarik ez daukalako, ez da jenderik inguratzen.

Beste era batzuetara gaur ere oso ospetsu dago Laurgaiñen izena. Diputazioak, nola zati aundi bat auzo orrena berea duan, gauza asko jarri ditu.

Lenengo, guarda-etxea egin zuan; gero, iru base-rritan granjak jarri zituan; eta orain, azkenengo urte auetan, parke naturala jarri du auzo orren barruan, eta *Pagoetako Parkea* deitzen zaio. Iturraran baserrian leengo baserri tresna eta orrelako gauzen museo antzeko bat dauka. Agorregiko ola zaarra berritu eta lengo era zaarrean lana egiten duala jarria dago. Bi errota ere bai.

Lengo garaietan erromeri giroan biltzen zan jendea; eta gaur, berriz, Laurgaingo Parkean dauden museo, ferreri, errota...

Iturrarango soro-zelaietan dauden jardin-zugaitz berdin gabeko aukera, milla ta berreun mota mundu guztitik ekarritakoak; eta bertako basoetan dauden pago, aritz, abeto, lausoniana, eta aien artean barrena ibilbide zoragarriak.

Beste ainbat abere mota: oreñak, orkatzak, pottokak eta abar eta abar.

Oiek guztiak ikusi eta bertako mendi eta basoetan barrena ibiliaz nola jendea gozatzeko toki eta gauza bereziak dauden, jendea larunbat, igande eta jai egunetan erruz inguratzen da; eta udara garaian, berriz, egunero.

Ara: Laurgaingo auzo onetan egundoko aldakuntzak izan dira. Leengo garaietan eliz billera eta erromeri giroan, eta gauza aien aroa joan zan. Baiña alde artatik indarra galduta gelditu baldin bada ere, orain beste gauza oiei esker berpiztuta aurkitzen da, eta orrek poz aundia ematen du.

Leen era batera eta gaur bestera, Laurgaiñek so-

natu izaten jarraitzen dio, eta orrelaxe jarrai dezala urte askoan.

Toki guztietan izaten dira gizon bereziak, ateraldi aundiak izaten dituztenak eta umoretsuak, festa giroan batez ere.

Nik ez nuan ezagutu, baiña nere aurrekoei entzuten nien Laurgaiñen ere bazala gizon berezi oietako bat, Gaztandizabal baserriko semea, Antonio Joxe. Sonatua izango zan inguru ontan. Basarrik ere irratitikan bein baiño geiagotan aitatu zituan aren ateraldiak.

Gorputz aundikoa omen zan; eta eztarria, berriz, arrigarrizko indartsua. Bertsoan erabat aldrebesa rima aldetik, baiña arrazoiak bete-betekoak. Olako indarrean kantatzen omen zuan; eta inguruan zeudenak, bi edo iru bertso bakarrik kantatzen zituanean, gozatzen omen zituan.

Gaztea zala ere, ez omen zuan festa jartzeko soiñu bearrik izaten. Bere gisa txalo jo eta kantatu eta dantzan egin asten zanean, ostatu artan kome-ria jartzeko naikoa omen zan bera bakarrik.

Erderakadak ere aundiak moldatzen omen zituan. Garai artan, gaiñerakoak batere etzekitenak; eta, arek alako aleak jaulkitzen zituanean, danak arritzen egoten omen ziran.

Bein batean, ustez puska bat eldu ezkerro, beste jai illuntze askotan bezela, Aiako tabernetan zerbait artuaz zebillela, bateonbategen arrika udaletxeko leio bateko kristalak autsi omen zituan, eta Antonio Joxe beste lagunen batzuekin orduantxe etxera abitu.

Guardizibillak zer gertatu zan jakin zutenean, asi omen ziran batera eta bestera; eta, Izkialde-gaiña esaten zaion tokian barrena zijoazela, guardizibillak atzetik zituztela konturatzean, beste lagunak aldegin eta Antonio Joxe arrapatu.

Ura ote zan erruduna pentsatuta-edo, jotzen ekin omen zioten. Ala asi ziranean, min artzen nunbait, eta egundoko orrua egin omen zuan:

– ¡Suspendido kolpia! ¡Yo no culpante!

Orrela mintzatu zanean, guardizibillak jotzea utzi eta aldegin omen zuten.

Antonio Joxek, bere lagunekin berriro alkartu zanean, bere amorruan ala esaten omen zuan guardi aietako batengatik:

– Lau libra ez dek, eta ori neri bizkarrekoak ematen? Bialtzea zeukatek, nola batek ala besteak, atsoak gure gaztaindira! Nik egingo diat putreentzat zezeiña!

Nunbait guardizibillen andreak Antonio Joxeren gaztaindian gaztaiña biltzen ibiliak zeuden; eta, berriaz joaten baziran, zer egin erabakia izango zuan.

Beste bertso bat ere askotan kantatzen zuana bai omen zuan. Kantari eta dantzan egiten zuan, orrela asten zanean:

Naiz ta galesti izan  
nere modurako,  
promes egiña nago  
Arantzazurako;  
ez nau ikaratutzen  
bideko gastuak,  
diru asko balio dik  
neskatxa preskuak.

Tartean ori kantatuaz, egundoko komeriak jar-tzen omen zituan. Inguruan zeudenak parrez lertu arazten zituala esaten zuten ura ezagutu zutenak.

Antonio Joxe ori mutilzaarra omen zan. Bere anaia etxera ezkondu eta arek seme-alabak ere ba-zituan. Oraindik ere bizi dira batzuk.

Naiz eta mutilzaarra izan, ganadu tratuan ere bera ibiltzen zala esaten dute. Bein batean bei bat ekarri omen zuan, eta ustez ona zalakoan. Baiña gero ajeatua gertatu.

Arreba bat bai omen zuan, moja joan, urtebete-edo pasa eta osterera etxera etorria. Eta egun batean, bei ari begira zeudela, arreba orrek esan omen zion:

- Oraintxe ere tratu ederrak egin dituk ik! Onaren prezioan, gaitzak jotako beia ekarri dek!

Orduan Antonio Joxek erantzun omen zion:

- Traturik txarrenak irekin izango dizkiñagu egiñak: etxean ziran xox guztiak gastatuta prestatutako arrioa eraman unan konbentura, eta bueltan soiñeko xar bat besterik ez unan ekarri. Bei onek, ilda jateko ere oraindik balio din. Ik artarako ere ez!

Berriz kargu artzeko gogoak kenduak izango zizkion.

Garai artan, eskalekoa ere asko izaten zan. Baserrietan jan eta lo egiñez ibiltzen ziran.

Bein batean Gaztaintzabal ortara illuntzerako eskale erdaldun bat joan omen zan; eta, aparria eman eta lotarako pronto jarri zanean, Antonio Joxek trasteak nun utzi eta nun lo egin bear zuan adierazi omen zion era onetan:

- *Quita las abarcas, abrasa las ancas, taqueta los pardeles, erropas al arca-gain y dunbulis oira.*

Etzuan eskaleko arek edozein baserrian olako erderakadarik adituko. Ortantxe badadukat ziurtasun osoa.

Beste batean ere, Laurgain auzoko mutil bat Urteta auzoko neska batekin asi omen zan, eta gero Laurgaingo beste mutil batek pujatu. Bigarren mutil ura Orbelaun baserriko ataritik ibiltzen zan nunbait neskarengana joan-etorrian.

Gauza oien berri danak jakingo zituan, ikusten



danez, Antonio Joxek; eta igande gau batean,  
Laurgaingo bi mutil aiek zeuden tabernan sartu  
omen zan, eta onoko bertso au kantatu omen zuan:

Bejondaezdakizula,  
Señor Landarbide,  
i añeko gizonak  
badituk Sarrolan;  
Orbelaungo atarian  
zitxeon trilluba,  
jotzen baut ostikoz atzen,  
arraio polatu,  
tirako aut tellatura,  
ala Jaungoikua!

Ark bere ustetan aien istori guztia esplikatu zuan  
bertso batekin; eta, egia esateko gaiñera gauza asko  
aitatzen ditu, eta ori dala esaten dute bertsoak dau-  
kan meritu guztia.

---

## Gainbeera dijoaz

**N**ere gaztearoko erromeri giroan murgilduta jardun natzaizue kontu kontari. Gure inguruko erri, errixka eta auzoetan egiten zituzten eta genituan berdin gabeko billera zoragarri aietaz mintzatu naiz.

Aiek ziran leku eta garai bereziak, gaztediak eta ain gazte etziranak gustoko erromeri giroa topatu eta artaz gozatzeko.

Erri aundi edo irietan, euskal festa antzekoak jarri ezenean, ez dago giro mota ura sekulan arkitzerik. Lengo garaietan etzan izaten, eta orain berriz gu-txiago. Gauza bakoitzak bere garaia eta tokia izaten ditu, eta erromeriak ere alaxe zituan.

Gaur egun, ala bearrez, trikitixa, txistua eta beste edozein soiñu mota jotzen dakian jendea sekula baiño geiago dago. Baiña soiñu oien inguruan dantzan eta jolasean ibili nai duan gazte gutxi.

Aiako San Pedro auzoak urteak pasa ditu, abenduan asi eta San Juanak bitarteko igande eta jai egunetan erromeria egiñez. Oso sonatua izan da Gipuzkoa maillan. Inguru guztietakoak bertaratzen ziran. Napar izkiña eta Goieritik ere gazte jendea etortzen zan garaia izan zuan. Ume eta gaztetxoak artuta, guraso asko biltzen zan bertara. Oraindik



*San Pedroko Izekiondo baserrian gari ebaten.*

ere soñua jotzen dute, baiña erromeri giro ura itzali samarra dago.

Txikitxoak ere, aundiak utzi dioten ortan, asperzen asiak daudela ematen du. Erromeria ez baida bakarka egiten dana. Aundi eta txiki, danak alkarren babesean. Festak ere orduan du berotasuna.

Beste tokietan ere kanpoko erromeri oiek azken arnasetan daudela esatea ez da gezur aundia izango. Zorionez, badira oraindik garai berezi batzuetan lengo erromeri giro ura ezagutzeko aukera ematen duten tokiak. Oietako batzuk, sonatuenak diranak, orain jarriko ditut.

Udazkenean, lau edo bost igandetan jarraian, Ernioko joan-etorria bitarteko dala, Zelatun eta Iturriotzen erromeria izaten da. Giroak laguntzen duala, jende asko biltzen da toki oietan oraindik ere. San Antoniori bisita egiteko aitzaki orrekin, Urkiolan ere erromeria izaten da. Aralar mendian ere, San Migelen, Korpus egunez izaten dala entzun det nik. Eta beste ermita bereziren batzuk an-emenka izango dira.

Baiña *sala de fiestas* izeneko zulo oiek emen sortu ziran ezkeroztik, Euskal Erriko erromeri alai eta sutsu aiek itzali dirala aitortu bearrean gaude. Pixkana-pixkana auldu eta aldakuntzaren zamak azpian artu eta ito egin ditu.

Gauzarik aundienak eta indartsuenak ez dute betiko iraupenik izaten. Danak izaten dute beren amaiera, eta gure errietako erromeri aiek ere lege orretxen azpian erori dira.

Gizaki eta gaiñerako izadi guztia lege orren ardatzean loturik goaz; eta, ori ain indartsua nola dan, orrengandik iñork ez dauka iges egiterik.

Esaera bat bada gure izatearen ardatza beti jiraka dabilhela, eta leen igarotako gauzak ostera berrikuntza izaten dutela.

Orretaz oroitzean, itxaropen apur bat gelditzen zait nere biotzean, gure denboran ez bada ere, ondorengo belaunaldiren batean piztu litekela, itzali zorian dauden lengo erromeri aien txingarretatik, berriro erromeriak indarrean jarri dituan sua.

Eta garai artan gertatzen diran gure ondorengo aiek izan dezatela giro errikoi eta jator batean erromerietan gozatzeko aukera, aurrekoen oitura eta lege aiek zearo baztatu gabe, naiz eta gauza batzuk berriro bearrean gertatu.

## Azken agurra

1 Zerbait mintzatu nai det  
lengo erromeriz,  
ez nijoa afanez  
edo arrokeriz.  
Nik sentitzen detana  
esango det egiz,  
auxe pentsatutzen det  
makiña bat aldiz:  
giro ura eztala  
itzuliko berriz.

2 Gaztetan luzatutzen  
genitun pausuak,  
sarritan igaroaz  
mendi ta basuak.  
Gure biltoki ziran  
erri ta auzuak,  
bultzatzen zigulako  
sasoia ren suak,  
aietxek bai zirala  
billera gozuak.

3 Lengo erromeriak  
danentzat ziran gai:  
senar eta emazte,  
arreba ta anai.  
Zer billera ederrak  
igande eta jai!  
Orduan erri dana  
pozik eta alai,  
gaztentzat onak ziran,  
zarrentzat ere bai.

4 Igande eta jaitan,  
oitura zan gisan,  
goizetik biltzen giñan  
guztiok elizan.  
Lagunekin itzezin  
nora komeni zan,  
gero erromerira  
alkarren gerizan,  
aixa juten giñan gu  
naiz urruti izan.

5 Nola egoten giñan  
erromeri miñez,  
auzo urrutiñera  
juten giñan oiñez.  
Toki batzuetara  
bi ordu gutxiñez,  
bidea igarotzen  
gendun atsegiñez,  
lagunak alkarrekin  
bertsotan egiñez.

6 Gaur danerako dago  
erosotasuna,  
gure sasoian berriz  
dana laztasuna.  
Baiña guk umorea  
eta osasuna;  
irakurle, bazera  
oiek dauzkazuna,  
orduan dauka batek  
aberastasuna.

7 Lengo erromerira  
danak borondatez,  
orrela ikusi da  
makiña bat urtez.  
Aldakuntza sortu zan  
emen urte batez,  
orduko festa giro  
eder aien kaltez;  
gaur danak zuloetan  
plazetako partez.

8 Izadia loturik  
dabil ardatzean:  
goiza eroritzen da  
beti arratsean;  
gaztetasuna batek  
galtzen du zartzean,  
erromeri giroa  
galdu dan antzean;  
berriak beti zarra  
uzten du atzean.



9 Lengo festa giroa  
eta umorea  
ona zan, da egin nai  
diot oorea.  
Gaztediak au dio:  
“Gaurkoa ohea”.  
Geiena goraltzen du  
bakoitzak berea,  
ori izan da beti  
munduko legea.


---

## Arkibidea

|                                  |     |
|----------------------------------|-----|
| Lenengo aldiz Erniora .....      | 7   |
| Zigorra .....                    | 21  |
| Mutikotako jolasak .....         | 26  |
| Mutil-ardoa .....                | 30  |
| Eukaristi eguna .....            | 39  |
| Altzola .....                    | 45  |
| Pazkoa.....                      | 53  |
| Urdaneta .....                   | 58  |
| Urdanetako San Martin jaiak..... | 63  |
| Iturriotz eta Muatz.....         | 67  |
| Pagoetako zillar-eztaiak .....   | 75  |
| Pagoetako eguna.....             | 83  |
| Eibar .....                      | 87  |
| Lurdes.....                      | 91  |
| Santa eskea .....                | 99  |
| Soldaduskako jolasak .....       | 114 |
| Arantzazura erromes .....        | 133 |
| Aiako Euskal Festak .....        | 145 |
| Laurgain.....                    | 161 |
| Gainbeera dijoaz.....            | 171 |
| Azken agurra.....                | 175 |



1051077  
G-128/93



*Beti festara begiak*, eta bai gogo guzia ere. Ala bizi zan garai bateko euskal gazte jendea. Gaur ere bai noski. Baiña orduko erromerietatik gaurko *sala de fiestas* oietara, egunetik gauera bezelako aldea dago. Aiek, ain zuzen ere, egun argiz egiten ziran; auek, berriez, gau illunez.

Erromeriak galduxeak daudela aitortu bearra dago. Gizaldietan indarrean iraun ondoren, gure mundu berri onek il-zorira ekarri ditu.

Gure erri-literaturan lengo erromeri aien aitamenak eta oiartzunak nunai azaltzen dira. Baiña zer izan ziran adierazten duan libururik ez genduan orain artean. Utsune ori betetzera dator Joxe Mari Lertxundiren lan berri au. Berak ere ondo ezagutu baitzitan, festa aietaz berotasunez itzegiten digu; eta bai tristura kutsu batekin ere, alako alaitasun iturriak agortzera dijoazela ikusita.



Aiako Udalaren  
laguntzarekin argitaratua.

ISBN 84-89080-36-4



9 788489 080362

G-